



EUSKARAREN GOGOETAGUNEA



EUSKALTZAINDIA

EUSKARAREN
GOGOETAGUNEA

Argitalpen honen fitxa katalogifikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Academy of the Basque Language: www.euskaltzaindia.eus/azkue

Hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia Zerbitzua (HIZBEA).

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / Académie de la langue basque

Plaza Barria 15

48005 BILBAO

Tel. 94 - 415 81 55

Posta elek.: info@euskaltzaindia.eus

Webgunea: <https://www.euskaltzaindia.eus>

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Barrualdearen diseinua: Tamtam SL

Gainazala: Tamtam SL

Inprimatzea: Leitzaran Grafikak SL

ISBN: 978-84-127506-3-8

Lege-gordailua: D 00496-2024

EUSKARAREN GOGOETAGUNEA

Koordinatzailea
Jon Sarasua Maritxalar



EUSKALTZAINDIA

BILBO / BILBAO

2024

JAGON SAILA
Sustapen Batzordea

BURUA
Sagrario Aleman

IDAZKARIA
Erramun Osa

KIDEAK
Jon Aizpurua
Eneko Gorri
Irati Iciar
Patxi Juaristi
Santiago Larrazabal
Gotzon Lobera
Iñaki Martínez de Luna
Patxi Saez
Jon Sarasua
Castillo Suárez
Belen Uranga
Andres Urrutia
Ibon Usarralde

AHOLKULARIAK
Kike Amonarriz
Eneko Bidegain
Jean-Baptiste Coyos
Xabier Erize
Pantxo Etxegoin
Eba Gaminde
Andres Iñigo
Elixabete Piñol
Manuel Maria Ruiz
Arabako ordezkaria
Gipuzkoako ordezkaria
Nafarroako ordezkaria
Ipar Euskal Herriko ordezkaria

AURKIBIDEA

Sarrera

Sagrario Aleman Astitz	9
------------------------------	---

Euskararen Gogoetagunea: egitasmoaren ezaugarriak

EUSGUNE lantaldea.....	11
------------------------	----

Euskararen egoera soziolinguistikoa: ikuspegi orokorra

Olatz Altuna Zumeta eta Jon Aizpurua Espin.....	19
---	----

Euskararen etorkizun-ikuspegia: ariketa sintetikoa

Jon Sarasua Maritxalar.....	43
-----------------------------	----

Etorkizun-ikuspegia: aisia eta hezkuntza ez-formal antolatua

Iñaki Arruti Landa	99
--------------------------	----

Etorkizun-ikuspegia: administrazio- txosten sektorialeko ponentzia

Maite Zipitria Agirrezabala eta Joxean Amundarain Iturrioz	121
--	-----

SARRERA

Sagrario Aleman Astitz

Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko burua

Euskararen biziberritze-prozesua aztergai izan da gu bezala hizkuntza gutxiagotua berreskuratzeko bidean diren askorendako, eta eredu ere bai. Ahuldutako hizkuntzak ditugunok elkarrengandik ikasteko aunitz baitugu. Euskara indarberritzeko ahaleginak bi zentzutan egin ditugu bereziki: batetik, hiztunei eustea eta hiztunak ahalduntzea eta gaitzea euskara bizitzako arlo guztietan erabiltzeko eta eremu eta gizarteko egoera berrietara egokitzeko, eta, bestetik, hiztun berriak sortzea. Estatusetan eta corpusean saiatu gara. Nolabaiteko hizkuntza estandarra sortu dugu, hizkuntza hegemonikoek egiten duten gisara.

Bidea luzea eta emankorra izan da ez, ordea, orekatua lurralde guztietan, abiapuntua eta batez ere, hizkuntza politikak oso desberdinak egin ditugulako. Euskararendako esparru berriak irabazi ditugu, euskaldun kopurua handitu da. Hizkuntzako komunitatea gogotsu aritu da bere beharrak asetzeko bitartekoak jartzen; ezin, gainera, gizartearen inplikaziorik gabe aitzinatu. Eragile anitzek hartu du parte egiteko honetan. Hala ere, eguneroko harremanetan euskararen presentzia sendotzetik aparte gaude, euskaraz bizitzea erdiestetik urrun.

Azkenaldian, halere, ohartuak gaude bidegurutzean gaudela, edo biribilgunean, jira eta bira, nora jo ez dakigula. Adituen azterketa eta iritzi-artikulu ugari argitaratu da zentzu horretan; jardunaldi eta eztabaida saio eta guneetan ere ongi pentsatutako bidea markatu behararen kezka azaltzen da.

Nork hartuko du gidaritza langintza honetan izan da, behin eta berriz, egin dako galdera. Lan horretarako Euskaltzaindia proposatu dute zenbaitek. Euskaltzaindia, euskararen lurralde guztietan ari delakoz eta euskara batuaren eraikitzean ere lema hartu zuelakoz. Nahiago baduzue, Euskaltzaindiak, gogoeta bulkatzeko, Jagon Sailaren barnean sortu zen Euskararen Gogoetagunea (EUSGUNE) egitasmoaren koordinatzailea den Jon Sarasuaren hitzetan: «Badira arrazoiak pentsatzeko Euskaltzaindia izan litekeela zeregin honetarako altzo egokia, euskararen komunitateak dituen indar, sentsibiltate, mesfidantza eta aitorpen-sare konplexuan, erakunde horretatik egingako mota honetako ariketak eragile askoren aitorpena izan dezakeelakoz».

Euskaltzaindiak bere sorreratik sortu zituen bi sail, Iker eta Jagon eta, hain zuzen ere, Jagon Saileko Sustapen Batzordearen zeregina da, besteak beste, euskararen estatusari buruz gogoeta egitea hortaz, helburua aintzat harturik, Euskararen Gogoetagunearen tokirik egokiena hauxe da.

Hemen argitaratu den lehenengo artikuluan, «Euskararen Gogoetagunea: egitasmoaren ezaugarriak» deitutakoan EUSGUNE lantaldea Euskararen Gogoetagunearen zentzuaz ari zaigu. Lanaren ezaugarriak eta metodologia azaltzen dizkigu. Ahalik eta aditu eta eragile gehienen iritzia jaso nahi dira, modu batez edo bestez, denen parte hartzea bilatu, ekarpenak bildu.

Bigarren artikulua, «Euskararen egoera: ikuspegi orokorra», Olatz Altuna Zumetak eta Jon Aizpurua Espinek egin dutena. Bertan esan digute, euskaldunen kopurua zenbatekoa den eta euskaldun horien ezaugarriak zein diren: hizkuntza nola jaso duten, zer gaitasun duten, noiz eta nola erabiltzen duten eta beste hainbat datu. Azken batean, egoeraren ikuspegi zabala eman digute.

Azken artikulua, «Euskararen etorkizun ikuspegia: ariketa sintetikoa» Jon Sarasuak egin, Euskararen Gogoetagunearen oinarritzko ponentzia da, arlokako ponentzien enborra. Euskararen Gogoetagunearen zeregina hauxe baita, datozen urteotarako euskararen bisioa edo etorkizun-ikuspegia lantzea eta etorkizun-ikuspegi horretara norabidetutako arnasa luzeko estrategia nagusiak marraztea. Ponentzia honetan euskal komunitatearen azken 60 urteetako ibilbidearen egitura azaltzeko zuhaitzaren irudia erabili du. Zainak eta adarrak, modu kontzientean edo inkontzientean, zenbat eta nola zaindu ditugun eta gaur horien osasuna nolakoa den ikusi. Aurrerago, ahul eta indarrik gabe ditugun adar eta sustraiak elikatzeko zer egin behar dugun ikusteko ere iduri baliagarria. Ez dakit zuhaitz hori lizarra, haritza, urkia edo zein den, nolanahiko gisan, argia, ura eta lurra beharko ditu amesten eta desio dugun bezain sendo bizi dadin.

Azken ponentzia hau abiapuntuko eta erdiguneko ponentzia gisa planteatu dugu. Gogoetagunean, ordea, ponentzia nagusi horiez gain arlokako ponentziak ere landuko dira eta horiek egin ahala argitaratuko dira: administrazioa, aisialdi antolatua...

Euskaltzaindiaren Euskararen Gogoetaguneak, hain zuzen ere, gogoetarako eta eztabaidarako eragileen eskura jarriko ditu horiek guztiak, guzien artean euskararen biziberritze-prozesuaren norabidea eta hats luzeko estrategia marrazteko.

EUSKARAREN GOGOETAGUNEA: EGITASMOAREN EZAUGARRIAK

EUSGUNE lantaldea
(Euskararen Gogoetagunea)

I. Egitasmoaren zentzuaz

Egitasmo honen izateko arrazoia sei puntutan azalduko dugu laburki:

1. Euskararen biziberritze-prozesu garaikideak ibilbide luzea egin du. Euskararen hizkuntza-komunitateak neke, ilusio eta meritu handiko bidea egin du ibilbide horretan, eta mundu mailan askorentzat da inspiratzaile. XXI. mendeak **galdegai berriak ekarri dizkio euskararen bideari**, eta une honetan norabide-krisi baten zantzuak bizi ditu, «krisia» kontzeptuaren adierarik positiboenean.
2. Abagune honetan, euskararen gaineko **iritzi argitaratuak dibergentzia handi xamarra** agertzen du egoerari buruzko balorazio, analisi eta planteamenduetan. Politikaren arloan, kulturaren arloan eta herri-ikuspegiaren arloan euskal gizartearen baitan eten aipagarriak izan dira azken hamarraldietan, eta eten horiek hizkuntzari buruzko balorazio eta planteamenduetan ere eragina dute. Bestetik, ikuspuntu soziolinguistiko desberdinek ertz desberdinak nabarmentzen dituzte bizi dugun egoeraz.
3. Egoerari buruzko kezka eta iritzi-ugaritasun honen erdian, elementu baten falta sumatzen da: **bisio edo etorkizun-ikuspegia, eta etorkizun-ikuspegi horretara norabidetutako arnas luzeko estrategia nagusien marrazkia**. Bisio edo etorkizun-ikuspegi bizigarri eta bideragarria ekoiztea eta arnas luzeko estrategia nagusiak marraztea berebiziko lana da euskararen biziberritze-prozesuaren abagune honetan, eta hori **lurralde desberdinen begiratuak** aintzat hartuz egin behar da.
4. Badira pertsonak, erakundeak eta taldeak euskararen bisiorako elementuak ekoizteko gaitasuna eta borondatea dutenak. Hala ere, gure hizkuntza komunitatearen iragana eta unea ikusirik, ona litzateke sentsibiltate politikoaren gaintetik, lurralde ikuspegiaren eta interes partikularren azpitik **euskararen etorkizun-ikuspegia lantzeko lanari ekingo dion gunea** eratzea. Gune horrek, ahal den neurrian, komunitatearen eragileen multzo askota-

rikoak aitorpen egiteko modukoa izan behar luke, autoritate moral zabal xamarra lortzeko baldintzak dituen.

5. Lan hori ez da nolanahi egitekoa. Hizkuntza komunitatearen diagnostikorik finenak eta pentsabiderik onenak **arrago batean bildu** behar ditu ariketa horrek, ikuspegi desberdinak elkarrizketan jartzeko moduko sinesgarritasunez, lurralde eta angelu desberdinak elkartuz, bisioa ekoizteak eskatzen dituen ariketa eta oreka konplexuak eginez, eta herrigintzako eragileei praktikoak gertatuko zaizkien testuak osatuz. Badira arrazoiak pentsatzeko Euskaltzaindia izan litekeela zeregin honetarako altzo egokia, euskararen komunitateak dituen indar, sentsibiltate, mesfidantza eta aitorpen-sare konplexuan, erakunde horretatik egindako mota honetako ariketak eragile askoren aitorpena izan dezakelako.
6. Esan gabe doa, egitasmo honetatik ekoiztuko dena euskararen komunitateari eta bere eragileei eskainiko zaien emaitza izango dela, Euskaltzaindiak berezkoa duen Jagon Siletik abiatuta eztabaidarako orientazio edo gogoeta moduan. Alegia, erakunde publiko, gizarte-erakunde eta gainerako eragileei dagokiela haien politikak erabakitzea. **Norabideak ikusten laguntzeko ekarpena** izan nahi luke egitasmo honen emaitzak, zerbitzu bokazioz egina. Bildu dituen eragile, pentsalari eta egile multzoak izan dezaketen aitorpena du berme bakar. Hortik aurrerakoa ekoiztutako emaitzaren indar eta kalitateak lortu behar du.

2. Lanaren ezaugarriak

Egitasmoaren zentzuaren atalean esan ditugunetatik eratortzen dira zereginaren ezaugarriak. Bost ezaugarri aipatuko ditugu:

1. Euskararen egoera eta norabideaz kalitate handieneko diagnostiko, gogoeta eta egileak bildu behar ditu lanak. Euskararen komunitateko ekoizpenik onenak arrago batean bilduta, aldi berean **irekitze eta biltze ariketa** izan behar du, analisi eta sintesi ariketa.
2. Irekitasuna izan behar du, **lurralde desberdinetako begiratueta, sentsibiltate desberdineko begiratu politiko, kultural eta soziolinguistikoeta**. Ariketa hori egingo duten erdiguneko pertsonen sinesgarritasuna izan eta landu behar dute, sentsibiltate desberdineneko pertsonen ahalegina pizteko.
3. Bokazio praktikoz egindako ekoizpena izan behar du. Testuek formatu eragilea hartuko dute. Helburua ez da espezialistentzat gogoeta orritsuak egitea. **Lanerako materiala** ekoizteak izan behar du ipar. Norabide horretan, sakondu nahi duenarentzat materiala ekoizteaz gain, laburpen exekutiboak eta formatu sintetikoan ekoiztutako materialak ere sortuko dira, mota askotako eragileen esku jartzeko. Materialak ekoizteaz batera, argitaratu ere

egingo dira, kasuan-kasuan, paperean zein euskarri digitalean, sare sozialak ere baztertu gabe. Nolanahi ere, Jagon Saileko ohiko argitalpen mardulez aparte, hauek izan daitezke bilduma berri baten aleak, Jagon kaierak edo koadernoak, alegia.

4. Urtez urte epekatutako egitasmoa izango da, euskara biziberritzearen etorkizun-ikuspegiak dituen alor eta adar desberdinak aletuz joango dena.
5. **Etorkizun-ikuspegia eta hari lotutako arnas luzeko estrategia nagusiak marraztea** izango da egitasmoaren helburu ardatza. Horrek eskatzen du ondo ulertzea etorkizun-ikuspegi edo bisioak behar dituen ezaugarriak, ariketa horrek dituen eskakizunak.

3. Bisio edo etorkizun-ikuspegiaren eskakizunak

Etorkizun-ikuspegi¹ edo bisioa ez da soilik etorkizunari buruzko ikuspegi, gogoeta, aurreikuspen eta asmo batzuk izatea. Ez da etorkizuna marraztea, ez da etorkizuna desioetatik lantzea, ez da etorkizuna irudikatzea, ez da etorkizunari buruzko aurreikuspen egokiak egitea. Hori dena bada, baina gehiago da.

Bisioari buruzko definizio eta aipamenak asko dira estrategiari buruzko literatura zabalean. Modu sintetikoan esanda, zera izan liteke etorkizun-ikuspegi edo bisioa: «Komunitate edo giza multzo bat **kohesionatu, motibatu eta norabidetzen duen etorkizuneko ortzimuga-marrazkia**».

Estrategia bisioaren ondorioa da. Zehatzago esanda, estrategiak (pluralean) bisioaren ondorioak dira. Etorkizun-ikuspegi egoki eta indartsu batetik sortzen dira ildo estrategiko eragile eta artikulatuak. Hain zuzen ere, bisioa ondo eraiikia izatea baita ildo estrategikoak artikulatzeko faktore nagusia. Ondo eraikitako bisiorik izan ezean ere, estrategia ildoak sortu, sor daitezke. Etengabe ari dira gure erakundeak, elkarteak, mugimenduak eta enpresak estrategia ildoak sortzen. Baina bisio egoki batek duen desberdintasun kualitatiboa da **estrategia ildoak artikulatzeko norabidea ematen duela**.

Etorkizun-ikuspegi edo bisio-ariketa egokia egiteak, hainbat ariketa konbinatzea eta bateratzea eskatzen du. **Ariketa desberdinen konbergentziaren bidez egiten den ekoizpena** dela esan dezakegu. Laburki saiatuko gara aletzen.

- a) Batetik, **iraganeko ibilbidearen ezaugarri eta prozesuak barneratu** behar dira. Iraganeko elementu hauek guztiak digestio kritiko baten bidez inte-

¹ Ingelesa eta gaztelera bezalako hizkuntzetan «vision» edo «visión» deitzen den kontzeptu hori 'etorkizun-ikuspegi' bezala itzultzearen aldeko hautua egin dugu, kontzeptuaren mamia egoki azaltzen duelakoan. Euskaraz horrela esateak daukan arriskua da, nahastea edo parekotzat jotzea guztiz berdinak ez diren bi adiera: «perspectiva de futuro» zabalago bat adierazten duena, eta «visión» kontzeptu zehatzagoak adierazten duena. Bigarrenarekin ari gara gu hemen.

gratu egin behar dira, eta norabide eraikitzaile baterako sustrai moduan erabili. Historiari dagokionez, koordinazio berezia gordeko da Euskaltzaindiaren Euskararen Historia Soziala egitasmoarekin, hortxe baitago euskararen iragan soziolinguistikoa aztertzeke giltza.

- b) Bigarrenik, egungo **abaguneari buruzko ikuspegi panoramiko** eta aldi berean sintetikoa landu behar da. Hemen kokatzen da Sustapen Batzordearen ohiko ibilbidea.
- c) Eta hirugarrenik, **norabide traktoreen iparrak** sumatu behar dira. Azken ariketa hori da konplexuena. Izan ere, aurreko bi ariketak ondo eginak izatea eskatzen du, angelu ugari eta informazio asko sintetizatzeke gaitasuna eskatzen du. Baina ez hori bakarrik. Kontua ez da sintesi bat egitea; sintesitik ateratzen den gezi formako norabide bat sortzea baizik, guztiarekin posibilitate-lerro bat marraztea. Horiek dira EUSGUNE berriaren zereginak, Sustapen Batzordearen eta Jagon Sailean Euskaltzaindiak dituen ekimenen barruan.

Norabide bat sortzeak, gorago aipatu ditugun horiez gain beste bi elementu neurri egokian konbinatzea planteatzen du. Batetik, etorkizunaren gaineko amets, proiektzio positibo edo *desideratuma*. Nahi denaren dimentsioa, aspektu utopikoa, lekuri ez duenaren lekua. Eta bestetik, etorkizunaren prospektiba errealista. **Perspektiba eta prospektibaren**, proiektzio positiboaren eta errealismoaren, sustraian eta berritasunen arteko konbinatze-ariketa da, beraz, bisioa eraikitzea.

4. Egitasmoaren atalak

Euskara biziberritzearen etorkizun-ikuspegia lantzea, hartan norabidetutako arnas luzeko estrategia nagusiak pentsatzea eta bisio horren adar desberdinak aletzea tamaina handiko lana da. Pausoz pauso egin beharreko zeregina horrela banatuko genuke:

Lehenengo atala: Abagunearen azterketa. Diagnostikoen sintesia.

Eskura ditugun diagnostiko kuantitatibo eta kualitatiboak bildu, gurutatu eta lanerako sintesi bat ekoitzi behar du. Sintesi eragilea izan behar du, galdera gakoak planteatzeko heldulekuak sortuko dituen, etorkizun-ikuspegiaren oinarri.

Bigarren atala: Etorkizun-ikuspegiaren marrazki nagusia.

2. puntuan esan dugunaren ildotik, iraganeko ibilbidearen gakoak, abagunearen irakurketa sintetikoa abiapuntu hartuz, eta perspektiba&prospektiba konbinatuz, euskararen biziberritzearen datozen hamarraldietako marrazkia trazatu behar du, komunitate baten ametsa eta lana kohesionatu eta norabidetu dezakeen irudia proposatuz.

Hirugarren atala: Datozen hamarraldietako indarbide nagusiak eta garabide-adarrak.

Euskararen garabide-adarrak asko badira ere, eta 4. puntuan adar horietako pausuak landuko diren arren, belaunaldi bakoitzak, hamarraldisorta bakoitzak izaten ditu lerroburu nagusiak, aroko apustu handiak, ipar bereziak. Etorkizun-ikuspegiarekiko koherentzian, eta beronen zutabe, datozen 25-30 urteotara begira euskararen biziberritzeak behar dituen indarbide nagusiak detektatu eta formulatzea da atal honen egitekoa. Eta aldi berean, indarbide nagusi horien alboan, euskararen garabide-adar izan direnek (corpusa, hezkuntza, helduen euskalduntzea, hedabideen arloa, kulturgintza, teknologien arloa, administrazioa, enpresa-eremua, familia transmisioa, aisialdi antolatua etab.) datorren aroan har dezaketen norabideak eta berauetako berrikuntza-ildoez pentsatzea.

Laugarren atala: Biziberritze-prozesuaren eragileen mapa eta etorkizuneko funtzio-banaketak.

Euskararen biziberritze-prozesuaren eragile dira erakunde publikoak, gizarte-erakundeak eta ezagutza-erakundeak. Era berean biziberritzearen mugimendu dimentsioa ere aintzat hartzekoa da, gizarte-mugimenduek dituzten parametroetan. Eragile hauetako bakoitzak (erakunde publikoek, alderdiek, euskararen gizarte erakundeek, ezagutza-erakundeek eta euskalgintzaren mugimendu dimentsioa mamitzen dutenek) aurreko aroan izan duten, egun duten eta etorkizunean izan dezaketen funtzio banaketaz gogoeta egitea da etorkizun-ikuspegiaren angeluetako bat. Honetaz egingo du gogoeta atal honek, eta biziberritzearen eragile-mapa nahiz funtzio-mapa ahalik eta egokiena iradoki.

Bosgarren atala: Etorkizun-ikuspegi orokorra eta lurralde berezitasunak.

Esan beharrik ez dago euskararen lurraldea askotarikoa dela, eta euskararen biziberritzeak lurralde bakoitzeko indargune, ahulgune eta aukeren arabera eman behar dituela pausuak. Lurraldeetatik pentsatu behar dugu euskararen biziberritze orokorra orain arte aipatu ditugun 1., 2., 3. eta 5. puntuetan. Aldi berean, orokortasun horrek berriro lurraldeetan mamitu behar du, horietako ezaugarri eta aukeretatik abiatuta. Gogoeta horri landuko da atal honetan.

Seigarren atala: Euskararen biziberritzearen arrazoibideak. Kontakizuna, mezuak eta diskurtsoak.

Gizakia kontakizun-animalia dela gero eta ohartuago gaude. Euskara biziberritzeko prozesuak kontakizuna behar du, eta arrazoibideak behar ditu. Kontakizun-elementuak ekoizteko eta arrazoibideak lantzeko zeregina,

batetik, lan bakarra da, koherentzia globala izan behar du. Eta bestetik maila askotan egin behar da, eragile multzoen arabera, lurraldeen arabera, belaunaldien arabera, sentsibilitate politiko eta ideologikoen arabera, arrazoibideak finduta, egokituta, eta indarrean dauden askotariko ikuspegiekin elkarrizketan jarrita. Lan hau (ere) eragile askoren artean eta etengabe egin beharrekoa da, baina etorkizun-ikuspegiaren lanketa honek berariaz eskatuko du atal honen oinarri batzuk ere garatzea.

Zazpigarren atala: Denon eskuragarri ipintzea.

Euskal komunitatearen eta gizartearen eskuetan jartzea, sare sozialak, ageriak eta abar gisako bitartekoak baliatuz.

5. Lanaren garapena lau urteko zikloan

Hauxe izan da lau urteko epean aurreikus dezakegun kronograma:

2022 urtea

1. Abagunearen azterketa. Diagnostikoen sintesia.
2. Etorkizun-ikuspegiaren marrazki nagusia.
3. Datozen hamarraldietako indarbide nagusiak eta belaunaldiko apustu handiak.
4. Biziberritzearen ardatz-sistema: indarbide nagusiak eta garabide-adarrak.

2022-2023 urteak

5. Euskararen garabide-adarrak I.

2023-2024 urteak

6. Euskararen garabide-adarrak II.
7. Etorkizun-ikuspegi orokorra eta lurralde-berezitasunak.
8. Biziberritze-prozesuaren eragileen mapa eta etorkizuneko funtzio-banaketak.

2024-2025 urteak

9. Euskararen biziberritzearen arrazoibideak. Kontakizuna, mezuak eta diskurtsoak.

6. Lan-metodoa

2. zatian lanaren ezaugarriez esan dugu sentsibilitate eta jatorri desberdineko eragileen arrago izan behar duela lan honek. Aldi berean, ikuspegi askoko gogoeta orritsu bat baino gehiago eragileen eskura erraz jartzeko eta lanerako dokumentuak ekoitzi behar dituela aipatu dugu. Zabal hasi eta zehatz bukatu, irekiduratik hasi eta

sintesi eragileetan amaitu. Horrek eskatzen du lan-metodo eraginkorra sortzea, ikuspegi desberdinen eztabaida amaigabeetan tratatuko ez dena, ñabardurak eta lehen-tasunak bereizten lagunduko duena, emaitza erabilgarriak sortzera bideratuko dena.

Honako elementu hauek konbinatuko ditu lan-metodoak:

- Egitasmoaren gidari koordinatzailea.
- Egitasmoaren idazkari teknikoa.
- Gaikako ponentziagileak.
- Kontraste-taldea, lurralde desberdinetako biziberritze-prozesuko kualifikazio handiko eragileek osatua.
- Arloetako adituekin mintegiak.

Posible den guztietan, abiapuntuko lan-hipotesiak planteatuko dituzten ponentzia-zirriborroen bidez egingo da lana, eztabaidak gogoeta-maila elaboratu batetik hasteko.

EUSGUNE beraz, Jagon Sailaren Sustapen Batzordearen barneko lantaldea izango da, egitasmo jakin bat aurrera eramango duena. EUSGUNE lantaldea, beraz, honela osatzea proposatzen dugu:

Lantaldeko burua: Sagrario Aleman.

Gidari koordinatzailea: Jon Sarasua.

Idazkaritza teknikoa: Erramun Osa eta Ibon Usarralde.

Aholkulariak:

- **Kontraste taldea.** Irizpidea: lurralde desberdinetan euskararen biziberritze-prozesuko eragiletzan eta alorretako estrategietan nabarmendutako pertsonak. Lurralde-aniztasunaz gain, lan-sektore eta sentsibiltate ideologikoen aldetik askotariko taldea osatuko dute.
- Era berean, **berariazko mintegiak** egiteko aintzat hartuko dira azken hamarraldietan euskararen biziberritzeari buruz argitarapen bidezko ekarpen esanguratsuak egin dituzten egileak. Mintegi hauek bilatuko dute Euskal Herrian euskararen norabideaz ditugun aditu nagusien kontrastea, egitasmo honetan ekoizten den materiala bide onetik doala ziurtatzeko.
- Lan metodoaren baitan, **gaikako ponentziak** eskatuko zaizkie alor jakinetako pertsona egokienei. Ponentzia horiek kontrastatuko dira hiru modu desberdinetan: EUSGUNEREN kontraste-talde propioan, Jagon jardunaldietan, jardunaldiei horretarako metodoa emanez, eta berariaz ponentziaren arlo jakineko aditu batzuekin egindako mintegietan. Azken emaitzak gizarteko eragileen esku jarriko dira ahalik eta modurik ulergarri eta erabilgarrienean.

EUSKARAREN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA: IKUSPEGI OROKORRA

Olatz Altuna Zumeta
Soziolinguistika Klusterra

Jon Aizpurua Espin
Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailordetza)

1. Sarrera.....	21
2. Begirada soziodemografikoa	21
3. Gaitasuna, erabilera eta jarrera.....	22
3.1 Zenbat euskaldun gara?	22
3.1.1 Euskaldunen ingurunea eta harreman-sareak.....	23
3.1.2 Euskal hiztunen profila.....	24
3.2 Nola egin gara euskaldun?	25
3.2.1 Familiako transmisioa: lehen hizkuntza.....	26
3.2.2 Hezkuntza.....	28
3.2.3 Helduen euskalduntzea.....	28
3.3 Euskararen eta gaztelania/frantsesaren arteko gaitasun erlatiboa.....	29
3.4 Euskara zenbat erabiltzen da?	29
3.5 Zein da euskararekiko jarrera?.....	33
3.5.1 Gazteek zer diote?	34
4. Arlokako begirada.....	36
4.1 Arlo sozioekonomikoa.....	36
4.2 Kultur eta komunikabideen kontsumoa.....	38
4.3 Ingurune digitala.....	39
5. Bibliografia.....	41

I. Sarrera

Euskaltzaindiaren eskariz egindakoa da honako dokumentu hau. Euskararen egoera soziolinguistikoa zertan den jaso nahi da. Ez da argazki xehatu bat, baizik eta gako nagusien bilduma labur bat. Izan ere, egoera soziolinguistikoak hainbeste ertz dituenez, ikuspegi partziala eman beharrean gaude ezinbestean.

Batez ere, datu kuantitatiboetan oinarritu gara. Ez da sakonduko hizkuntzaren estatus juridikoa, prestigio soziala, diskurtsoa, motibazioa eta horrelako beste aldagai kualitatiboetan. Izatekotan, euskararekiko jarreraren atalean, eta bereziki gazteek dituzten bizipenetan, egin diegu tokitxo bat horrelako faktoreei.

Sintesi honek euskara biziberritzeari buruzko hausnarketa bideratzeko balio balezake, pozik geundeke. Ea horrela den.

2. Begirada soziodemografikoa

Euskal Herriak gaur egun 3.196.513 biztanle ditu, gehiengo zabala (% 83) gune urbanoetan bizi da, eta % 17 baizik ez da bizi landa eremuan¹.

Lurraldean arabera, Bizkaian bizi da biztanle gehien (1.159.717, % 36), 727.121 biztanle ditu Gipuzkoak (% 23), Nafarroa Garaiak gertutik jarraitzen dio (661.197 biztanle, % 21), 335.805 biztanle bizi dira Araban (% 11), eta Ipar Euskal Herrian bizi da biztanle gutxien (309.673, % 10).

Adinari dagokionez joera orokortua da biztanleriaren adin-piramidea zahartu egin dela. 65 urtetik gorako biztanleriaren proportzioa 2000. urtean % 18 izate-tik 2020an % 22 izatera pasa da. Ugalkortasun-tasaren beherakadaren eta bizi-itxaropenaren igoeraren ondorioz gertatu da biztanleriaren zahartzea.

Azken bi hamarkadetan Euskal Herriko biztanleria % 10 hazi da. Duela hoge-i urte baino ia 300.000 biztanle gehiago gara. Herrialde guztietan hazi da, Zuberoan izan ezik.

Biztanleriaren hazkunde hori ez da hazkunde begetatiboagatik gertatu, izan ere, euskal herritarren artean bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotzen kopurua heriotzena baino baxuagoa. Biztanleriaren hazkundera azken urteetako migrazio-saldo positiboari zor zaio. 2000. urtean estatutik kanpo jaiotako biztan-leen proportzioa % 2 zen, eta hoge-i urte beranduago % 12 da. Nafarroan are handiagoa da atzerrian jaiotako herritarren ehunekoa (% 17), eta 20 eta 29 urteko gazteen artean ere bai (% 21 EAEn).

¹ Iturria: EUSTAT (udal-errola), INE (udal-errola), INSEE (RP eta *Population municipale*) eta GAINDEGIA.

Euskal herritarren jatorri-aniztasuna gero eta nabarmenagoa da. EUSTATEN datuen arabera, EAEn 2001ean jaiotako haurren artean % 3,5koa zen atzerriko ama zutenen proportzioa; aldiz, 2021ean jaiotako haurren artean % 27,2raino igo da proportzio hori.

Jatorri atzerritarreko biztanleak batez ere eremu urbanoetan biltzen dira, baina landa eremuan ere gero eta gehiago antzematen da jatorri atzerritarreko biztanleen presentzia, esate baterako, Errioxa Arabarrean, Lea Artibain, Estellerrian edota Nafarroako Erriberan.

3. Gaitasuna, erabilera eta jarrera

3.1 Zenbat euskaldun gara?

Euskal Herriko biztanleen herena baino zertxobait gehiago euskalduna da gaur egun. Hau da, 1.000.000 pertsona inguru daude Euskal Herrian euskaraz ondo edo nahiko ondo ulertu eta hitz egiten dutenak. Beste 500.000 herritarrek euskaraz ondo hitz egiten ez duten arren, badute ulertzeko gaitasuna. Euskaldun hartzaileak dira, eta Euskal Herriko biztanleen % 16 inguru dira. Hortaz, Euskal Herriko biztanleen erdia inguru (1.500.000 pertsona) erdalduna da. Erdaldunek ez dute euskaraz hitz egiten, ezta ulertzen ere. Euskaldunek, esan gabe doa, ia denek ulertu eta hitz egiten dute ondo erdaraz.

Gaur egun, euskara jasotzeko moduak arras aldatu baitira, euskaraz ulertu eta hitz egiteko gai direnen artean ere, hizkuntzaren menperatze-maila oso desberdina da. Euskaraz dakitenen milioi bat pertsonaren multzo horretan ez dira gutxi euskaraz erraztasunik ez dutenak, nahiz ikasketak eredu euskaldunetan egin. Datu kuantitatiboez gain (zenbat euskaldun, zenbat erdaldun), oso kontuan hartzekoa da hiztun horien gaitasun kualitatiboa, horrek bete-betean eragiten baitio erabilerari².

Euskaldun gehienak EAEn bizi dira, guztien % 85. Nafarroan euskaldunen % 9 bizi dira, eta Iparraldean % 6. Kontuan izan behar da Euskal Herriko biztanleria-
ren % 70 bizi dela EAEn.

Azken 30 urteotan gora egin du euskaldunen proportzioak Euskal Herrian (10 puntu baino gehiago), baina hazkunde hori ez da lurralde guztietan gertatu, eta gertatu denean ez da neurri berean izan. EAEko euskaldunen ehunekoak 15 puntu egin du gora; Nafarroan ere euskaldunek gora egin dute, baina hazkunde txikiagoa izan da (5 puntu). Iparraldean behera egin du euskaldunen ehunekoak (-5 puntu). Hala ere, azpimarratu behar da Iparraldean joera-aldaketa antzeman dela azken neurketetan, eta euskaldunen ehunekoak behera egiten jarraitu badu

² Aurrerago emango ditugu datu batzuk eskola bidezko euskalduntzeaz, bai eta hiztun elebidunek bi hizkuntzetan aritzeko duten gaitasun erlatiboaz ere.

ere, euskaldunen kopurua bere horretan mantendu da, gazteen artean izan den hazkundeari esker.

3.1.1 Euskaldunen ingurunea eta harreman-sareak³

Euskal Herriko euskaldunen % 33 lehenengo gune soziolinguistikokoan bizi dira, hau da, gune erdaldunean⁴. Lehenengo gune soziolinguistikoa osatzen duten udalerrietan euskaldunen ehunekoa % 30 edo txikiagoa da, edo beste modu batera esanda, lehenengo gune soziolinguistikokoan 10 biztanletik 7k edo gehiagok ez dakite euskaraz. Proportzioan euskaldunak gutxi diren arren, euskaldun gehien lehenengo gune soziolinguistikoko honetan bizi dira, alegia, euskaldun gehienak euskaraz aritzeko baldintza soziolinguistikoko deserosoetan bizi dira.

Euskaldunen % 21 bigarren gunean bizi dira. Bigarren gune soziolinguistikoa osatzen duten udalerrietan euskaldunen ehunekoa % 31 eta % 49 bitartekoa da. Hau da, bigarren gune soziolinguistikokoan bizi direnen artean gehienez ere bitik batek daki euskaraz.

Lehenengo gune soziolinguistikoaren ondoren, euskaldun gehien hirugarren gune soziolinguistikokoan bizi dira (euskaldunen % 32). Hirugarren gune soziolinguistikoa osatzen duten udalerrietan euskaldunen ehunekoa % 50 eta % 79 bitartekoa da.

Azkenik, euskaldunen % 14 laugarren gune soziolinguistikokoan bizi dira. Laugarren gune soziolinguistikoa osatzen duten udalerrietan euskaldunen ehunekoa % 80 edo handiagoa da, eta euskararen arnasmunea osatzen dute.

Duela 30 urte egoera bestelakoa zen. Izan ere, 1991n lehenengo gune soziolinguistikokoan euskaldunen % 19 bizi ziren, eta bigarrenen % 21 (gaur egun beste). Duela 30 urte euskaldun gehienak (% 38) hirugarren gune soziolinguistikokoan bizi ziren. Azkenik, laugarrenen gune soziolinguistikokoan, hau da, arnasmunean euskaldunen % 22 bizi ziren (gaur egun baino 8 puntu gehiago).

Oro har eremu bakoitzaren barne-osaera aldatu egin da urteek aurrera egin ahala; eremu erdaldunena euskaldunduz joan den bitartean, eremu euskaldunena

³ Euskaldunek euskaldunekin aritzeko duten aukera irudikatzen da «harreman-sarea» kontzeptuaren bitartez. Ohiko harremanetan erdaldunen presentzia urria bada, euskaraz aritzeko harreman-sare sendoa dugula esango dugu; alderantziz, euskaldun gutxirekin eta erdaldun askorekin baditugu ohiko harremanak, sare ahula izango dugu euskaraz bizitzeko. Inkesta Soziolinguistikokoan harreman-sareen datua ere jasotzen da, erabilera-eremuetan bereizita: etxea, lantokia, saltokiak, lagunartea edota eremu formala.

⁴ Gune soziolinguistikoen banaketa hau Eusko Jaurlaritzak Mapa eta Inkesta Soziolinguistikokoan ezarritakoa da: 1. gune soziolinguistikokoan 330.000 euskaldun inguru bizi dira; 2. gune soziolinguistikokoan 210.000 euskaldun inguru; 3. gune soziolinguistikokoan 320.000 euskaldun inguru eta 4. gune soziolinguistikokoan 140.000 euskaldun inguru.

erdaldunduz joan da. Udalerrien konbergentzia-joera ikusten da: udalerri bakoitze-ko euskararen eza gutza-maila aldatuz joan ahala, erdiko eremu soziolinguistikoetan gero eta udalerri gehiago daude, eta muturreko eremuetan, berriz, gero eta gutxiago.

Laburbilduz, duela 30 urte euskaldunen % 60 euskaldunen dentsitate handi-ko edo oso handiko eremuetan bizi ziren. Euskaldun horiek, beraz, harreman-sare sendoa zuten inguruan euskara erabili ahal izateko. Orduan ez bezala, gaur egun Euskal Herriko euskaldunen erdia baino gehiago euskaldunen dentsitate txikiko edo nahiko txikiko eremuetan bizi dira, hau da, harreman-sare txikia dute inguruan euskara normaltasunez erabili ahal izateko. Joera hori, gainera, areagotu egingo da datoen urteotan.

Euskaldunen harreman-sarean izan diren aldaketak erabilera eremuaren arabe-ra aztertuz gero, duela 30 urte euskaldunen % 69k etxeko kide guztiak euskaldunak zituzten; gaur egun % 63 dira. Bikotekideari dagokionez, duela 30 urte bikotekide euskalduna % 73 zuten, eta gaur egun % 71k. Gurasoak, biak, euskaldunak zituzte-nak % 81 ziren eta % 51 dira gaur egun. Neba-arreba guztiak euskaldunak zituzten euskaldunak % 87 ziren eta % 91 dira gaur egun. Seme-alaba guztiak euskaldunak zituztenak % 74 ziren duela 30 urte eta % 94 dira gaur egun. Hortaz, euskaldunen familietan, kide guztien harreman-sarea ahulagoa da, seme-alabena izan ezik. Azken hau hazi egin da.

Lagunartean ere sendotu egin da euskaldunen harreman-sarea. Duela 30 urte euskaldunen % 48k zituen lagun guztiak edo ia guztiak euskaldunak, eta gaur egun % 56k.

Eremu formalean, euskaldunen harreman-sarea hazi egin da lankideen artean (% 35 vs % 50), osasun-zerbitzuetan (% 20 vs % 49) eta udal zerbitzuetan (% 51 vs % 62).

Euskaldunen harreman-sarearen trinkotasunaren bilakaerak garrantzi handia du, korrelazio handia duelako euskararen erabilerarekin.

3.1.2 Euskal hiztunen profila

Euskaldunen ingurunea eta harreman-sareak aldatu diren bezala, zer beste ezaugarri aldatu den aztertuko dugu jarraian. Horretarako, gaur egungo euskal-dunen ezaugarrien artean nagusi direnak azalduko ditugu, eta ondoren, duela 30 urteko euskaldunenak.

Sexuari dagokionez, euskaldunen ehunekoa oso antzekoa da gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Alde txikia dago adin-tarte guztietan, eta dagoen alde txiki hori ia beti emakumezkoen aldekoa da. Hala zen duela 30 urte, ere. Baina, aldea ez da hain txikia gaur egun 25 eta 50 urte bitarteko euskaldunen artean, non emaku-meen nagusitasuna nabarmenagoa den. Izan ere, 25 eta 34 urte bitartean 2,5 pun-tuko aldea dago gizonezko eta emakumezko euskaldunen artean, eta 35 eta 50 urte

bitarteko adin-taldean ia 5 puntukoa da alde hori. Adin jakin batzuetan dagoen emakumezko euskaldunen nagusitasunak lotura zuzena du, EAEn batik bat, helduen euskalduntzean euskara ikasten ari diren emakumezkoen kopuru handiarekin. Izan ere, hiru ikasletik bi emakumezkoak dira.

Adinari dagokionez, gaur egun, adin-tartea zahartu ahala euskaldunen ehunekoak behera egiten du. Oso bestelakoa zen egoera duela 30 urte, non edadeko jendea baitzen euskaldunena, nahiz eta ordurako nabaritzen hasia zen eskolaren eragina, eta haurren eta gazteen artean euskaldunen proportzioa handitzen ari baitzen. Gaur egun, diogunez, 65 urtetik gorakoen artean dago euskaldunen ehunekorik txikiena, eta adinak behera egin ahala gora egiten du euskaldunen ehunekoak. Hala, gazteen artean dago euskaldunen ehunekorik handiena (25 urtetik beherako gazteen erdia baino gehiago dira euskaldunak). Euskaldun gazteen nagusitasun hori erabatekoa da EAEn 30 urtetik beherako gazteen artean (% 80 ingurukoa). Nafarroan ere 30 urtetik beherako gazteen artean dago euskaldunen ehunekorik handiena (% 20 inguru), baina oraindik gehiago dira erdaldunak adin-talde guztietan. Iparraldean berretsi egin da gazte euskaldunen bilakaeran duela 10 urte atzeman zen joera-aldaketa, eta % 16 inguru dira euskaldunak 30 urtetik beherako gazteen artean, baina euskaldunen ehunekoa handiagoa da oraindik 50 urtetik gorako herritarren artean, eta, Nafarroan bezala, erdaldunak nagusi dira adin-talde guztietan.

Gazteen artean badira bi fenomeno sozio-demografiko oso kontuan izatekoak. Batetik, jaiotze-tasa txikiaren ondorioz, gazteek pisu demografikoa txikia dute gizartean, eta txikia izaten jarraituko dute datozen urteotan. Bestetik, migrazioaren ondorioz, 20 eta 34 urteko gazteen artean kanpotik, bereziki atzerrik, etorritako pertsonen hazkundera handia izaten ari da (adin-talde horretan, lautik bat inguru dira atzerrian jaiotakoak).

Ikusi dugunez, aldaketa esanguratsua gertatu da euskaldunen profilean. Aldaketa horrek eragin handia du hizkuntza-gaitasun erlatiboan ere. 3.3. atalean aztertu dugu gai hori.

3.2 Nola egin gara euskaldun?

Gurasoengandik euskara jasotzea, hori izan da mende luzeetan euskaldun egiteko modurik arruntena. *Familia transmisioa* deitu ohi zaio gurasoen bidezko euskara jasotze horri. Azken hiruzpalau hamarkadatan, ordea, joera hori aldatu egin da, eta eskola bidezko euskalduntzeak pisu handiagoa hartu du. Etxean ez ezik, eskolan edo euskaltegietan ere jasotzen da euskara gaur egun. Biak, noski, elkarren osagarri dira. Hortaz, euskalduntzeko modu gaurkotuak ekarri duenari arreta eskaintzea merezi du. Transmisioa aztertzetik hasiko gara.

3.2.1 Familiako transmisioa: lehen hizkuntza

Lehen hizkuntza diogunean zeri buruz ari garen argitzea komeni da. Lehen hizkuntza da umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntza edo hizkuntzak. Lehen hizkuntza bizitza osorako ezaugarria du pertsona batek, eta, hori horrela, gizarte osoa hartuz gero, lehen hizkuntzaren ezaugarria oso astiro aldatzen da. Belaunez belauneko transmisioa nolakoa den jakin dezakegu (galerak eta irabaziak) lehen hizkuntza euskararen ezagutzarekin gurutzatuta.

Orokorrean, 10 euskal herritarretik ia 8k erdara dute lehen hizkuntza. Etxean euskara bakarrik jaso duten herritarrak % 15 dira, eta euskara beste hizkuntza batekin batera jaso dutenak % 6. EAEko eta Iparraldeko emaitzak Euskal Herriko emaitzen oso antzekoak dira: EAEen lehen hizkuntza erdara duten herritarrak % 75 dira, % 18 euskara dutenak eta % 6 euskara eta erdara dutenak; eta Iparraldean, % 80, % 13 eta % 6 hurrenez hurren. Nafarroan, aldiz, handiagoa da lehen hizkuntza erdara duten herritarren ehunekoa (% 91) eta txikiagoak etxean euskara bakarrik jaso dutenena (% 6) zein euskara beste hizkuntza batekin batera jaso dutenena (% 3).

Duela 30 urte egoera oso antzekoa zen Euskal Herrian: 2 puntu txikiagoa zen lehen hizkuntza erdara zutenen ehunekoa, 3 puntu txikiagoa bi hizkuntzak zituztenena eta 4 puntu handiagoa euskara bakarrik zutenena.

Euskaldunen lehen hizkuntzan, ordea, aldaketa handia izan da, bereziki euskaldun gazteenean. Duela 30 urte, Euskal Herriko euskaldunen % 79k euskara jaso zuen etxean eta % 7k euskara eta erdara. Etxean erdara jaso zuten euskaldunak % 14 izan ziren 1991n. Adinari dagokionez, 65 urtetik gorako euskaldunen artean zegoen etxean euskara jaso zutenen ehunekorik handiena (% 94), eta ehunekoak behera egiten zuen adinarekin batera. Hala ere, gazteen artean ere nagusi ziren etxean euskara jaso zuten euskaldunak (% 64). Egoera bera zen EAEen, Nafarroan eta Iparraldean.

Gaur egun, etxean euskara jaso duten euskaldunak erdia inguru dira (% 48), euskara eta erdara jaso dituztenak bikoiztu egin dira (% 16 dira) eta euskara etxetik kanpo ikasi duten euskaldunak bikoiztu baino gehiago egin dira (herena baino gehiago dira, % 36). Adinak behera egin ahala, areagotu egiten dira joera horiek: pisua galdu dute etxean euskara bakarrik jaso dutenek (herena baino gutxiago dira gazteen artean, % 31) eta pisua irabazi dute etxean euskara erdararekin batera jaso dutenek (% 19) eta euskara etxetik kanpo ikasi dutenek (% 50 dira gazteen artean). Familiatik kanpo euskara ikasi duten horiek euskararen irabaziak dira⁵, eta eskolan edota euskaltegian ikasi dute euskara.

⁵ Hala adierazten da Inkesta Soziolinguistikoan.

Familia bidezko transmisioa nola gauzatzen ari den aztertzeke, gurasoen hizkuntza-gaitasunaz gain lehen hizkuntza ere izango da kontuan. Gainera, seme-alaba gazteak (3-15 urte) dituzten familien transmisioa da aztertuko dena.

Euskal Herrian, guraso biak euskaldunak direnean, 10 seme-alabatik 9k euskara jaso dute etxean. EAEn, Nafarroan eta Iparraldean maila bertsuan gertatzen da transmisioa.

Gurasoen lehen hizkuntzak baldintzatu egiten du euskararen transmisioa, biak euskaldunak izanda ere. Guraso euskaldun biek lehen hizkuntza euskara dutenean (D ereduko familiak), euskararen transmisioa erabatekoa da (% 96k euskara soilik eta gainerako % 4ak erdararekin batera). Guraso biak euskaldunak direnean, baina euskara bietako baten lehen hizkuntza denean (B+ ereduko familiak), seme-alaben % 86k jaso dute euskara soilik etxean eta % 12k euskara eta erdara. Guraso biak euskaldunak direnean eta biek lehen hizkuntza erdara dutenean (B ereduko familiak), seme-alaben % 37k jaso dute euskara soilik eta % 36k euskara eta erdara. B ereduko familietan, seme-alaben % 27k ez dute etxean euskara jaso.

Familia mistoetan ere, hau da, euskalduna guraso bakarra denean, seme-alaben % 67k jasotzen dute euskara Euskal Herrian, beti ere erdararekin batera. Familia mistoen transmisioan ere guraso euskaldunaren lehen hizkuntza erabakigarria da. Izan ere, guraso euskaldunaren lehen hizkuntza euskara denean, 10 seme-alabetatik 8k jaso dute euskara, erdararekin batera, eta guraso euskaldunaren lehen hizkuntza erdara denean erdiak.

Euskararen transmisioa handiagoa da guraso euskalduna ama denean aita denean baino, nahiz eta aldea txikituz doan.

Familia-mota bakoitzak duen pisuari dagokionez, EAEn 15 urtez azpiko seme-alaben ia erdia (% 47) X ereduko familietan bizi da, hau da, gurasoek euskaraz ez dakiten familietan. Laurdena (% 26) familia mistoetan bizi da eta beste laurdena (% 27) guraso biak euskaldunak diren familietan. Baina euskararen eza-gutzaz gain, lehen hizkuntzak transmisioa nabarmen baldintzatzen duela ikusi da. Hortaz, guraso biak euskaldunak dituzten seme-alaben laurden horretatik, % 4 B ereduko familietan bizi dira (gurasoen lehen hizkuntza erdara da), % 7 B+ ereduko familietan (guraso baten lehen hizkuntza da euskara) eta % 15 D ereduko familietan (guraso bien lehen hizkuntza da euskara).

Transmisioari lotuta, badira kontuan izan beharreko beste bi aldagai: ume jaio berrien gurasoen adina eta jatorria. Gaur egun, EAEn jaiotako lau seme-alabetatik hiruren (% 77) amen adina 30 eta 41 urte bitartekoa da, eta horietatik % 21 atzeritarrak dira. Adin horretako emakumeen % 48 dira euskaldunak, eta horietatik erdiak baino gehiagok (% 59) etxetik kanpo ikasi dute euskara. Adin horretako gizonezkoen % 45 dira euskaldunak, eta horietatik % 56k etxetik kanpo ikasi dute euskara.

3.2.2 Hezkuntza

Oinarritzko eta bigarren mailako ikasketetan, D irakastereduaren urteroko hazkundera nabarmena da; aldiz, txikitzen ari da bai A eredua eta bai B eredua. Irakastereduen banaketan alde handiak daude ikastetxeen sare publikoaren eta itunpekoaren artean, baina bi sareetan ari da hazten D ereduko ikasleen proportzioa.

2021-2022 ikasturtean EAEko ikasleen % 70k D ereduan ikasi du, Nafarroan % 24k, eta Iparraldean % 8k murgiltze ereduan. Hogei urte atzera eginez gero (2001-2002 ikasturtean) EAEn ikasleen % 45ek ikasten zuen D ereduan. Nafarroan ez da aldaketarik izan (% 23)⁶.

Eredu euskaldunetan ikasten duten ikasleen proportzioa handiagoa da beheko mailetan goikoetan baino. Hau da, adinez gora egin ahala erredu euskaldunetako ikasleen proportzioak behera egiten du. Proportzio txikiena Lanbide Heziketan ikasten ari diren ikasleen artean dugu, izan ere, EAEn % 23 besterik ez dira D ereduan ari direnak, eta Nafarroan % 7.

D ereduen zabalpena garrantzitsua da, baina bermatzen al du D ereduak euskara erabiltzeko gaitasuna? Datuek diote D ereduan ari diren ikasleetatik % 66k baizik ez duela gainditzen Europako Hizkuntzen Profilaren B2 maila gaur egun⁷. B ereduan ari diren ikasleetatik % 33k gainditzen du, eta A ereduan bakar batek ere ez.

Gainera, Arrue Ikerketak ikasleen euskarazko hizkuntza-kompetentzian beheranzko joera nabarmendu du: «Nabarmenezkoa da Ebaluazio Diagnostikoa probetan neurtzen diren hizkuntza-kompetentzietan euskarazkoek duten beheranzko joera, bai LMH4n eta bai DBH2n. 2011tik 2017ra urterik urte hazten ari da euskaraz “hasiera maila” gainditzen ez duten ikasleen proportzioa, eta 2017an % 37,8koa izatera iritsi da LMH4n, eta % 46,4koa DBH2n. Aldiz, gutxitzen ari da euskaraz “maila aurreratua” lortzen duten ikasleen proportzioa. Gaztelaniaz zein ingelesez, ordea, ikasleek lortzen dituzten kompetentzietan ez da halako beheranzko bilakaerarik gertatzen ari».

3.2.3 Helduen euskalduntzea

Duela 30 urte, euskaltegietan urteetan ikasten aritutakoak euskaldunen % 36 ziren. Gaur egun proportzio hori baxuagoa da, noski, baina hala ere euskaltegietan euskara ikasi dutenen pisua esanguratsua da: euskaldun guztien % 22 dira.

2020-21 ikasturteko datuei erreparatuta, Euskal Herri osoan 37.808 pertsona ari ziren euskara ikasten helduen euskalduntze alfabetatzean. Horietatik 3.900 inguru Nafarroan, eta 1.400 inguru Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroa Beherean.

⁶ Iparraldean ez dugu duela hogeitak urteko murgiltze-ereduari buruzko daturik.

⁷ HEZKUNTZA SAILA. ISEI-IVEI (Irakas Sistema Ebaluatzeko Erakundera): *Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoa*, 2021. <https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/hezkuntza-sistemaren-diagnostiko>.

Ikasleen profilari dagokionez, deigarria da, arestian aipatu bezala, hiru ikasle-tik bi emakumezkoak direla. Adinari dagokionez, gehiengoak 40 urte inguru ditu, eta ikasleen gehiengoa B2 eta C1 maila egiten ari da.

3.3 Euskararen eta gaztelaniaren/frantsesaren arteko gaitasun erlatiboa

Lehen hizkuntzaren eta erabilerarako **erraztasunaren** artean korrelazio handia dago. Hau da, hiztun elebidun batek hizkuntza batean edo bestean aritzeko duen erraztasuna hiztun horrek duen lehen hizkuntzak baldintzatzen du neurri handi batean. Zein duen lehen hizkuntza, huraxe erabiliko du erosoan.

Duela 30 urte, Euskal Herriko euskaldunen % 35ek erraztasun handiagoa zuten euskaraz erdaraz baino (euskal elebidunak ziren), % 28k erraztasun antzekoa zuten euskaraz eta erdaraz (elebidun orekatuak ziren) eta % 38k erraztasun handiagoa zuten erdaraz (erdal elebidunak ziren).

EAEko emaitzak bat zetozen Euskal Herrikoekin. Iparraldean 3 eta 4 puntu handiagoak ziren, hurrenez hurren, euskal elebidunen eta elebidun orekatuen emaitzak. Nafarroan, euskal elebidunak % 41 ziren eta elebidun orekatuak % 27.

Gaur egungo egoera oso bestelakoa da Euskal Herrian. Euskaldunen artean, euskal elebidunen pisua gero eta txikiagoa da (% 26), bi puntu egin du gora elebidun orekatuen ehunekoak (% 29) eta nabarmen hazi da erdal elebidunen ehunekoak (% 45).

Adinari begiratuta, adinak behera egin ahala hazi egiten da erdal elebidunen ehunekoak, eta gazteen artean gehiengoa dira. Joera horiek EAEn, Nafarroan eta Iparraldean izan dira.

Euskal Herriko herritar guztiak aintzat hartzen baditugu —euskaldun zein erdaldun— % 7,9 dira euskal elebidunak, alegia, euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen direnak. Oso kontuan hartzeko datua iruditzen zaigu euskara zenbat erabiltzen den kuantifikatu eta ebaluatzeko garaian. Galdera horri erantzungo diogu hurrengo atalean.

3.4 Euskara zenbat erabiltzen da?

Euskara sustatzeko baliabideak euskaldun gaituak sortzera bideratu izan dira batez ere: hezkuntzara eta helduak euskalduntzera. Baina hiztun kopurua hazteak ez du ekarri esperotako jautzia erabileran. Errealitate horretaz ohartuta, urteak dira euskararen erabileran eragiten duten faktoreak ezagutzeko ikerketak egiteari ekin zaiola.

Hizkuntza-erabilera indartzea oso konplexua da, eta faktore askoren menpekoa. Besteak beste, kontuan hartu behar da hizkuntza-erabilera ez dela egonkorra, ezta indibiduala ere. Une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak bal-

dintzatzen dute hiztunen hizkuntza-hautua. Horiek horrela, badira bi faktore erabat baldintzatzen dutenak euskararen erabilera: gaitasun erlatiboa edo euskaraz jarduteko erraztasuna eta harreman-sarea. Eta 3.1.1. eta 3.3. ataletan azaldutakoaren arabera, gero eta euskaldun gehiago dago (euskaldun gazteak bereziki) erraztasun handiagoa duena erdaraz hitz egiteko eta eremu erdaldunean edo nahiko erdaldunean bizi dena.

Horrez gain, globalizazioak, mundu mailako fenomeno gisa, sekulako eragina du hizkuntzen erabileran. Hizkuntzen arteko harremana, hizkuntzekiko jarrerak eta politikak, eta hizkuntza-komunitateen biziraupenerako baldintzak ez dira iragan mendean ziren parekoak (Altuna, Iñarra eta Basurto 2022). Horren adibide garbiena ingurune digitalaren, hizkuntza-teknologiaren eta sare sozialen mundutik dator. Gaur egun, hainbat estatu-hizkuntza ere arduratuta agertu dira, ingelesaren nagusitasuna dela eta, beraien hizkuntzen presentzia eta erabilera apaltzen ari baita etengabe (Crystal 2003; Lo Bianco 2014; Calvet 2017). Beraz, are eta arreta handiagoarekin begiratu behar zaio fenomeno horri euskara bezalako hizkuntza gutxituaren kasuan.

Testuinguru zail honetan, euskararen ahozko erabilera zertan den ikusiko dugu 2021eko Inkesta Soziolinguistikotik, 2017ko Arrue Ikerketatik eta 2019ko Izaskun Arrue Ikerketatik, eta 2021eko Euskal Herriko Kale Neurketatik jasotako datuei erreparatuta.

Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera, erabilera-esparru ezberdinak kontuan hartuta (etxean, lagunekin, lankideekin, dendariekin, administrazioako langileekin...) Euskal Herriko 16 urte edo goragoko herritarren % 17,4k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean. Horrez gain, beste % 10,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Datu orokor hori asko aldatzen da erkidego batetik bestera. Hala, euskararen erabilera trinkoa⁸ egiten dutenak % 22 dira EAEn, % 6,7 Nafarroan eta % 7,1 Iparraldean.

1991tik 3,7 puntu egin du gora euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajeak Euskal Herrian. Euskararen erabileraren bilakaeran ere aldeak daude erkidegoen artean. Izan ere, EAEn 6,5 puntu egin du gora euskararen erabilera trinkoak. Erabileraren igoera 1. gune soziolinguistikoa (4,4 puntu), 2. gune soziolinguistikoa (6,4 puntu) eta 3. gune soziolinguistikoa (7,3 puntu) izan da; 4. gune soziolinguistikoa, aldiz, euskararen erabilera trinkoak behera egin du (-9,7 puntu).

Nafarroan euskararen erabilera trinkoa oso gutxi hazi da (0,8 puntu). Erabileraren hazkundea eremu mistoan (1,7 puntu) eta eremu euskaldunean (4,2 puntu)

⁸ Erabilera trinkoa dela esaten da, eguneroko jardunean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen denean.

gertatu da. Eremu ez euskaldunean ez dago ia inor eguneroko jardunean euskara erdara beste edo gehiago egiten duenik.

Iparraldean euskararen erabilera trinkoak behera egin du -6,2 puntu 1996tik. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen jaitsiera Iparraldeko lurralde guztietan gertatu da.

Erabilera-eremuei dagokienez, **etxean** euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 16,2 dira Euskal Herrian. Etxeko erabilera trinkoa bere horretan egon da azken ia hiru hamarkadatan, eta zertxobait gora egin du azken bost urteotan.

Gertakari hori ulertzeko, kontuan hartu behar da etxeko erabileraz dihardugunean etxeko kide guztiak elkarrekin daudenean egiten den erabilerari buruz ari garela, eta egoera horretan harreman-sarearen eragina erabatekoa dela, beste edozein eremutan baino askoz handiagoa. Hau da, nahikoa da etxeko kide batek euskaraz ez jakitea euskararen erabilera nabarmen jaisteko.

Etxeko kideen arteko erabilera zein den aztertuz gero, erabilera bikotekidearekin (% 13,7) etxeko betez bestekoaren azpitik dago, eta azken hiru hamarkadatan behera egin du (-0,4 puntu). Aldi berean, 3.2.I. atalean azaldu dugun bezala, EAEn 15 urtetik beherako gazteen % 73, nahiz eta gehienak euskaldunak izan, gurasoetako bat (familia mistoak) edo guraso biak (X ereduko familiak) erdaldunak dituzte.

Etxeko gainerako kideen arteko erabilerak, aldiz, beste bilakaera bat izan du. Izan ere, erabilera seme-abalekin % 19,8koa da, eta 1991tik 4 puntu egin du gora; erabilera neba-arrebekin % 17,3koa da eta 1,8 puntu egin du gora 1991tik.

EAEn eta Nafarroan, ehunekoak beste batzuk badira ere, Euskal Herriko egoera eta bilakaera bera eman da. Iparraldean, aldiz, behera egin du etxeko erabilerak ez ezik, erabilerak seme-alabekin eta neba-arrebekin ere.

Etiket kanpo, **lagunarteko erabilera** trinkoa % 18,3koa da Euskal Herrian (EAEn % 22,2, Nafarroan %8,2 eta Iparraldean % 12,1). 1991tik 3,6 puntu egin du gora. Lagunartean gaitasun erlatiboak edo erraztasunak du eragin gehien euskara erabiltzeko orduan. Beraz, gogoan izan behar da 3.3. atalean azaldutakoa, hau da, euskaldunen artean, eta bereziki euskaldun gazteen artean, gero eta gehiago direla erdaraz euskaraz baino erraztasun handiagoa dutenak.

Igoera **eremu formalean** gertatu da batez ere, lankideekin eta administraziooko langileekin aritzean. Euskararen erabilera trinkoa eremu formalean % 18,1koa da Euskal Herrian (EAEn % 23,4, Nafarroan % 6,5 eta Iparraldean % 4,2). Eremu formalean ere bilakaera desberdina izan da EAEn eta Nafarroan (bieten gora egin du euskararen erabilerak eremu formalean) eta Iparraldean (behera egin du euskararen erabilerak eremu formalean).

Gaur egun, gazteen artean dago euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekorik handiena (25 urtetik beherakoen artean lautik batek baino gehiagok erabiltzen du euskara) eta 50 urtetik gorakoen artean ehunekorik txikiena (% 15). Adin arteko bilakaerari begiratuz gero, beraz, adinak behera egin ahala, gora egiten du euskararen erabilera trinkoak; EAEn eta Nafarroan ere halaxe gertatzen da. Iparraldean, aldiz, joera kontrakoa da: 65 urtetik gorakoen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena, eta adinak behera egin ahala behera egiten du erabilerak. Duela hiru hamarkada, Iparraldeko joera hori Euskal Herri osoan izan zen.

Hego Euskal Herriko ikasleen eskolako hizkuntza-erabileraren datuak ere ezagutu ditzakegu EAEko Arrue Ikerketari eta Nafarroa Garaiko Izaskun Arrue Ikerketari esker. EAEn argitaratu diren azken datuek (2017) diote, hiru hezkuntza-ereduetan **eskolako euskararen erabilera** orokorra (ikaskideekin gelan, ikaskideekin jolastokian, irakasleekin gelan eta irakasleekin gelaz kanpo) % 58,5 eta % 40,7 dela LMH 4an eta DBH 2an hurrenez hurren. Bi urte lehenago neurtutako erabilerarekin alderatuta, bi ikasmailetan egin du zertxobait behera erabilerak.

Bestalde, Nafarroan A eta D ereduko 2019ko datuak ditugu⁹: LMH 4ko ikasleen eskolako hizkuntza-erabilera % 41,2koa da eta DBH 2koa % 38,2koa.

Erabilerari buruzko atala amaitzeko, euskararen **kale-erabilera** (erabilera behatua) Euskal Herriko Kale Neurketaren bidez ezagut dezakegu. Euskal Herriko kaleetan entzun diren elkarrizketetan euskaraz ari da zortzi lagunetatik bat (% 12,6), elkarrizketa gehienak Hego Euskal Herrian gaztelaniazkoak dira eta Ipar Euskal Herrian frantsesezkoak. Lurraldeak hiru multzotan sailka daitezke euskararen erabilera-mailari dagokionez: Gipuzkoan hitz egiten da gehien (% 31), Bizkaian % 9 erabiltzen da, eta % 5-6 inguruko erabilera-maila dago Araban, Nafarroa Garaian eta Iparraldean.

1989az geroztik 1,8 puntu egin du gora euskararen erabilerak. 2006an neurtu zela kalean euskararen erabilera-mailarik altuena (% 13,7), ondoren beherakada txiki bat neurtu zen (2011, 2016), eta azken bost urteetan bere horretan dago. Hortaz, azken 30 urteetan % 10-14 bueltan dago euskararen kale-erabilera.

1989tik 2021era, joera desberdinak izan dituzte administrazio eremuek: gora egin du euskararen kale-erabilerak EAEko lurraldeetan; Iparraldean, joera beherakorra du 1997tik; eta Nafarroa Garaian, berriz, gorabeheratsua da bilakaera, bai-
na gorabehera txikiak dira, beti ere (1,8 puntuko aldakortasuna).

Eremu soziolinguistikoei dagokienez, nabarmentzekoa da eremu erdaldunean, alegia, duela hamarkada batzuk euskararik entzuten ez zen hainbat lekutan, euska-

⁹ Izaskun Arrue Ikerketan G ereduko ikasleak albo batera utzi dira, ez dutelako harremanik euskararekin eskola-giroan, ikasleriaren erdia baino zertxobait gehiago badira ere. Ikerketaren txostena ez da argitaratu, baina datu batzuk Euskararen Adierazle Sisteman (EAS) eskura daitezke.

raren erabilera hazi egin dela. Hala ere, hirigune handietan eta beste zenbait eremu geografikotan erabilera oso baxua da.

Aitzitik, eremu euskaldunengan (arnasguneak) erabilerak behera egin du. Herri ertain eta txikiak dira eremu honetakoak. Biziberritze-prozesurako interes estrategikoa dute euskaldun dentsitate handiko eremuek, bertan euskara modu naturalean transmititu, birsortu eta elikatzen baita.

Biztanleen adinaren arabera datuei erreparatuta, adin-talde guztietan igo da euskararen erabilera 1989tik, adinekoetan izan ezik. Duela hogeita hamar urte, gazteek zerabilten euskara gutxien katean; gaur egun, ordea, adinekoek. Izan ere, 1989an adinekoen taldea osatzen zutenak desagertu ahala —euskaldunak zirenak proportzio esanguratsuan—, adinekoen multzora igaro dira orduan helduen multzo erdaldunagoa —guztietan erdaldunena— osatzen zutenak.

Labur-labur bada ere, beste hiru ondorio hauek ere nabarmentzeko modukoak dira:

- Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik.
- Haurrak eta nagusiak batera dauden elkarrizketetan euskararen erabilera altuagoa da haurrak eta nagusiak bereizita daudenetan baino. Hau da, nahiko joera orokortua da haurren eta helduen arteko solasaldietan euskaraz egitea. Aitzitik, aipatutako jokaerak ez du eragina berdinaren arteko harremanetan, harreman-talde horizontaletan, adin berekoen arteko elkarrizketetan erabilerak nabarmen egiten baitu behera.
- Euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren beste hizkuntzen kale-erabilera % 3 ingurukoa da azken hamabost urteotan.

3.5 Zein da euskararekiko jarrera?

Inkesta Soziolinguistikoaaren arabera, euskal herritarren % 56,5 euskararen erabilera sustatzearen alde daude eta % 13,7 kontra. Gainerako % 29,8 ez daude ez alde, ez kontra. EAEn ere nagusi dira euskararen alde agertzen direnak, % 67; Nafarroan, aldiz, nagusi dira euskara sustatzearen aurka daudenak, % 37; eta Iparraldean bere burua ez alde, ez kontra agertzen dutenak, % 49,2.

Jarreraren bilakaerari dagokionez, aldako jarrerak 9 puntu egin du gora Euskal Herrian 1991tik, 12 puntu EAEn eta 8,9 puntu Nafarroan. Iparraldean 6 puntu egin du behera aldeko jarrerak.

Euskaldunen artean gehiengoa da euskara sustatzearen aldeko jarrera duena eta hala zen duela 30 urte ere. 1991n Euskal Herriko euskaldunen % 83,8 zegoen euskararen erabilera sustatzearen alde, eta gaur egun % 87,4. EAEn hazi egin da euskararen erabilera sustatzearen alde dauden euskaldunen ehunekoa (% 88,2 vs

% 90,1). Iparraldean aldaketa txikia izan du ehunekoak (% 71,3 vs % 70,1). Nafarroan, aldiz, behera egin du euskararen erabilera sustatzearen alde dauden euskaldunen ehunekoak (% 83 vs % 75,4).

Euskaldun hartzaileen artean ere gehiago dira euskararen alde daudenak aurka edo ez alde, ez aurka daudenak baino: euskaldun hartzaileen % 62 daude euskararen erabilera sustatzearen alde. Erdaldunen artean nagusi dira ez alde ez kontra daudenak, % 40,1. Euskaldun hartzaileen eta erdaldunen artean euskararen alde daudenak ere gehiago dira gaur egun 1991n baino: euskararen erabilera sustatzearen aldeko euskaldun hartzaileak % 44 ziren eta erdaldunen % 24,4 (2021ean % 37,6).

Lurraldeen artean, baina, aldea dago erdaldunen jarrerari dagokionez: Iparraldeko erdaldunen artean nagusi dira (% 58) ez alde, ez aurka daudenak, eta Nafarroako erdaldunen artean aurka daudenak (% 48). Duela 30 urte joera berbera zen, baina emaitzei dagokionez, Nafarroako erdaldunen artean euskara sustatzearen kontrako jarrera gaur egun baino 10 puntu handiagoa zen (% 59).

Euskararen jarrerari buruzko emaitzak adinaren arabera aztertuz gero, oro har errepikatu egiten da lurralde bakoitzean nagusitzen den joera. Hau da, EAEn nagusi dira adin-talde guztietan euskararen aldeko jarrera dutenak, Nafarroan kontra daudenak eta Iparraldean el alde ez kontra daudenak. 1991n ere hala gertatzen zen.

Euskaldunen artean, nagusi dira euskara sustatzearen aldeko jarrera dutenak adin-talde guztietan eta lurralde guztietan. Hala ere, 2006tik hona euskara sustatzearen alde dauden gazte euskaldunen ehunekoa gainerako adin-taldeetako ehunekoaren azpitik dago, bereziki EAEn.

3.5.1 Gazteek zer diote?

Euskarari buruzko jarrerak eta portaerak aztertzean, interes handia sortzen dute gazteek. Bada ustea, gaur egungo gazteei, urteetan ezagutu eta landu diren hizkuntza-bizipenak, -ideologiak eta -praktikak urrun geratzen zaizkiena. Baina, egiazki, nola bizi dute gazteek hizkuntzekiko harremana?

«Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia» ikerketa burutu zen 2019-2020an, eta urtebete beranduago argitaratu ziren emaitzak (Altuna eta Hernández 2021). Txosten horretan jasotako ondorio nagusiei egingo diegu tartetxoa hemen. Horretarako, *Bat Soziolinguistika Aldizkarian* argitaratutako artikuluen testu-zatiak ekarri ditugu hona.

Gazteen artean, noski, denetariko joerak daude. Hauteman diren testigantzak hiru mota nagusitan sailka daitezke:

- a) Lehenengo motan, hiztunek **euskararekin lotura sendoa** dute, kontzientea. Euskaraz nahiko luketena baino gutxiago egiten dute, baina egune-

rokoan muga eta oztopo asko aurkitzen dituzte. Kezkaz eta arduraz bizi dute euskararen egoera.

- b) Bigarren testigantza multzoan, **euskararekin duten lotura azalekoagoa** da. Harremana ez da «ni eta euskara», baizik eta «gu eta euskara». Hau da identitate kolektibo baten ikur gisa ulertzen da; paisaia dago, kulturen, eta abar. Kolektibo horren parte izan nahi izateak aktibatzen du hiztuna, une jakin eta berezietan.
- c) Hirugarren multzoan kokatutako hiztunek **euskara harremanekin identifikatzen dute** erabat; batez, euskararekin lotutako arau sozialak errespetatuko dituzte normalean: zer hizkuntza erabili norekin, zer hizkuntza erabili egoera batean edo bestean... Ezarritako ohiturak beren horretan uztea da erabakitzen dutena. Izan ere, zenbaitetan hizkuntza-egoerak kudeatzea deserosoa eta nekagarria izan daiteke.

Esan behar da EAEn egindako ikerketa honetan ez dela jarrera beligeranterik topatu, baina ezin dugu horrelakorik ez dagoenik pentsatu.

Oro har, eta joera nagusiari erreparatuta, erantzunik gabe aurkitu ditugu gazteak hizkuntzei buruzko ideologiaz galdetuta. Ez dute hizkuntza-plangintzari, hizkuntza-politikari edo antzeko gaii buruz pentsatu, ez dute zer esanik. Garai bateko politizazioak ez du halako indarrik gaur egun. Euskalgintza arrotz zaie gazteei. Hausnarketa eta jokabide landurik ezean, aurreiritziez edo intuizioez baliatzen dira gazteak hizkuntza erabiltzeak sorrarazten dituen egoerak kudeatzeko.

Harremanetan nolako jokabidea hartu, zein hizkuntza erabili, hori dute ardura nagusia. Beren eguneroko ingurune naturalean, hala nola ikasgeletan edo kuadrillagiroan, aurkitzen dira erabaki behar horretan. Eta, hain ohikoa izanik, trebatuta dau-de egoera horiei neurria hartzen, eta horien arabera beren portaera moldatzen. Berehala sumatzen dute, adibidez, solaskidearen deserosotasuna euskara tarteko dela, eta aitaren batean pasatzen dira euskaratik gaztelaniara. Konektatu-deskonektatu, euskara-gaztelania, batetik bestera igarotzea oso naturala zaie. Hizkuntza-gatazka saihestu egiten dute. Ez dute tentsiorik nahi, are gutxiago lagunekin edo ezagunekin aritzen direlarik. Esan daiteke, oro har, eskola izan dela hizkuntzari buruzko ideiak, irudiak eta baloreak jasotzeko gune nagusia.

Norbanakoen dimentsioan, ideologiaz esandakoak balio du hizkuntza-praktiketarako ere: oro har ez dago jokabide kontziente edo adosturik, eta nork bere inguruko errealitatea ahal duen moduan kudeatzen du.

Familia eta hezkuntza formala dira, hurrenkera horretan, hizkuntza-praktiken zutarrak sendoenak. Dena den, ikusi dugu esparru horiek eragin mugatua dutela gazteen unibertsoan. Argi dago familiak eta eskolak oinarri sendoa ezartzen dutela euskararen ikasketarako eta erabilerarako, behar-beharrezkoa den oinarria,

baina batzuetan eten handia dago bestelako eremuetara igarotzean. Esate baterako, badira familia euskaldunetako gazteak etxetik kanpo gaztelaniaz baino mintzo ez direnak, eta, alderantziz, familia ez-euskaldunetan hazi, eta euskaraz aritzeko hautua egin dutenak. Badira etorkin gazteak ere, euskara batez ere lagunartean ikasi dutenak eta euskaraz dihardutenak beren harreman informaletan.

Hortaz, familia eta eskola ez dira aski euskararen erabilerari eusteko. Gazteen kulturari eta unibertsoari euskarak euskarri oso ahulak ditu. Benetan inporta zaie-na, beren ohiko espazioak, produktuak eta praktikak, hala nola sare sozialak, ikus-entzunezkoak, musika, moda, kirola, kuadrilla, lokalak, diskotekak edo jaiak beza-lakoak, euskara urrikoak dira. Kultura-elementu horien bidez eraikitzen dituzte nerabeek eta gaztetxoek beren identitatea, bizimodua eta mundua. Euskarak nahi-taez egon behar du unibertso horretan, euskararen erabilera handituko bada. Gaz-teen kulturak eta euskarak bat egin ezean, oso zaila da euskararen erabilera indartzea.

4. Arlokako begirada

Banaketa demografikoaz edo geografikoaz harago, euskararen egoera soziolin-guistikoa arlokako lanketa ere eskatzen du. Garbi dago gizarte-jardueraren arloetan oso errealitate desberdinak bizi dituela euskarak. Hori horrela izanda, oso luze joko liguke arloz arloko gainbegiraturik egiteak. Bizpahiru arloren laburpen apal bat egitera mugatu gara hemen.

4.1 Arlo sozioekonomikoa

Euskararen egoera arlo sozioekonomikoan azaltzeko, *Eusko Jaurlaritzaren Euska-ra Sustatzeko Ekintza Plana (2012-2022) 10 urteko ibilbideari begirada ESEPen araberrako diagnostikoa* izeneko txostena izan da oinarri. Kontuan hartu behar da txostenak EAEko egoera aztertzen duela, beraz jarraian emango diren ia datu guztiak EAEri buruzkoak izango direla.

EAEko Lan Merkatuaren Erroldaren arabera, euskaldunen pisu erlatiboa handia da hezkuntzan eta herri-administrazioetan. Hala ere, kontuan hartuta enpleguak pisu handia duela industrian eta merkataritza-ostalaritzan, handia da bi sektore horietan ari diren euskaldunen kopurua, Azpimarratzekoa da industrian langileen % 42 dela euskalduna, merkataritzan eta ostalaritzan baino nabarmen gehiago.

Erabilerari dagokionez, eguneroko bizimodutik lantokira jauzi handirik dagoen aztertu da Lan Merkatuaren Erroldan. Jarduera-adar gehienetan, erabilerak behera egiten du lantokian, nahiz eta alde handirik ez egon: industrian langileen % 16,6 da beti edo gehienetan euskaraz egiten duena eguneroko bizimoduan. Lanean, aldiz, % 14 da; Merkataritzan, % 10,6tik % 9,5era jaisten da beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen ehunekoa, eguneroko bizimodutik lantokira.

Ostalaritzan, aldiz, lanean beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenen ehunekoa altuagoa da (% 12,4). Ostalaritzarekin lotuta, kontuan hartu beharra dago atzerrian jaiotakoen presentzia gero eta handiagoa dela sektoreko langileen artean.

Eguneroko bizimodutik lantokirako igoerarik handiena, dena den, hezkuntzan gertatzen da: hezkuntzako langileen % 37,1ek egiten du beti edo gehienetan euskaraz egunerokoan, eta % 51,3k lantokian.

Txostenak hizkuntzen industriei buruzko informazio ere bildu du. Euskara landu, irakatsi, erabili edo zabaltzera bideratutako produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa eta entitateek osatzen dute hizkuntzaren industria: euskararen irakaskuntza, itzulpengintza eta interpretazioa, hizkuntza-aholkularitza, euskararen corpusaren lanketa eta zabalpena eta hizkuntza teknologien arloko jarduerasektoreak.

2.500 lanpostu inguru dituzte enpresa eta entitate horiek guztira, *Euskararen balio eta eragin ekonomikoa* ikerlanaren arabera (2015). Hortaz, EAEko ekonomiak sortzen duen enpleguaren % 6,3 euskarari lotua dago. Sektore ekonomiko gisa, erkidegoko Barne Produktu Gordinaren % 4,2 dagokio euskarari.

Enpresetan Euskara Planak abian jartzeko dirulaguntzei dagokionez, LanHitz programa eta haren aurrekoak kontuan hartuta, 1997 urteaz geroztik 3.013 eskaera jaso ditu Eusko Jaurlaritzak, eta 2.888 milioi euroz lagundu ditu (% 97).

LanHitz deialdiko eskaeren bilakaerari dagokionez, 2009ra arte industriako entitateak izan ziren nagusi. Orduz geroztik, gehiago izan dira zerbitzuetako enpresak industriakoak baino. Edonola ere, azken urteetan behera egin dute eskaerek, orokorrean. Deialdietara aurkeztutako entitateen tamainari dagokionez (langilekopurua), hasieran handiak ziren gehien-gehienak, 51-250 langile artekoak eta 250etik gorakoak. Azken hamarkadan, ordea, egonkortu egin da enpresa txikiertainen kopurua. Gutxiengo dira, hala ere, handien aldean.

Arlo sozioekonomikoan euskararen presentzia, erabilera eta hizkuntzakudeaketa egiaztatzeko eta aitortzeko sistema bi ditugu: Bikain ziurtagiria eta Bai Euskarari ziurtagia.

Bai Euskarari ziurtagiriaren eragin-eremua Euskal Herria da. Guztira 1.319 entitatek dute Bai Euskarari ziurtagiria Euskal Herrian (% 48 EAE, % 15 Nafarroan eta % 14 Iparraldean). Jarduera-adarraren arabera aztertuta, Bai Euskarari ziurtagiria duten establezimendu gehien-gehienak zerbitzuetakoak dira, eta % 8 baino ez industriakoak. Kontuan hartu behar da establezimenduak kontatzen dituela Bai Euskarari Elkarteak estatistiketan, ez enpresa edo entitateak.

Bikain ziurtagiriaren eragin-eremua EAE da. Guztira 437 Bikain ziurtagiri eman dira. Ziurtagiria jaso duten entitateak gutxiago dira, behin baino gehiagotan edo maila ezberdinetako ziurtagiriak jaso dituztenak ere badirelako. Ziurtagiriaren % 76 entitate pribatuek jaso dituzte (331) eta % 24 entitate publikoek (106). Sek-

torearen arabera, bi multzo baino ez dira egin: industria eta zerbitzuak. Zerbitzuen sektoreari dagokio banatutako Bikain ziurtagirien % 87 (380 ziurtagiri); industria-ri, aldiz, % 13 baino ez (57 ziurtagiri).

4.2 Kultur eta komunikabideen kontsumoa

Elkar Fundazioaren enkarguz, kultur kontsumoari buruz Siadecok 2018an egindako inkesta baten arabera¹⁰, 16 urtez goragoko euskaldun gehienek ez dute euskal kultura kontsumitzen, ez euskarazko libururik, ez euskarazko musikarik, ezta euskarazko hedabiderik ere. Euskarazko kontzertuek dute daturik onena: euskaldunen % 47 joan dira azken urtean euskarazko kontzerturen batera. Telebista dago gero: % 42k ikusi ohi dute euskaraz. Atzerago daude gainerakoak: euskarazko diskoak euskaldunen % 29k erosten dituzte; euskarazko liburuak irakurtzeko ohitura % 22,9k dute; eta euskarazko prentsa irakurtzekoa, % 20,6k.

Euskarazko liburuen ohiko irakurleak, zenbaki absolututan, 160.000 inguru dira. Horrek esan nahi du euskal herritarren % 6,1 direla euskarazko liburuen ohiko irakurleak. Aisialdiko liburuak bakarrik hartuta (hezkuntza eremutik aparte-koak), euskarazko liburuen irakurleak dira herritar elebidunen % 34,4 (% 15,1 ohiko irakurleak eta % 19,3 noizbehinkakoak).

Euskaldunei galdetu zaie, zein diren euskarazko liburuak ez irakurtzeko eragin handiena duten faktoreak. Euskaraz irakurtzeko ohitura eza edo erraztasun falta aipatu da maizenik (% 42,5). Nabarmen atzerago dago euskaraz gustuko libururik ez aurkitzea (% 9,9).

Komunikabideen kontsumoari dagokionez, gehien irakurritako bi hedabideak zeintzuk diren galdetuta, bost euskaldunetik batek aipatu du euskarazko hedabide-
ren bat (% 20,6); horiek euskal herritarren % 5,6 dira. Euskaldunen artean hiru aldiz handiagoa da erdarazko egunkarien kontsumoa, hots: 150.000 euskaldun inguruk jotzen dute euskarazko prentsara.

Telebistan handiagoa da euskarazko kontsumoa: euskaldunen % 42k jarri dute euskal kateren bat gehien ikusien artean; ia denek, ETBI. Hala ere, handiagoa da euskarazkorik batere aipatu ez duten euskaldunen portzentajea: % 48.

Euskararen Adierazle Sisteman (EAS) jasota dago CIESeK eskainitako beste datu esanguratsu hau ere: 14 urtetik gorako biztanleen artean hedabideen —irratia-
ren, telebistaren, egunkari paperezkoaren zein digitalaren— euskarazko eguneroko kontsumoa % 7,9 da EAEn eta % 3,2 Nafarroan.

¹⁰ https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2018/03/Elkar_Siadeco_agerraldia_martxoak_14-def.pdf.

4.3 Ingurune digitala

Etxea, kalea, ikastetxea, lantegia, administrazio-bulegoa, aisialdirako gunea... hartu izan dira hizkuntzaren agertokitzat. Hizkuntzen osasuna eta estatusa ekosistema horietan aztertu izan da, eta horietan neurtu.

Gaur egun, ordea, bada ezinbestean aztertu beharreko beste espazio bat. Nonahi dagoen beste ekosistema bat, *zanpatzen* ez dena, beregaina dena eta noiznahi erabiltzen duguna. Aurrez aipatu diren agertoki guztietan dago presente ingurune digitala. Zeharkakoa da, dena ukitzen du, eta gero eta indar handiagoa du.

Edozein hizkuntzak, biziko bada, osasuntsu egon behar du ingurune digitalean ere (*Bat Soziolinguistika Aldizkaria* III [Bizindar digitala], 2019). Heriotza digitalaren arriskuak ez die soilik hizkuntza gutxituei eragiten. Hizkuntza ahaltsuagoek ere (estatu-hizkuntzek barne) badute mundu digitalean atzeratuta geratzeko arriskua. Kornairen (2019) arabera: «... hizkuntzen % 5 baino gutxiago igo daitezke esparru digitalera». Dioenez, nabarmena da arrakala digitalak ekarri(ko) duen hizkuntzen heriotza masiboa.

Hori horrela, nahitaezkoa da euskararen egoera digitalari ere erreparatzea.

Hasteko, baldintza soziolinguistikoak kontuan hartuta, esan dezakegu euskara nahiko ondo kokatuta dagoela ingurune digitalean. Hizkuntzen arteko konparazioa eginda, euskararen posizio erlatiboa espero zitekeenaren gainetik dago (Kornai 2019). Nolanahi ere, munduko hizkuntza boteretsuenen eta euskararen arteko aldea izugarria da, eta horrek erdal hizkuntzak (ingeleza, batez ere) erabiltzera eramaten ditu euskaldunak maiz. Mundu digitala ingelesarekin asoziatzen dute euskaldun askok, bereziki gazteek.

Panorama zail honi aurre egiteko, euskal komunitateak baditu ezaugarri positiboak. Oro har, euskaldunok nahiko jarrera dinamikoa eta aktiboa dugu mundu digitalean. Horren adibide dira PUNTUEUS, Euskal Wikipedia edo Librezeale bezalako ekimenak. Horietan denetan jarduera kolektiboa indartu da, talde-lana, herri-ekimenaren eta administrazioaren arteko elkarlana. Arrakasta-kasu horiek bide-erakusgarri dira.

Azken aldian indar handiz geureratu da adimen artifiziala, bai eta hizkuntza-teknologiak ere. Aurrerapen teknologiko izugarria gertatu da, eta zenbait aplikazioak (itzulpen automatikoak adibidez) tresna horien erabilgarritasunari buruzko iritziak errotik aldarazi dituzte: «Orain bai, orain ongi funtzionatzen dute!». Gailu teknologikoak hartzun bihurtu dira, eta gure espazio gertukoenak ere inbaditu egin dituzte. Ordenagailuek edo mugikorrek ez ezik, hozkailuek, autoek, telebistek, robotek, eta abarrek hizkuntza darabilte. Haiekiko interakzioa hizkuntzaz (ere) gertatzen da. Solaskide ditugu. Mintzatzen gatzazkie, eta mintzatzen zaizkigu. Hitzunen komunitatea pertsonen ez ezik, gailuek ere osatzen dute. Baina, euskaldunak al dira?

Oraindik orain, OpenAI konpainiak ChatGPT izeneko sistema plazaratu du. Egun gutxiren buruan sekulako astindua eragin du mundu zabalean. Gizakiak abiatzen duen elkarrizketari eusteko gai da sistema hau, baina ez da elkarrizketa-sistema soila. Hori baino gehiago da. Egindako eskaerak ondo betetzen dituen sistema da: itzulpenak, testu-sorkuntzak, laburpenak, eta abar. ChatGPT oso ona da hizkuntza nagusietarako; ez, baina, euskararako. Eta hor dago koska, berriz ere euskara atzera geratzeko arriskuan dela. Beraz, euskararako ere ChatGPTren pareko sistema bat behar dugu lehenbailehen.

Teknologia horiek hizkuntzen artean sorrarazten duten arrakala dela eta, Europako Parlamentuak ebazpen esanguratsua onartu zuen 2018an, *Hizkuntzen berdintasuna aro digitalean* izeneko¹¹. Europako hizkuntza guztiek, baita estatu-hizkuntza ez direnek ere, baliabide teknologikoak behar dituztela aldarrikatzen da manifestu horretan, eta Europako hizkuntza-politikek horretara bideratuta egon behar dutela. Bide horretatik etorri dira *European Language Equality* (ELE) bezalako proiektuak¹², etorkizunera begirako estrategia diseinatzeko helburua dutenak. Hain zuzen ere, ELE proiektuko txostenetan gaur egungo egoeraren diagnosia egiten da, eta Europako hizkuntzek zer baliabide teknologiko dituzten aztertzen da¹³. Hizkuntzen arteko egoera zein den jakiteko, interesgarria da webgune hau: <https://live.european-language-grid.eu/catalogue/dashboard>. Hor ikus daiteke non kokatzen den euskara: duen egoera soziolinguistikorako gaizki ez, baina estatu-hizkuntza handietatik urrun.

Ongi da Europak estrategia bat bideratzea hizkuntzak heriotza digitalera kondena ez daitezen, baina, marko horretan, euskarak aro digitalean iraun dezan, euskaldunok diseinatutako eta landutako bidea garatu beharko dugu. Eusko Jaur-laritzak argitaratua du *Euskararen Ingurune Digitala. Gomendioak 2021-2024* izeneko txostena (<https://labur.eus/OGEiy>), eta abian jarri du «GAITU: Hizkuntza-teknologiaren ekintza-plana 2021-2024» (<https://labur.eus/np2oV>).

Jarraian, eremu digitalean euskararen egoera zein den hobeto ulertzeko datuak azalduko dira. Datu horiek *Eusko Jaur-laritzaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2012-2022). 10 urteko ibilbideari begirada, ESEPen arabera diagnostikoa* izeneko txostenetik eta Euskararen Adierazle Sistematik (EAS) atera dira.

Euskararen Adierazle Sisteman Espainian eta Frantzian gehien erabiltzen diren APPak (28), web-zerbitzuak eta plataformak (40) eta oinarritzko tresna eta sistema-eragileak (42) aztertu dira, 110 guztira. Horietatik guztiak daude gaztelaniaz,

¹¹ https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-8-2018-0332_EN.html.

¹² <https://european-language-equality.eu/>.

¹³ Euskarari buruzko txostena: https://european-language-equality.eu/wp-content/uploads/2022/03/ELE___Deliverable_D1_4___Language_Report_Basque_.pdf.

frantsesez eta ingelesez. Euskaraz ia erdiak daude (% 49,1). Hala ere, aldeia dago tresna-mota batetik bestera: APPen % 64,3 euskaraz daude, sistema-eragilean % 47,6, eta web-zerbitzuen % 40.

Adituen arabera, Wikipedia tresna garrantzitsua da hizkuntza batek sarean duen egoera hobeto ezagutzeko. Wikipedian hizkuntza baten egoera zein den neurtzeko erabiltzen den neurgailuetako bat funtsezko artikuluen da; hau da, wikipedia guztiek izan beharreko artikuluko-kopurua (10 artikulua, 100 artikulua, 1.000 artikulua edo 10.000 artikulua). Artikulu-kopurua eta gaiak nazioartean adostu dira. 2020an euskara 33. postuan zegoen (51,08 puntu) hizkuntzen sailkapenean, Wikipediako funtsezko 10.000 artikuluen arabera. Euskaraz 8.600 artikulua zeuden (% 86). Tamainaren arabera, euskaraz zeuden artikuluen hiru laurdenek 8K edo gutxiago zituzten, % 13 tamaina handikoak ziren (> 16K) eta % 12,9 tamaina ertainekoak (8K-16K).

Gaiaren arabera, artikuluko-kopurua % 75etik gorakoa da gai guztietan, matematikan izan ezik (% 69). Hala ere, kontuan hartu behar da helburua neurri luzeko artikulua idaztea dela, eta gaur egun artikulua gehienak tamaina txikikoak direla.

Euskarazko Wikipediak 135 milioi bisita izan zituen 2020an. Horietatik % 85 ordenagailu bidez egin ziren eta % 15 telefono bidez.

PUNTUEUS domeinua Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatearen Interneteko lehen mailako domeinua da. PUNTUESEK 13.083 domeinu-izen erregistratu zituen 2021ean: erregistroen % 41 Gipuzkoan, % 33 Bizkaian, % 10 Araban, % 5 Nafarroan eta % 3 Iparraldean. Hala ere, PUNTUEUSEK ez dio erreferentzia egiten eremu geografiko zehatz bati, komunitate kultural eta linguistiko bati baizik; ondorioz, erregistroen % 9 Euskal Herriatik kanpokoak dira.

5. Bibliografia

ALTUNA, O., IÑARRA, M., ETA BASURTO, A. (2022a). *Hizkuntzen erabilaren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021. Txosten teknikoa*. Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabilaren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/>.

— (2022b). *Hizkuntzen erabilaren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021. Emaizten laburpen txostena*. Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabilaren-kale-neurketa-euskal-herria-2021/>.

ALTUNA, O. ETA HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M. (2021). «Gazteak euskararen eszenatokian: erabilaren auzia». Soziolinguistika Klusterra. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 120: 29-45. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/gazteak-eta-euskara/>.

ARRUEIKERKETA(2019). *EAEkoikasleeneuskararenerabileraeskola-giroan, 2011-2017. Txosten teknikoa*. Eusko Jaurlaritza, ISEI-IVEI, Soziolinguistika Klusterra. <https://>

soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/eaeko-ikasleen-euskararen-erabilera-eskola-giroan-2011-2017-txosten-teknikoa/.

CALVET, L.-J. (2017). *Les langues, quel avenir? Les effets linguistiques de la mondialisation*. CNRS éditions.

CRYSTAL, D. (2003). *English as a Global Language* (2. arg.). Cambridge University Press. <https://www.cambridge.org/core/books/english-as-a-global-language/690D300092A3B5E4733677FCC9A42E98>.

EUSKARAREN ADIERAZLE SISTEMA (EAS). <https://www.euskadi.eus/eas/>.

EUSKO JAURLARITZA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA), NAFARROAKO GOBERNUA (EUSKARABIDEA) eta EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA/OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE (2019). VI. *Inkesta Soziolinguistikoa (2016)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/eu_def/adjuntos/INKESTA_EU.pdf.

(2023). VII. *Inkesta Soziolinguistikoa (2021)*. (Argitaratu gabea).

EUSKO JAURLARITZA (2022). *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2012-2022). 10 urteko ibilbideari begirada, ESEPen araberrako diagnostikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

GAINDEGIA (2021). *Euskal Herria. Adierazle Galeria Nagusia*. https://gaindegia.eus/sites/default/files/AGN-euskal-herria-2021_8.pdf.

KORNAL, A. (2019). «Hizkuntz heriotza digitala» Soziolinguistika Klusterra, *Bat Soziolinguistika Aldizkaria III*: 11-32. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/III-2019-2-bizindar-digitala/>.

LO BIANCO, J. (2014). «Domesticating the Foreign: Globalization's Effects on the Place/s of Languages: Domesticating the Foreign: Globalization's Effects», *The Modern Language Journal* 98 (1): 312-325. <https://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1111/j.1540-4781.2014.12063.x>.

SIADeco eta ELKAR FUNDazioa. *Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak*. https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2018/03/Elkar_Siadeco_agerraldia_martxoak_14-def.pdf. (Argitaratu gabea).

EUSKARAREN ETORKIZUN-IKUSPEGIA: ARIKETA SINTETIKOA

Jon Sarasua Maritxalar
Euskararen Gogoetaginearen koordinatzailea

I. Ariketaz.....	45
I.1 «Etorkizun-ikuspegia» kontzeptuaren kokapena	45
I.2 Irakurtzeko argibide batzuk.....	46
2. Ibilbidearen egitura.....	47
2.1 Gezia	48
2.2 Egitura zuhaitzean.....	49
2.3 Irakurketa desberdinez	52
3. Egoeraren egitura	54
3.1 Bitasuna kudeatu.....	54
3.2 Abagunearen irudiak.....	55
3.3 Faktore-multzo bi eta egiturazko mugak.....	55
3.4 Eragiletzaz iruzkin bat	57
3.5 Indarguneen oinarria eta aukera-leiho bat.....	57
4. Eragiletzaren egitura.....	59
4.1 Erakundetze-modu desberdinen dimentsioa	60
4.2 Gizartea eta komunitatea	62
4.3 Kontakizunaren garrantzia	66
4.4 Lurralde-banaketa eta eragiletza.....	67
5. Hurbiltzea	68
5.1 Errealitatea eta etorkizun-irudikapena hurbildu.....	68
5.2 Inpaktuak mugimendu bihurtu	70
6. Etorkizun-ikuspegiaren ardatzak.....	71
6.1 Gizarte-politikak: ardatz-sistema	72
6.2 Gizarte-politikak: pausoak	73
6.2.1 Corpora.....	73
6.2.2 Kulturgintza	74

6.2.3 Administrazio publikoa.....	74
6.2.4 Teknologia eta eremu digitala.....	74
6.2.5 Helduen euskalduntzea	75
6.2.6 Etorkinen harrera linguistikoa	75
6.3 Gizarte-politikak: jauziak	76
6.3.1 Lan-eremua	76
6.3.2 Hezkuntza ez-formala edo aisialdi antolatua.....	77
6.3.3 Hedabideak.....	78
6.3.4 Hezkuntza arautua	81
6.4 Arlo formalen zoruaz	82
6.5 Dentsitate-guneen arloa: Arnasguneen Politika Integrala.....	84
6.6 Hizkuntza-politikaren izaera integralaz	86
6.7 Eragiletzaren baldintzak.....	87
6.8 Komunitate-estrategiez.....	88
6.9 Komunitate-zuntzen garrantzia.....	89
7. Helburu-iparren berrirudikapena	91
8. Etorkizun-ikuspegiaren ezaugarriak.....	95
9. Hondar-solasa dokumentu honen erabileraz.....	97

I. Ariketaz

Hemen aurkeztuko dugun bisio hau bide-orri zabalago baten parte da. Prozesu zabalago horren baitan, ponentzia honi dagokio euskararen etorkizun-ikuspegiaren ardatzak marraztea. Argitalpen honen hasierako atalean agertzen den moduan, euskararen norabideari buruzko formulazio-lan sistematiko eta kolektiboa egiten ari da Euskaltzaindia. Lan horrek dituen adar desberdinen artean, hemen aurkeztu dugun ponentzia hau prozesuaren erdigune edo enbor izateko asmoz egin da.

I.1 «Etorkizun-ikuspegia» kontzeptuaren kokapena

«Etorkizun-ikuspegia» kontzeptua darabilgu izenburuan, eta koka dezagun: beste hizkuntza batzuetan *vision*, *visión*, *visão* moduan erabiltzen den hitzaren adieran ematen dugu kontzeptu hori. Prozesu kolektiboetan ipar-norabide- edo bisio-funtzioak betetzen dituen gako-elementua litzateke «etorkizun-ikuspegia» adiera horretan: etorkizuneko ipar eta norabide nagusiei buruzko kontakizun artikulatua.

Etorkizun-ikuspegi edo bisioa, erabiltzen ari garen adieran, ez da etorkizunari buruzko ikuspegi, gogoeta, aurreikuspen eta asmo batzuk izatea. Ez da etorkizuna marraztea. Ez da etorkizuna desioetatik lantzea. Ez da etorkizuna irudikatzea. Ez da aurreikuspen egokiak egitea ere. Hori dena bada, baina hori baino gehiago da. Prozesu kolektiboetan, eta bereziki arnasa luzekoetan, giza multzo bat kohesionatu, motibatu eta norabidetzen duen etorkizuneko ortzimugaren marrazkia da.

Bisioaren alaba da estrategia. Zehatzago esanda, estrategiak (pluralean) bisioaren alabak dira. Etorkizun-ikuspegi egoki eta indar-emaile batetik sortzen dira ildo estrategiko eragile eta artikulatuak. Hain zuzen ere, bisioa ondo eraikia izatea da ildo estrategikoak artikulatzeko faktore nagusia. Ondo eraikitako bisiorik izan ezean ere, estrategia-ildoak sortu, sor daitezke. Etengabe ari dira gure erakundeak, elkarteak, mugimenduak eta enpresak estrategia-ildoak sortzen. Bisio egoki batek duen desberdintasun kualitatiboa da estrategia-ildoak artikulatzeko norabide dinamizatzailea ematen duena.

Etorkizun-ikuspegi edo bisio-ariketa egokia egiteak hainbat ariketa konbinatzea eta bateratzea dakar berekin. Ariketa desberdinen konbergentziaren bidez egiten den ekoizpena dela esan dezakegu. Laburki saiatuko gara aletzen.

Batetik, iraganeko identitate-elementu, ezaugarri eta prozesuak barneratu behar dira. Iraganeko elementu hauek guztiak digestio kritiko baten bidez integratu dira, eta norabide eraikitzaile baterako sustrai moduan erabili.

Bigarrenik, egungo abaguneari buruzko ikuspegi panoramiko eta aldi berean sintetikoa landu behar da.

Eta hirugarrenik, trakzio-norabideen iparrak sumatu behar dira. Azken ariketa hori da konplexuena. Izan ere, aurreko bi ariketak ondo eginak izatea eskatzen du,

angelu ugari eta informazio asko sintetizatzeko gaitasuna eskatzen du. Baina ez hori bakarrik. Kontua ez da sintesi bat egitea: sintesitik ateratzen den gezi formako norabide bat sortzea baizik, guztiarekin posibilitate-lerro bat marraztea.

Norabide bat sortzeak, gorago aipatu ditugun horiez gain beste bi elementu neurri egokian konbinatzea planteatzen du. Batetik, etorkizunaren inguruko amets, proiektzio positibo edo *desideratuma*. Nahi denaren dimentsioa, aspektu utopikoa, lekurik ez duenaren lekua. Eta bestetik, etorkizunaren prospektiba errealista, informetua, jantzia. Prospektiba eta prospektibaren, proiektzio positiboaren eta errealismoaren, sustraian eta berritasunen arteko konbinatze-ariketa da, beraz, bisioa eraikitzea.

Zentzu horretan, etorkizun-irudikapenak egitea bera erraza izan daitekeen moduan, kalitatezko etorkizun-ikuspegiak eraikitzea lan konplexua da. Bisioak, ororen gainetik, aktibatzailea edo trakziozkoa izan behar du, motibatzailea, bizigarria, eta aurreko adjektibo horiekin bateratzen erraza ez den ezaugarri bat izan behar du: sinesgarri gertatzea, utopia-norabide bat izanik ere, eta zailtasun ugari zeharkatzea eskatuta ere, kolektiboarentzat sinesgarritasun maila bat izatea. Horrekin guztiarekin, bisio batek gakoak ireki behar ditu bere enborrean, kakoak, gantxoak, horietan ildo estrategikoak txertatzeko.

1.2 Irakurtzeko argibide batzuk

Hemen aurkezten duguna sintesi bat da. Esango ditugun gauza askok eskatzen dizkigute ñabardura xeheagoak, datuak, garapen zehatzagoak, argudio azalduagoak. Horietako batzuk prozesu honi lotutako arlokako ponentzietan agertuko dira, eta beste batzuk darabiltzagun iturrietan bilatu beharko dira, ponentzia baten luzera mugatua delako, eta elementu-gama oso zabala hartzen dugulako espazio mugatu honetan.

Gaiaren zabaltasunagatik, arlo batzuk kanpoan edo oso gutxi aipatuta geratu direla ere badakigu, eta jakinaren gainean egin dugu. Gure ustez, ponentzia honen irakurketan, galdera nagusia ez da zer falta den, ezinbestez faltako baitira arlo eta elementuak. Irakurleari egin nahi diogun galdera beste bat da gehiago: hezurdura zenbateraino den egokia, ea egitura egokia eman diegun elementuei.

Testuaren jomuga ez da hartzaile euskaltzaleenak edo sektore euskaltzaleak gogobetetzea, edo ez hori bakarrik. Geometria politiko irekiagoan, etorkizun-ikuspegi posible baterako eragile-gama zabal batengan elkarriketa sortu nahi du bisio-proposamen honek.

Sukalde-lan konplexu batean kokatzen da aurkezten duguna: sentsibilitate eta angelu posible asko kontuan hartu eta aldi berean mugitzeko norabide bat sortzea dugu helburu. Horretarako arragoa bat sortzeaz ari gara, lehen aipatu dugun bide-orri zabalago horretan. Hortxe kokatzen da ponentzia honi eskatzen dioguna. Desafio hori bizkarrean hartuta abiatu gara.

Uste dugu, hemen esango ditugunek eskatzen dutela ez irakurtzea edo ez begiratzeari bakoitzak bere arloaren betaurrekoekin. Euskararen eragiletza oso banatua dago arloetan, ikuspegiaren, sektoreetan eta hortik sortzen diren begiratu nahiz interes legitimoetan. Eta askotan kokapen horiek euskararen politikari buruzko diskurtso propioak sortzen dituzte. Ez da erraza izaten horietatik harago joatea, baina ahalegin horixe behar duela uste dugu ponentzia honen edukiak. Hori ere bada ariketa bat: nork bere angelua, nork bere txokoa, nork bere arloa tarte batzuetan apur bat ahanzte, abstrakzio zabalagoa egitea. Uste dugu hortik irakurtzekoa dela ponentzia hau.

Laguntzen badu, ponentzia osatzerakoan aitortzen dut nire zenbait txoko edo arlo ere ia desagertuta daudela lan honetan. Nik duela bederatzi urte euskararen norabideaz idatzitako liburuan garrantzia zuten atal asko ere, niretzat oso esanguratsuak zirenak, hemen ez dira ageri. Ponentziaren bigarren mailako lerroan agertuko lirateke, baina hemen, marrazki nagusian, ez dira agertzen. Ez dakit balio duen adibide moduan esan nahi duguna esateko: norberarentzat garrantzitsua den arloetik edo arloetatik harago, askoz harago, joatea eskatzen duela hiztun-komunitate baten egoeraren egituratik abiatu eta etorkizun-ikuspegiaren egituraz gogoeta egiteak, eta jarrera hori behar duela ponentzia honen lanketak nahiz irakurketak.

Sarrerako kokapen hauen ondoren, has gaitezen mamiarekin.

Bisioaren formulaziora iritsi aurretik beste hainbat elementuren egitura atzematen saiatuko gara. Ohartuko zarete «egitura» hitza maiz agertuko dela kapituluaren izenburuetan. Egitura horien sintesiak agertzen saiatuko gara.

2. Ibilbidearen egitura

Ponentzia hau gauza askotan sintetikoa izango dela esan badugu, euskal komunitatearen azken aroko ibilbidearen egitura azaltzean, jakina, bereziki sintetikoak izatea dagokigu.

Euskararen eragiletza, hizkuntzaren aldeko ahalegin kontziente, aspalditik datorren katea da. Segida horretan, eragile-belaunaldi bakoitza aurrekoaren zordun da, eta halaxe gertatzen zaio euskara biziberritzeko aro garaikide honi ere. Heme-retzigarren eta hogeigarren mendeko pizkunde-oldeen txingarretatik piztutako aroa ezagutu dugu azken sei hamarraldiotan. Egia da ez dela erabat bidezkoa eta zehatza horrelako aroak noiz hasten diren eta noiz bukatzen diren esatea. Ikuspegi batzuetatik, bizi izan dugun loraldia hogeigarren mendearen erdialdeko ahaleginekiko jarraidura betea da. Hala ere, zentzuzkoa dirudi mugarri bat jartzea aurreko mendeko 60ko hamarraldian, eta, ia dena aurretik egositakoa bada ere, aro baten hasieratzat hartzea euskara batua, ikastolen loratzea, gau eskolak eta hainbat garabide batera martxan jarri ziren unea.

Handik honakoa, euskararen biziberritzearen aroa dei dezakeguna, edozein angelutatik begiratzen dugula ere (bai gure ibilbidearen beste aroekin erkatuta, eta

bai mundu mailako adibideen parean jarrita) ez da ohiko istorioa. Kontakizun berezia du, kolore propio batzuk, eta egitura jakingarria. 60 urte inguruko aroa bete du euskalgintzaren biziberritze-prozesu garaikideak. Hegoaldean, frankismoak inurritegira pitxerkada ura isuri zuela dirudi, eta txindurri mordo bat alarman atera zen lanera, han eta hemen barreiatuta.

2.1 Gezia

Sei hamarraldiko ibilbide honetan, hasteko, amets-gidari bat ageri zaigu. Aipatzen ari garen ibilbide honen aurrekari izan zen Euskal Pizkundeko Xabier Lizardi idazle eta bultzatzailearen hitzak berreskuratuko ditugu, gero izan genuen amets-gidaria marrazteko: «...baina nik, izkuntza larrekoa, nai aumat ere noranahikoa»¹. «Noranahikoa» adjektibo gakoa da istorio honen ametsa ezaugarritzeko orduan.

Duela sei hamarkada hizkuntza *zaharra* genuen, eta berau gure bizitza garaikidearen hizkuntza bihurtzea nahi izan zuen hiztun-komunitatearen gidaritzan zegoen multzoak: norbanakoaren funtzio guztiak eta gizartearen funtzio guztiak betetzeko gai izango zen hizkuntza. «Noranahikoa» bazen gako-adjektiboa, «funtzioa» da gako-substantiboa. Gure gurasoen belaunaldiko eragileak amestuzuten, lausoki baina sen erabakitzailez, gu, haien seme-alaben belaunaldikook, bazetorren mundu garaikide hartan, euskaraz biziko ginela zegozkigun funtzio guztiak hizkuntza horretan betez. Eta horretarako bideak sortzen hasi ziren, funtzio formalak, ezformalak, hezkuntzazkoak, jakintzazkoak, sorkuntzazkoak euskaraz eratzeko oinarriak jarritz. Belaunaldiak horretarako prestatzeko ekimen behinena ikastolen sorrera izan zen ziurrenik; historiako une hartan euskara hutsean ardaztutako hezkuntza-eredua ezartzea belaunaldi haren intuizio jenialen adierazgarria da.

Ametsa, utopia, norabidea horrela formula liteke, nolabait: hizkuntza balioitsu eta zaharkitu hau berrituko dugu eta gizarte moderno bateko funtzio guztiak betetzeko gai izango da, eta horretara goaz. Eta horretan, komunitatearen kontakizunean (komunitateak bere buruari kontatzen dion istorioan) mutazio bat gertatu zen. Mutazio erabakigarria, eragileak arlo guztietan lanean jartzea ekarri zuena. Gaur egun ere, mundu zabaleko hiztun-komunitate asko eta askotan kontakizunak baditu gurean ere lehenagotik ohikoak ziren elementuak: hizkuntzaren balioaren kontzientzia, bazterketa eta injustizia baten kontakizuna, eta eskubidearen aldarrikapena. Baina hiru kontakizun elementu horiek ez dute sortzen aski energiarik hizkuntza baten biziberritzeak behar duen leherketa sortzeko. Puntu horretan daukagu munduko hizkuntza-komunitate baztertu gehienak. Aipatzen ari garen aroaren hasieran, kontakizunaren balioeste-elementuei, biktima-elementuei eta eskubide-elementuei beste elementu-multzo bat sortu zitzaizkien: «Ahal dugu, etorkizun hori

¹ «Oro mintzo» poema (*Bihotz-begietan*).

badator, euskara funtzio guztietarako prestatuko dugu, eta horretara goaz». Norabi-deak sinesgarritasuna irabazi zuen hiztun-komunitateen eragileen artean, eta aurre-rago komunitateko geruza zabalenetan ere bai.

Ametsak bazuen beste dimentsio bat ere, modu sintetikoan azaltzea zaila bada ere, aipatu beharrekoa: euskararen ametsa, aldi berean, justizia-asmo baten parte ere bazen nolabait, mundu edo herri hobe baten garraio, justiziazko eta berdintasunezko sentsibiltate batzuen osagai. Nolabait esanda, justizia baten parte zen, eta aldi berean justizia-amets baten garraio.

Esan dezagun ametsak, edo kontakizunaren eraldatze horrek, eklosio-indarra sortu zuela. Euskararen komunitatearen esnatze edo erreakzio bat gertatu zen, beste modu batera esanda. Erreakzio bat, ekinbide sorta sendo bat martxan jarri zuena. Bisio bat mamitu zen, eta horrek kontzienteago edo inkontzienteago, estrategia-adar funtzionalak sortzen ditu: etorkizunean funtzio guztiak euskaraz beteko dituzten haurrak izango baditugu, euskara estandarizatu beharko dugu, eta terminologiak garatu, eta hiztun osoak sortuko dituen eskola eredu bat eraiki, eta liburugintzan hasi, eta helduak euskaldundu, eta aisialdi antolatuan eskaintzak martxan jarri...


2.2 Egitura zuhaitzean

Aro honetako garabideen ulermen sintetiko baterako, egokia iruditzen zaigu berauek zuhaitz baten egituraren bidez marraztea. Zuhaitzaren egitura honek, bide batez, beste hainbat elementu ere kokatzen lagunduko digu.

Corpusaren adarraz hitz egin liteke, hasteko. Bi hitzetan esateko, euskara estandarizatzea, eta horri loturik terminologia askotarikoak sortzen hastea, funtzio berri askotarako oinarri. Hezkuntzaren adarra dugu beste bat, estrategia-adar bere-bizikoa, ikastolek sortutako hezkuntza-eredutik hasi eta egun arlo horretan dugun guztiraino, Haur Hezkuntzatik unibertsitatera. Helduen euskalduntzearen adarra, egungo euskal hiztunen portzentaje aipagarria euskaldundu duena, gau-eskolen aroetatik hasi eta egungo euskaltegien jarduneraino. Hedabideen adarrak, aldizkari eta irratietatik hasi, telebistaren sorreratik pasatu eta Interneten zabalkundera, beste arlo handi bati erantzun dio. Kultur sorkuntzarena da beste adarra, hiztun-komunitatearen sorkuntza-aparatua, kantugintza, literatura, bertsogintza, antzerkia eta beste adierazpide mordoak biltzen duena, eta hizkuntzaren biziberritzean funtzio berezia osatzen duena, besteak beste prozesurako behar den erregai simbolikoa ekoiztu eta hedatzea. Aisialdi antolatuaren adarrak, beste batzuen artean minorra izan arren, eskola arautuz kanpoko ekintzen arloa hartzen du, eta badu bere autonomia eta garrantzia ibilbide honetan. Administrazioa euskalduntzearen adarrak, jakina, funtzio garrantzitsua du horrelako prozesu batean. Beranduago etorri zen lan eremua edo enpresak euskalduntzearen estrategia-adarra. Badira beste alor batzuk adar moduan aipa daitezkeenak, baina lehen marrazkian zortzi hauek utziko ditugu.

Sarritan galdetu izan digute euskararen komunitateak nondik atera duen indarra adar horiek guztiek behar izan duten lan izugarria egiteko, zein diren iturriak, zein diren adar-multzo hori guztia zabaltzeko gaitasuna azaltzen duten sustraiak. Hiru multzotan bana litezke sustraiok. Batetik, gizarte-aktibazioa edo komunitate-aktibazioa, gure kasuan bereziki garrantzitsua izan dena, munduan ezagutzen ditugun beste kasuetan baino gehiago. Bestetik, erakunde-aktibazioa, instituzio publikoen bultzada. Eta hirugarrenik, kontakizuna: komunitateak bere buruari kontatzen dion istorioa, bisioa, diskurtsoa edota motibazio-multzoaren kudeaketa. Identitate-kontakizun bat (nor garen), iragan kontakizun bat (nondik gatozen), abagune kontakizun bat (non gauden) eta, bereziki, etorkizunerako kontakizun bat (nora goazen) behintzat identifikagarriak izan dira biziberritze-aro honetan, haien konplexutasunean, eta beste hainbat elementurekin batera.


I. Irudia



Badu garrantzia ohartzeak hirurogei urteko ibilbide horren barruan, lehen hamarraldietan estatuaren edo administrazio publikoaren bultzadarik eta laguntzarik gabe garatu zirela adarrak, eta gizarte zibil antolatua izan zela, askotariko gizarte-erakunde bidez, estrategiak eta ekimenak mamitu zituen. Gure garabide gehien oinarriak, Hegoaldean, frankismo betean jarri ziren: euskara batuen sorrera, ikastolen sorrera eta eklosioa, helduak euskalduntzeko mugimendu eta eskolen sorrera, kulturgintzaren loraldia, eta beste hainbat oinarri. Oinarriok gizarte zibil antolatuaren egituretatik bultzatu eta gidatu izanak horrek pista jakingarria ematen digu gizarte zibil autoantolatuaren paper funtsezkoaz. Halako kasu gutxi dago munduan hizkuntzen biziberritze-kasuen artean.

2. Irudia


Frankismo garaia, erakunde publikorik gabeko aroa



Gero, azken hamarraldietan, erakunde publikoen eta gizarte-erakundeen arteko lan- eta funtzio-banaketa garrantzitsua izan da, bi erakunde mota hauetako bat izan gabe ezin da ulertu ez gure ibilbidea, ez eta gure etorkizuneko norabidea ere. Erakunde publikoen jardunak gabe ezin da inondik ere ulertu aipatzen ari garen ibilbide hau. Hori gabe, gaur ez ginateke arituko biziberritze-prozesu batez, ziurrenik. Euskararen azpiegitura sorta zabala bi esparru horien artean banatua dago, eta gure buruaren irakurketa instituzional konplexua egin behar dugu, zentzu horretan. Instituzioak dira erakunde publikoak, instituzioak dira gizarte-erakundeak, eta bien arteko funtzio banaketari esker egin dugu, euskararen alorrean zerbait egin badugu.


3. Irudia

Bi aro eta bi eragile-mota



Egun, beraz, euskararen berariazko azpiegitura moduan funtzionatzen duten erakundeak bi esparrutan banatuta ditugu, eta hizkuntza-politika publikoak bien ekarpenak osagarri bihurtzeko funtzioa du, besteak beste. Eskema honetan ikus dezakegu errealitate horren laburpen bat.

4. Irudia



Gutxienez sei hamarraldi dituen aro honen genioa, lana, meritua, norabide askotan barreiatu beharrekoa da. Erakunde publikoek, indar politiko desberdinek, gizarte antolatuko euskalgintzako erakundeek, euskararekin lotura zuzena ez duten erakunde sozialek, sentsibiltate askotarikoak dituzten milaka eta milaka herritarrek... askok eta askok egin dute posible ibilbide hori. Arlo politikoan gertatu diren zatiketen ondorioz, bakoitzak bere gertuko ildokoek egin dutenean meritu gehiago ikusteko joera ulergarria izanik ere, bidezkoa da aitortzea euskararen biziberritzeko ibilbide honen protagonismoa eta ahalegina askorena dela, desberdinena, eta uste izaten duguna baino zabalagoa.

2.3 Irakurketa desberdinez

Hizkuntza biziberritzeko aroaren egitura, hemen laburki eman duguna, eta beste elementu batzuekin hobetu nahiz osa daitekeena, kontuan izatea beharrezkoa da, gure ibilbidearen autoulermen zehatzagoa izateko.

Guztiarekin, gertatu zaigunaz eta egin dugunaz hainbat metafora erabil litezke, eta horietako bat da hizkuntzari minbizia detektatu ziola komunitateak, eta minbizi horrentzako terapia experimental bat garatu duela euskal komunitateak.

Metafora gehienak dira mugatuak edo problematikoak, eta badira minbiziaren metafora desgokitzat jotzen dutenak. Desgokitasun hori egotz dakiok minbizi

irudi dramatikoegitza jotzen delako, euskararen egoera hori baino osasun hobekoa dela argudiatuta. Baliteke minbiziaren ideia bera dramatismo maila desberdinekin ulertzea gure artean. Minbizia, gaur egun, askotan edo ia gehienetan senda litekeen gaitza da, eta ez dago derrigor tragediarekin lotu beharrik. Baina bada gaitz bat estrukturala, progresiboa, serioa, sendatu litekeena, baina terapia sendoa eskatzen duena, eta ezer egiten ez baduzu, kolapsora eraman zaitzakeena. Hizkuntza baten egoera normaldua eta osasun osoa erreferentziatzen hartzen badugu, soziolinguista jantzi gehienak bat datoz euskararen egoera hortik urrun dagoela esatean, eta gaitz batekin konparatzen badugu, gaitz arina ez duela esatean, baizik gaitz serioa, estrukturala, terapia sendoa eskatzen duena, eta asko eginda ere etorkizuneko osasuna ikusteko daukana.

Dena dela, hemen ez dugu metafora hori aldarrikatzeko asmorik. Munduko hizkuntza gutxitu gehienek (hau da, munduko hizkuntza gehien-gehienek) bizi duten gainbehera larriaren metafora moduan baditu potentzial onak minbiziaren metaforak: hizkuntza horiek biziberritu nahi badira, diskurtso eta zainketa arinetatik harago terapia sendoen aldeko apustua egin beharra iradokitzen du metafora horrek. Eta mundu-testuinguru horretan, egokia izan liteke euskararen kasua kokatzea terapia sendo xamar bat nolabaiteko arrakastaz (arrakasta erlatiboz) esperimentatu duen komunitate moduan.

Minbiziaren metaforak duen alde ahuletako bat da oro har minbizia zoriz egokitutako gaitz moduan ulertzen dugula gehienetan. Eta, dakigun moduan, hizkuntzen egoeran botere-harremanek sortutako ondorioak dira faktore garrantzitsuenetako bat. Izatekotan, erradioaktibitateak edo lindaneak luzaroan eragindako minbiziek hobeto azalduko lukete, beharbada, hizkuntza askoren egoera.

Dena dela, minbiziaren metaforaren aukerak eta arazoak aparte utzita, beste hau da garrantzitsua: euskararen ibilbidearen eta egoeraren irakurketa desberdinak, dibergenteak onartu behar ditugula, metaforen ñabardurak edonolakoak direla ere.

Medikuntzako metafora hori hartzen badugu, badira soziolinguistak, pentsalariak eta behatzaileak, euskararen egoeraren alde ilunak seinatzen dituztenak, gaixotasunaren eta ezintasunen aldea begi aurrean jartzen digutenak. Eta badituzte horretarako arrazoi sendo batzuk. Badira, bestetik, aplikatutako terapien meritua, indarra eta emaitza positiboak azpimarratzen dituztenak. Horretarako ere badira helduleku sendoak.

Gutxienez sei hamarraldi bete dituen biziberritze-aro honek kontakizun eta balorazio desberdinak izan ditzake. Analisi-hautu desberdinak zilegi dira, bai eta aldarte-hautu desberdinak ere, euskararen ibilbidea eta egoera interpretatzerakoan. Zilegi bakarrik ez, beharrezko ere badira begiratu desberdin horiek. Hartu duguna bezalako bisio-lan batek irakurketa desberdin horiek kontuan hartzen saiatu behar du.

3. Egoeraren egitura

Lan honen marko zabalagoan, orain arte Euskal Herrian ditugun diagnostikolan eta datu nagusiak bilduko dituen sintesia eskatu zaie Olatz Altuna eta Jon Aizpuruari². Hemen nik esango nukeena baino hobeto daude ekarriak bertan diagnostiko-elementuak, eta ez dut, beraz, hemen zenbaki, datu eta bilakaerarik errepikatuko.

Hemen, datuak iturrien kontsultarako utzita, arrazoibidezko sintesi are sintetikoago eta eragile bat marraztuko dugu.

3.1 Bitasuna kudeatu

Ez da erraza balorazio-sintesi eragile batean asmatzea. Nola goazen galdetuta erantzun bateragarri xamarrek emateko modurik ez dugu egiten arlo honetan. Azken hamarkadetan arrakala politiko-estrategiko batetik igaro gara, oso kontrajarriak izan diren jarrera politikoak izan dira euskal komunitatean eta euskararen eragiletzan. Horren ondorioz ditugun istorio, emozio, ideologia-hondar, uste mindu eta ariketa psikologikoekin, mota guztietako iritziek gurutzatzen dute galderaren erantzuna.

Abiapuntu desberdinak daude, euskaltzaleak elkarrengandik urrun egon litezke zentzu askotan, baina posizio baloratibo desberdinetan dauden euskararen pentsalari eta eragileek badituzte arrazoiak mahai batera biltzeko. “Egin ote dezakegu hori aspalditik ezagutzen ditugun jarreretan, leporatzeetan, legitimazioetan, frustrazioetan, eta banatu gaituzten arrakalen ariketa psikologikoetan trabatu gabe?” galdetu genuen duela urte batzuk. Ni baiezkotan nago, behar dugulako. Eta une honetan horretara deituta gaudela uste dugulako.

Egoerari buruzko analisiak arragoa batean biltzeko, bitasun bat behintzat kudeatu behar dugu. Egoera poliedrikoak, besteak beste, txanpon baten bi alde ere baditu. Batetik, txanponaren alde batek esaten du ez gaudela ondo, eta gaixotasuna serioa dela. Gaixotasun larria izan badugu, egiturazko gaixotasun horrek hor jarraitzen duela, eta, aurreratu dugun guztia gorabehera, azken aldian konplikazio berriak ere badituela. Hau da, gorputza ez dagoela ondo, eta munta handiko desafioak ditugula sendatze-sendotze prozesu honetan. Eta gaixotasuna ez dela gripea. Euskararen Gogoetagunearen prozesu honetan Olatz Altunak eta Jon Aizpuruak egindako diagnostiko-bildumaz gain, berriki argazki diakroniko sakona plazaratu du Iñaki Iurrebasok, hamarraldietan landutako doktorego-tesiaren³ bidez.

² Liburuki honetan bertan argitaratua dago bi adituok egindako diagnostiko sintetikoa.

³ *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa doktorego-tesia. 2023. Oraindik argitaragabea.*

Baina txanponaren beste aldeak dio egin duguna ikaragarria izan dela. Munduan aurrekari gutxi duen prozesua dela aurreko kapituluan zuhaitzaren eskemarekin marraztu dugun hori, eta munduko hizkuntza gutxitu edota estatutik gabeko hizkuntza askoren tropeletik tiraka doan txirrindularia garela, une honetan, ikuspuntu global batetik. Egin dugun ibilbideak, eta egiten ari garen ibilbideak elementu inspiratzaile, esperimental eta estimagarri asko duela ikuspuntu global batetik. Handia dela, nolabait esanda, egin duguna eta egiten ari garena.

3.2 Abagunearen irudiak

Bitasun horretan zeri eman lehentasuna? Nola ikusi nahi dugu botila, erdi-hutsa ala erdi-betea? Hori aldarte-hautu bat izan liteke. Baina beharbada premiazkoagoa da ohartzea ez dela bakarrik botila nola ikusi nahi dugun, baizik eta, edozein kasutan ere, botilak zulo batzuk badituela, eta likidoa betetzen ari garen aldi berean, likidoa galtzen ere ari garela beste aspektu batzuetan.

Beste metafora bat ere erabili izan dugu azken urteotan, Urbiako metafora. Arantzazutik abiatu baginen Aizkorrira iristeko, Aizkorri tontorra ulertzen badugu euskararen komunitatearen garapen oso xamar baten irudi, esan dezagun, 60 urteko ibilbidearen ondoren Urbiako lainopera iritsi garela. Metafora horrek adierazten du, batetik, meritu handiko igoera egin dugula, Arantzazutik Urbiara igoera aipagarria dago. Hirurogei urteko igoera izan da, eta lehen aipatu dugun moduan, meritua barreiatu egin behar dugun norabide askotan. Baina Urbiako metaforak seinalatzen du, baita ere, norabide krisia. Mendizalearen krisi oso ohikoa: «Lainoa sartu du, uste genuen gertuago geundela, eta oraindik nondik da zehazki? Handik? Hortik?». Metaforaren barruan, abaguneak bi aukera ematen dizkigu. Batetik, bertan goxo egitea, moteltze-zantzu batzuei men egitea eta Urbiako fondan mokadutxoa jaten geratzea. Beste aukera, «ea, neska-mutilak, goazen bigarren igoaldiari ekitera!» esatea da, horrek eskatzen duen guztiarekin.

Kike Amonarrizek aipatu izan du *impasse* moduko batean gaudela. Esango genuke une delikatu dagoela euskararen biziberritze-prozesua. *Impasse* egoera marrazteko esan liteke, alde batetik arlo batzuetan aurrerapauso handiak eman ditugula: ezagutzan, nagusiki. Esparru geografiko batzuetan ia-ia ezagutzaren unibertsalizazioa etorkizun hurbilean hatz-mamiakin ukitzeko aukera izan dezakegu. Baina beste batetik, hainbat arlo argi gorriak ematen ari zaizkigu: arnaguneetako bilakaera kezkagarria, gure kultur gintzaren erreferentzialtasuna ahultzea, telebista bezalako elementuen krisia, eta erabileraren datuen estankamendua, nagusietako batzuk aipatzearen.

3.3 Faktore-multzo bi eta egiturazko mugak

Horren guztiaren atzean, edo faktore moduan, gauza asko sinplifikatuta, esan dezagun eragin eta munta handiko ingurune aldaketa bizi dugula. Mila adar eta elementu asko multzokatzeko esan liteke, batetik, gizarte-aldaketa azeleratua bizi

dugula. Hiperkapitalismoa ardatz duen hipermodernitateak eta horren globalizazioak dakarren gizarte-burubide aldaketak zentzu askotan eragiten dio hizkuntza gutxitu baten biziberritzeari. Besteak beste, atxikimendu-modalitatearen aldaketa dakar, belaunaldi berrietan eta ez hain berrietan. *Zapping*-gizarte bat dakar hiperkapitalismoak, menu zabaletan mugitzen den gizarte-burubide bat, atxikimendu ahulagokoa. Eta hori, iduri duenez, ez dator oso parean, hizkuntzaren aldeko aha-lerin bipilak oraindik ere atxikimendu eta konpromiso eutsiak eskatzen dituen garaian. Hori angelu mugatu bat besterik ez da gizarte-aldaketaren izaeran. Eta hipermodernitatearen ezaugarrien ildoko aldaketez gain, gurekin ditugu migrazio prozesuak, populazioaren zahartzea eta beste hainbat elementu. Asko luza gintezke gizarte-aldaketa global eta mendebalduen gurean duten eraginaz, baina utz dezagun formulazio horretan: gizarte-aldaketaren eragin askotarikoa daukagu batetik, eta teknologia-aldaketarena, bestetik.

Gizarte-aldaketaren alboan jarri behar dugu beste aldaketa-bektore hau: teknologia-aldaketa. Teknologia-aldaketak, beste hainbat gauzaren artean, kontsumoaren fragmentazioa dakar, denok ulertzen ditugun arazoengatik. Eta hemen badator gako bat: kontsumoaren fragmentazioak gizarte-fragmentazioa ere badakar.

Aldaketa-faktore handi hauei lotutako hainbat elementu euskararen biziberritzea bezalako komunitate-ahalegin bati hainbat aldetatik eragiten dio. Hizkuntza katalanaren behatzaileak ere ari dira hori esaten: globalizazioa eta digitalizazioa espero gabeko bi inpaktu direla katalan komunitatean, hizkuntza katalanaren bizi-indarrari. Galdera berriak dakarzkiela mahai gainera. Gurean ere, jakina, horrela ari da gertatzen.

Aipatzen ari garen faktoreen inpaktua ez da soilik gertatzen lehen aipatu ditugun adarretan, hezkuntzan, hedabideetan, kulturgintzan, eta arlo espezifiko horietan guztietan. Horretaz gain, aipatu dugun ingurune-aldaketa honek sustraian ere eragiten du: sustraian kokatu ditugun gizarte-aktibazioan eta, bereziki, kontakizunean, zeharka eragiten dute aldaketa horiek.

Aipatu ditugun faktore horiei gehitu behar zaizkie gure muga edo zailtasun estrukturalak. Edo alderantziz, gure zailtasun eta muga estrukturalen gehitu behar zaizkie globalizaziotik eta digitalizaziotik datozen faktore berriak. Gure egiturazko ezintasun, muga edo zailtasunez hitz egitea delikatua da, historia politiko gatazkatsutik gatozelako, eta muga horien aurreko jarrerari buruz eztabaida luzeek gure artean zatitu izan gaituztelako. Hala ere, ikuspegi soziolinguistiko urrutiratu xamar bat erabilita, euskararen komunitatearen muga eta zailtasun estrukturalak ez dira ahaztu behar, eta irakurketa politiko nahasietan sartu gabe, xaloki formulatu litezke. Batetik, gure hizkuntza-komunitatea zenbait lurralde politikotan desberdinetan banatuta daukagu. Euskararen komunitateak ez dauka estatu beregain bat bere lurraldean, eta zentzu horretan ez du hizkuntza-politika oso eta beregaina egiteko aukerarik. Hori da zapaltzen dugun lurralde politikoa. Bestetik, demolinguis-

tikaren arloan ditugun datuak direnak dira. Demografiaren egitura, iragan hurbileko migrazioak, egungo migrazio-fluxu bitarikoak eta bestelako faktoreak hor daude, eragile indartsu. Zapaltzen dugun zoru demolinguistikoak desafioak planteatzen ditu. Botere-egituraren eta demografia linguistikoaren muga eta zailtasun estruktural horien gainean kokatu behar ditugu egungo gizarte-aldaketa eta teknologia-aldaketek dakartzaten eraginak.

3.4 Eragiletzaz iruzkin bat

Egoeraren marrazki sintetiko honetan, eragiletzari ere begiratuko diogu oso laburki. Hizkuntzaren eragiletza antolatua bi esparrutan banatua daukagu: esparru administratibo-publikoan, eta gizarte ekimeneko erakundeen esparruan. Aurrerago sakonago arituko gara eragiletza horren egituraz, baina hemen faktore baldintzatzailer txiki bat soilik aipatu nahi dugu: edozein arlotan gertatzen den moduan, euskararen eragiletza antolatua *interes sortuen* sare bat ere bada. Ez hori bakarrik, jakina, borondate, ahalegin, eskuzabaltasun eta gaitasun handiko sarea baita, ezer baino lehen. Baina beste dimentsio hori ere badu, euskararen azpiegitura moduan sortu eta egonkortu diren euskararen inguruko erakunde eta sektoreek badituzte sektore-interesak ere, logikoa denez. Hau da, zuzenean edo zeharka euskaratik edo euskararen biziberritze-prozesutik bizi den edo soldata hortik ateratzen duen pertsona- eta erakunde-multzo bezala ere pertzibitzen da, eta sortu izan du mesfidantza puntu bat, bai arlo politikoan eta beste hainbat eragilearen aurrean. Gero, sektore horietan bada nolabaiteko ziliborkeriarako arriskua ere. Badira sektoreak euskalgintzan euskararen zilbor sentitzeko joeratzat transmititu izan dutenak.

Gauza horien jatorria eta logika ulertuta ere, euskalgintzako sektoreen nahi eta beharrak betetzetik askoz harago joan behar du hizkuntza-politikak eta hizkuntza estrategiak, eta baliteke, behin edo behin, hartu beharreko norabideak edota finkatu beharreko lehentasunak sektore edo erakunde batzuentzat desatseginak izatea ere. Ondorengo kapituluetakoa batzuetan aipatuko dugun moduan, euskal komunitatearen aktibo garrantzitsuenetakoa da azken aro luzean sortutako euskararen gizarte-erakundeen sarea, eta berori indartzea beharrezkoa izango dugu. Hala ere, kontzeptuen aldetik bereizi beharra dago, edozein arlotan, sektore-interesak zaintzea dela gauza bat, eta horiek bigarren mailan utzita, norabideei buruz modu orokorrean pentsatzea, beste gauza bat.

3.5 Indarguneen oinarria eta aukera-leiho bat

Egoeraren egituraren marrazki honetan, nolabait, gehienbat arlo kezkarriak izan dira orain arte aipatu ditugunak. Horrek distortsiona dezake aurreko kapituluan, ibilbidearen egitura aipatu dugunean, hartu dugun kokalekua, pesimismo aktiboaren eta optimismo kritikoaren arteko gaman. Egoeraren *ahulgune* eta *meha-*

txuen marra nagusi batzuei lehentasuna eman diegu kapitulu honetan. Hala ere, bidezkoa da seinalatzea indarguneak eta aukerak ere garrantzitsuak direla. Gure artean, Kike Amonarriz⁴ eta Patxi Baztarrika⁵ bezalako egileek seinalatu, aletu eta argudiatu izan dituzte modu egokian gure egoerak dituen indarguneak, bakoitzak bere ikuspegitik, eta ponentzia honi ere biek oharra egin diote egoeraren irakurketan alde positiboak ere modu esplizituan agertzeko. Ibilbidearen egitura lantzean aipatu dugun moduan, 60 urteko malda-igoeran egindakoak asko eta handiak dira, munduan aurrekari gutxi dutenak eta arlo batzuetan bakarrik, luze joko luke hemen berriro aipatzeak.

Hiru indargune besterik ez ditugu aipatuko. Batetik, hizkuntzaren ezagutza dugun joera gorakorra, bere ifrentzia ere izan arren, esanahi handikoa dena, eta aukera berriak sortzen dituen. Bigarrenik, euskal komunitatea kokatzen deneko gizartean euskarekiko dagoen pertzepzio-, sentimendu-, diskurtso-multzoa. Honek ere bere argi-ilunak dituen arren, eta zenbait lurraldetan bestelako errealitateak badaude ere, euskararen aldeotasunaren datuek pausoak planteatzerakoan lanerako zorua ematen dute. Hirugarrenik, hona arteko ibilbidean euskal komunitatearen geruza antolatuak pilatutako gaitasun teknikoa, hizkuntzaren inguruko pertsona-eta erakunde-multzoak duen gaitasuna, adar handietatik hasi eta arlo xeheetara, etorkizuneko politika eta estrategia berriak formulatzerakoan konfiantza-helduleku batzuk ematen dituen horiek aurrera eramateko ahalbideei buruz. Aipatu ditugun hiru indargune horiek eta gainerako guztiak kontuan hartuta, Patxi Baztarrikak aipatu izan duen moduan, potentzial handia sortu dugu. Beste kontu bat da, potentzial hori gauzatzeko gai izaten ari garen eta izango garen aurrera begira.

Egoeraren irakurketa honetan, ebidentzietatik harago potentzialaren esparruan sartuta, egokia da beste elementu bat ere aipatzea. Abagune historiko-politikoak irekitzen dio nolabaiteko aukera-leiho bat aipatzen ari garen gaiari, euskararen etorkizuneko politika eta estrategien arloari. 60 urteko biziberritze-aroa aipatu dugu, eta ohartu behar da aro horretako azken tarte luzean, edo ia aro osoan, euskararen aldeotasunaren zati soziopolitiko zabalenean estrategia politiko antagonikoetan zatituta jardun dutela. Jardun armatuaren faktore lodiaz gain, erakunde publikoak deslegitimatzearen eta legimitatzearen arteko lehiak erdi-erdian eragin dio euskalgintzaren jardunari. Familia soziopolitiko desberdinen lehiak jarraituko du, baina lehia hori jokaleku desberdinetan egitearen edota jokaleku berean egitearen arteko aldea handia da. Jardun armatuaren desagertzearekin sortutako egoera berriaren aukerak oraindik oso modu mugatuan landu dira hainbat arlotan. Hizkuntzaren

⁴ Ikus *Euskararen bidegurutzetik*, Elkar, 2019.

⁵ *Babeli gorazarre*, Alberdania, 2010 eta *Euskararen bizia*, Andoaingo Udala, 2020. Horiez gain, Baztarrikaren eskua funtsezkoa izan da Euskararen Aholku Batzordeak 2016. urtean onartutako *Eta hemendik aurrera, zer?* dokumentuan.

gaian, batetik, azpimarratu behar da kultura politiko desberdin anitzen nolabaiteko oniritzia behar duela hizkuntza-politikak eta norabideak. Bestetik, egia da, aldi berean adostasun horiek lortzeko ere garrantzitsua dela gidaritzea, eta bi mundu abertzaleen artean landu litezkeen ikuspegi partekatuetarako traba funtsezko batzuk desagertu direla. Euskaltzale garrantzitsuak kultura politiko desberdin askotan daude, baina kopuruetan euskaltzale eta euskararen eragile gehien dituzten bi kultura politiko abertzaleek aurreko aroan ezinezkoa izan dute haien arteko adostasun eta partekatze politiko zabal samar bat lantzea gai honetan. Hori normalizatzeak aukera-leiho berria irekitzen du. Aukera-leihoak, beste kultura politikoak ere tarteko direla hainbaten arteko adostasun zabalagoen akuilu moduan, nolabait arlo politikoan geometria aberatsago bat sortzeko aukera moduan. Kontua da, ponentzia honetan planteatzen den ikuspegitik, aurrerapausoak emateko premian gaudela, ez litzatekeela ona hurrengo legealdiak edota hurrengo hamarraldia pasatzea inertzietan, zalantzetan eta hizkuntzaren norabidean berrikuntza sakonik gabe.

Egoeraren egitura laburki marraztearekin bukatzeko, aitor dezagun jakitun garela egoeraren irakurketari buruzko adostasuna zaila dela. Ez dugu egoeraren analisi eta balorazioetan adostasuna lortzeko pretentsiorik. Badakigu ikuspuntuak bat baino gehiago direla, ez bakarrik aurreko kapituluaren gaian, ibilbidea baloratzerakoan, bai eta egungo egoeraren analisisan ere. Kritika, legitimazio, angelu, pesimismo eta optimismo-dosi desberdinak har ditzakegu honetan, eta horretarako tarte handia utzi nahi dugu guk egoeraren egituraz egin dugun sintesi labur honetan. Behar duguna da aurrera joateko sintesi eragile bat, eta egin behar dugunari buruzko oinarri batzuk partekatzea.

Eta egoeraren argazkiarekin bukatzeko, ikuspuntu desberdinek onar dezaketenen oharpen bat: gauza asko egin ditugu, eta balorazio desberdinak egin ditzakegu horiei buruz, baina orain arte egin duguna egitearekin ez dugu aurrera egingo. Gauza askotan ados ez egonda ere, esaldiaren azken zati hori gutako gehienok onets dezakegu, eta elkarrekin bidea egiteko bultzagile moduan erabili: orain arte egin duguna egiten jarraitzearekin ez dugu behar bezala aurrera egingo. Oharpen hori hartzen dugu abiapuntu eta akuilu, hurrengo kapituluetan jarraitzeko.

4. Eragiletzaren egitura

Etorkizun-ikuspegiaren ardatzetara joan aurretik, atal bat eskainiko diogu eragiletzaren egiturari. Angelu hau ez da asko landu izan euskarari buruzko gogoetetan, baina guri beharrezkoa iruditu zaigu, ondoren aletuko ditugun bisio-elementuen egitura ondo ulertzeko. Eragiletzaren egitura ondo kokatu gabe abiatzeak muga eta nahasmendu batzuk sortu izan dituela uste dugu, eta eragiletzaren egituraren ulermenean aurreratzeak, aldiz, garena hobeto ulertzera eta estrategia doituagoak irudikatzeraz eramaten gaituela.

4.1 Erakundetze-modu desberdinen dimentsioa


Hiztun-komunitateko eragiletza ulertzeko, eta, oro har, gure gizarte-errealitateak ulertzeko gizartearen irakurketa instituzional doitua behar dugu. Nola daude osatuta gurea bezalako gizarte bateko botere-egiturak? Gobernuak, estatu-aparatuak, enpresa pribatuak, korporazio multinazionalak, elkarteak, elizak, mugimenduak..., nola ordena ditzakegu zeharkatzen gaituzten antolakuntzak?

Oinarritzkoa da, honetan guztian, erakunde-moten bereizketa eta kategorizazio minimo bat egitea, jakinda ere sailkapen guztiak izan daitezkeela hobegarriak. *Kapitala*, *estatu* eta *gizartea* hirukoa analisisian bereiztea proposatzen dute zenbait ikuspegik, hainbat prozesu ulertzeko lagungarri. Hortik apur bat harago, iruditzen zaigu komeni zaigula erakundetze-motak ezaugarritzea, *publiko* versus *pribatu* banaketa binarioa gaindituta.

Hiru erakunde mota, hiru erakundetze mota, bereiz litezke, horien botere-iturriaren izaeraren arabera. Baditugu estatuan, estatu-aparatuan, oin hartzen duten eraketak, *publiko* moduan izendatzen ditugunak. Estatuak dute botere-iturri, eta logika publiko-administratiboak mugitzen ditu. Baditugu kapitalean oin hartzen duten eraketak. Kapitala dute botere-iturri, eta irabazizko logikak mugitzen ditu. Baditugu, hirugarrenik, bi logika (lukratibo edo publiko-administratibo) horiek ez beste logikak mugitzen dituzten eraketak. Gizarte antolatua esparruko erakunde moduan izenda ditzakegu. Azken horiek multzo oso heterogeneoa osatzen dute, bulkada, interes eta balio-logika askotarikoek mugitzen dituzte. Badira hiru erakundetze-mota horien arteko hibridoak, definizio zaileko guneak, konexio eta subordinazioak eta abar.

Ikus dezagun eskema-diagrama batean:

5. Irudia



Bereizketa guztiak diren moduan, problematikoa da banaketa hau ere, baina gauza gehiago argitzen du banaketa binario batek baino. Gure herrigintza ezin da ondo xamar ulertu hiruko eratze-modu horren arrazoibidea ulertu gabe. Eta, bereziki, gizarte antolatuko eraketen multzoa ulertu gabe.

Gizarte antolatuko eraketen esparru horren bizitasunak ematen du hein batean gizarte baten bizitasunaren neurria. Esparru horretan bulkada, interes eta balio-logika askotarikoak daude, denetik dago, eta horien barruan bereziki autoeraketaren dimentsioa aparte landu beharreko faktorea da. Euskal Herriak baditu berezitasun eta indargune batzuk zentzu horretan. Gizarte antolatuaren logikatik sortu eta gune hibridoetan jarduten duten eraketa eta erakundeen aldetik euskal lurraldean ditugun berezitasunak azpimarratu izan dituzte hemengo nahiz nazioarteko hainbat pentsalari eta adituk.

Garrantzitsua da hiru botere-iturri mota eta hiru logika mota horien izaera ulertzea, gure gizartearen erakundetze eta eragiletzak ulertu nahi baditugu. Hori apur bat kokatu ezean, besteak beste, ez ditugu gauzak behar bezala ulertuko gure hiztun-komunitatearen eragiletzaren historian, ez egungo errealitatean ere, ez etorkizuneko aukeretan ere.

Gure kasuan, euskararen kasuan, esan dezagun euskararen eragiletzan berariaz ari diren eragileak bi zirkulutan daudela. Batetik, hor dugu erakunde publikoen multzoa, hainbat lurraldetan eta hainbat erakunde-mailatan hedatua. Eta bestetik, hor dugu gizarte ekimenetik euskararen hausporako sortu eta gizarte zibileko gobernantza ereduarekin jarduten duen erakunde-sorta zabala. Lehen zirkuluak, publiko-administratiboak, tokian-tokian dagokion esparruko hizkuntza-politika egikaritzeaz gain, hizkuntzaren garapenerako berariaz sortutako edota hizkuntzan funtzio giltzarriak dituzten erakunde batzuk ere hartzen ditu bere baitan, hezkuntzaren arloan, hedabideetan, unibertsitatearen arloan, helduen euskalduntzean eta abar. Bigarren zirkuluan, gizarte antolatuaren esparruan, euskararen garabideetako adar ia guztietan daude berariaz euskararen azpiegitura moduan sortutako erakundeak: corpusaren arloan, hezkuntzaren arloan, helduen euskalduntzearen arloan, hedabideen arloan, kulturgintzaren arloan, aisialdi antolatuaren arloan, teknologiararen arloan, enpresa eta erakundeen euskalduntzearen dinamizazioaren arloan eta beste adar batzuetan.

Joko-banaketaren bidez jarduten du euskararen gaineko hizkuntza-politikak, zentzu horretan. Ibilbideari buruzko atalean esan dugun moduan, alde batetik gizarte-ekimenetik antolatutako erakunde-sortak eta, bestetik, sektore publikotik antolatutako erakunde eta tresnek rol osagarriak jokatzen dituzte, betiere hizkuntza-politika erabakitzeke eskumen legitimoa erakunde publikoek hartuta.

Zirkulu bakoitzaren garrantzia, autonomia eta legitimitatea ez dira gutxietsi behar, eta ez da gehiegi handietsi behar ere, gutako bakoitza kokatzen deneko gunearen arabera askotan horretarako joera logikoa badugu ere. Zirkulu bako-

tzak, eta horietako gune bakoitzak badu bere legitimitatea. Arlo publikoak badu bere legitimitatea, une honetan bizi dugun sistema politikoaren arabera dagokionna. Eta, aldi berean, bere mugak, botere publiko baten zereginei dagozkien mugak. Gure kasuan, bestetik, hizkuntza-komunitatearen lurraldetasun zatikatuak berak ere mugak seinalatzen ditu, ez dugulako, nolabait, lurralde osoaren ordezkaritza duen erakunde publikorik, eta erakunde bakoitzak dagokion lurralde zatian duelako eskumena, betiere estatuen arau eta bestelako dinamiken baitan. Beste aldetik, gizarte-erakundeei begira ere legitimitateaz eta mugez hitz egin dezakegu. Badute haien legitimitatea. Kasu batzuetan, hamarkada askotan egin dutenaren legitimitate historikoa, eta bestetik, haiei eusten ari zaion gizarte-zatiaren indarra. Mugak ere aitortu beharrekoak dira. Besteak beste, goraxeago aipatu duguna: erakunde horiek elkarteak, fundazioak edota enpresak izanik, modu legitimoan, sektore-interesak garatzen dituzte, eta guztiak ez dira beti derrigor interes orokorrak. Euskararen biziberritzetik zuzenki edo zeharka bizibidea jasotzen duten hainbat sektore ditugu, eta beste arlo askotan gertatzen den moduan, horiek interes partikularrak ere garatzen dituzte. Askotan, politikak pentsatzerakoan, sektoreei entzutea eta hauek parte hartzea garrantzitsua da oso, baina hauena ez da beti ikuspuntu fidagarri bakarra edo fidagarriena izaten interes orokorrak eta norabide berriak formulatzeko orduan, aipatu berri dugunarengatik. Arlo bakoitzak, beraz, bere legitimitatea, bere gaitasunak eta bere mugak.

Erakunde publikoen eta gizarte-erakundeen banaketa horretatik harago, bada beste gogoeta bat egin beharra. Bi zirkuluen artean oso erakundetze-dentsitate handia dugu euskalgintzan. Eta hori ona da. Batzuetan, ordea, amets-bulkada baten erakundetze maila handiak zeharka eragin dezake beronen iturria ahultzea. Hizkuntza biziberritzeko prozesuak badu eta behar du dimentsio bat: mugimendu-dimentsioa. Mugimendu batek aldeztzen duen eraldaketaren erakundetzeak askotan, paradoxa iduri, makaldu egin dezake mugimenduaren bulkada bera, funtzio guztiak kontuan hartu ez eta zenbait arlo lantzen ez badira.

Mugimendu sozial bat zera da: arlo bateko ametsa, arlo bateko utopia eta eraldaketa gizarteari proposatzen dion indar soziala. Zalantzarik gabe, euskararen biziberritzeak izan du mugimendu-dimentsioa, bereziki hasierako hamarkadetan, eta nolabait etengabe gaurdaino. Baina, esan dezagun, erakundetze bikoitz -sozial eta publiko- horren poderioz maila batean makaldu egin zaigu dimentsio hori, edo pisu espezifikoa galdu du teknifikatze beharrezko horretan. Horretaz eta horren beharraz zerbait esango dugu aurrerago.

4.2 Gizartea eta komunitatea

Euskara biziberritzeko eragiletzan kokatu beharreko beste banaketa garrantzitsu bat bada, edozein hiztun-komunitateren errealitatea ulertzeko funtsezkoa dena: gizartea eta komunitatea aldi berean bereizi, ulertu eta josi behar ditugula.

Euskararen garapenak bi ikuspegi horiek konbinatu eta txirikordatu behar ditu: gizarte-ikuspegia eta komunitate-ikuspegia. Gizarte-ikuspegian, trama elebidun baten kudeaketa demokratikoa egitea dagokigu, bizikidetzaren erdian jarrita, berdintasun- eta askatasun-printzipioak konbinatuz eta abar, nolabaiteko normalizazio baten bidean. Ikuspegi horrekin bakarrik, ordea, ez dira hizkuntzen dinamika erabat ulertzen eta gauzatzen. Hizkuntzak komunitate-dinamikak ere badira, eta biziberritzearen gako asko dimentsio horretan daude. Horrek gonbidatzen gaitu pentsatzera eta ekitera trinkotzeari buruz, hiztun osoak artikulatzeari buruz, motibazioa ekoizteko elementuei buruz, dentsitate-guneak, sorkuntzak eta beste hainbat konturi buruz. Ez dute zertan elkarrekin talka egin bi ikuspegiok, baina biak ulertu eta konbinatu gabe ez dugu asko aurreratu.

Sarrerako titular moduan, esan dezagun gizartearen dimentsioan gizarte-politikak pentsatu eta egitea dagokigula, eta komunitate-dimentsioan komunitate-estrategiak pentsatu eta martxan jartzea.

Gizartea da lurralde jakin batean bizi den jende-multzoa. Estatu propioen kasuan, nazionalitate agiriak edo pasaporteak determinatzen du, eta estatu propio-rik ez denean, nolabait, erroldatzeak. Lurraldeen mugak imajinarioak direnez, esan dezagun lurraldeko marra imajinario gorri batzuk marraturik bertan ezartzen den botere instituitu baten pean kokatzen den jende-multzoa dela «gizartea». Muga horietan ezarritako botere publikoari dagokio politika publikoak egitea lurralde horretan bizi diren guztientzat. Ez gara luzatuko horretan, «lurralde zedarritu baten barruan bizi, lan egin edota erroldatu direnek osatzen duten gizartearen» kontzeptua arrunta baitzaigu, berau izanik gaur egun «gizartea» kontzeptuari ematen zaion adiera nagusia, eta aldiotan erabiltzen den erreferentzia handia. Politikak, lurralde-mugek eta botere-markoek eratzen duten entitate sozial bat dela esango dugu: gizartea.

Komunitatea beste dimentsio-multzo bat da. Hizkuntzaren arloan gabiltzanez, kasu honetan, hizkuntza-komunitateaz ari gara. Soziolinguistikan, hizkuntzen bizia, funtzionamendua eta dinamika ulertzeko orduan, hizkuntza-komunitatea funtsezko kontzeptua da. Oinarrizko entitate soziala da. Entitate soziala, beraz, hau ere. Hizkuntzak aztertzeak agertzen duena da gauza asko ez ditugula ulertuko hizkuntza-komunitateen dinamika ezagutu gabe, entitate sozial horren funtzionamenduak ulertu gabe. Hizkuntzen azterketa sozialean agertzen den lehen ebidentzia da hizkuntza-komunitateak entitateak direla, politikak eta lurralde-zedarritzeak markatzen dituen mugetatik edo *gizarteetatik* harago. Hiztun-komunitateek lurraldeak zeharkatzen dituzte, gehienetan, ia beti. *Gizarteak* zeharkatzen dituzte, beraz, ia beti. Kasu askotan, lurraldeetan, gizarteetan, gutxiengoan daude. Munduan 7.000 hizkuntza inguru daudela kalkulatu da, eta estatuak ez dira berrehunera iristen. Datu xume horrekin, begien bistakoa da, hiztun-komunitateak eta lurralde-gizarteak entitate desberdinak direla, biak izanik entitate sozialak,

baina material desberdinekoak, dinamika desberdinekoak, eite desberdinekoak. Eite eta material desberdinekoak, baina elkarrekin dialektikan ulertu beharrekoak.

Pernandoren egiak esaten ari garela dirudi, gehienez ere oin-oharretan jartze-koak, baina gai hau jakitez eta naturaltasunez digeritzeko zailtasunak izan ditugu eta ditugu, oro har, gure artean. Hori ulargarria da hainbat gauzagaratik. Batetik, gora-go zeharka aipatu dugu modernitateak bere ideologiak ekoiztean, bai oin liberaleko ideologiek eta bai oin sozialistako ideologiek, hizkuntza, kultura eta identitate-dibertsitatearen gainean hutsune handia dutela. Beste modu batera esanda, modernitateak identitatearen gramatkarik ez du ekoiztu (askatasunaren eta berdintasunaren gramatikak ekoizten jardun duelako, nagusiki), oro har, ez da beste dimentsio hori bere utopia-goiburu nagusietan egon. Eta sozializazio politikoa ideologia horietan egin dugularik, euskal politikari, akademiko edo eragileari ere «gizartea» terminoaren familiako kontzeptuak soilik zaizkio onargarriak iruditzen: gizartea, norbanakoa, askatasun indibiduala, berdintasuna eta abar. Apur bat deserosoa gertatzen zaigu askotan «komunitatea» kontzeptua. Eta «komunitatea» diogunean ere, askotan «gizartea» esateko baliokidea denean bakarrik sentitzen gara guztiz lasai.

Izan, komunitatea, zerbait komuna dutenen multzoa da. Hedadura handiko komunitateen artean, pentsalari batzuen ustez gizakion lehen komunitate handia, gizakiok beste batzuekin hedadura handian komuna dugun gauzarik intimoen eta funtsezkoena hizkuntza da. Beste plano batean, lurraldea, lurralde markatu eta mugaz zaindua ere izan liteke elementu komuna. Eta beste eskala edo hedadura batzuetan, hainbat eta hainbat izan litezke komunitateak.


Faktore horrez gain, bada beste faktore bat ere, gizarte-ikuspegi soilaren gailentzean eta komunitate-ikuspegiaren ulermen faltan eragiten duena. Zerikusia izan dezake horrek herri honetan bizi izan dugun gatazka politikoaren albo-ondorio batekin. Euskal gizarteko bloke soziopolitiko esanguratsu batek Hegoaldean eragin duen trantsizio politikoaren bidea onartu ez eta gizarte-botere-marko jakin bat deslegitimatzea izan du helburu; botere publiko horri legitimitatea ukatzea. Ondorioz, beste aldeari, berauek legimitatzearen aldeko muskulua areago indartu zaio, eta borroka horretan, denek aldetik ere joera indartu da pentsatzeko gizarte-markoa soilik dela erreferentzia bakarra, bai markoaren deslegitimitatea seinالاتu eta iraultzea proposatzeko, edota bai beronen legitimitatea aldarrikatzeko. Tenka luze horretan, hizkuntza-komunitate horren ikuspegia distortsionatua eta gutxitua geratu da. Bestela ere modernitateak sortutako ideologia liberal nahiz sozialisten izaeragaratik hizkuntza-komunitatearen dimentsioa lausotua geratu ohi bada, gizarte-markoari buruzko tenka domestiko honek faktore bat gehitu dio hizkuntza-komunitateak eite eta dinamika berezkoak badituela ulertzeko zailtasunari.

Euskararen etorkizun-ikuspegiak ari den ponentzia honetan interesatzen zai-guna da bi esparru horiek, bi entitate sozial horiek, lurralde-gizartea eta hizkuntza-komunitatea dialektikan ulertu behar ditugula azpimarratzea. Horretarako, berezi-


ki, hizkuntza-komunitatearen eite eta dinamika batzuk ulertu behar dira. Hori ulertzea apur bat kosta egiten da zenbait sektoretan, lehen aipatu ditugun faktoreengatik. Baina hizkuntza biziberritzeko prozesu batean dena ez dira gizarte-politikak (lurralde markatu batean instituitutako botere politikoak egikaritzen dituen politikak), komunitate-estrategiak ere (askotan lurralde-botereen logikatik kanpo, edo horien baitan, edo harago, edo hauek zeharkatuz) existitzen dira, eta behar dira, hizkuntza-komunitate minorizatueta. Adibide bat jartzeagatik: ikastolak sortzea ez zen izan gizarte-politika bat. Komunitate-estrategia bat izan zen, hizkuntza-komunitate terminotan pentsatu eta egikaritutako jardunbide bat. Eta euskara batua sortzea ere bai. Garai hartan gizarte-politikak ez zuen amestitzen hori.

Hizkuntza-komunitateak egitura propioa du, hiltun osoak erdigunean dituen, eta bestelako hiltun-tipoak edo hizkuntzarekiko harreman-tipoak haiekiko harremanean kokatzen dituen, eta abar. Hizkuntza biziberritzeko proposamen teoriko-praktiko moduan erabili litezken bi paradigma nagusi hartzen baditugu, Joshua Fishmanena eta José María Sánchez Carriónena, biek⁶ hartzen dute aintzat hizkuntza-komunitatea, eta, oro har, soziolinguistika zabalagoan oinarritzko abiapuntua da. Hizkuntza-komunitatea ez da zehazki hiltun-komunitatea soilik, hizkuntzaren gaitasun-, praktika- eta harreman-maila desberdina duten pertsonen osatzen dute, eta zentzu horretan inklusiboa da, espiral irekia, hiltun osoak diren hiltun-tipoetatik hasi eta hizkuntzarekin nolabaiteko harremana dutenetaraino.

6. Irudia



Gizarte-politikak



Komunitate-estrategiak

Gizarte-politikak eta komunitate-estrategiak, beraz. Batetik, gizarte-politikak behar ditugu eta gizarte begiratuak behar ditugu, eta botere publikoen esparrua gizarte-politikak egitea da. Bestetik, hizkuntza-komunitateen dimentsio espirala eta lurralde zeharkatzailea ulertu behar dugu. Eta hizkuntza-komunitateen dina-

⁶ Ikus, haien lan nagusi bana aipatzearren, *Reversing language shift*, Fishmanena edota *Un futuro para nuestro pasado*, Sánchez Carriónena.

mikek bestelako elementu batzuk ere badituzte. Biziberritze-prozesuetan trinkotze-ariketak egin behar dituzte, hiltun osoen guneak osatu behar dituzte, motibazioen erreprodukzioa antolatu behar dute lurralde gainetik, eta abar. Bitasun eta osagarritasun hori ulertzea da etorkizun-ikuspegiaren gakoetako eragiletzaren egituraz ari garela. Bi begiratu horiek osatuta soilik uler dezakegu euskararen etorkizuna.

4.3 Kontakizunaren garrantzia

Hizkuntzaren biziberritze-prozesuan oinarritzko tresna eragilea da kontakizuna. Hainbat modutara izenda daiteke elementu hau: «diskurtsoa» aipatu izan da gure artean urte askotan, baina esango nuke egokiagoa dela «kontakizuna» kontzeptua erabiltzea, zenbait gauza hobeto azpimarratzen dituelako. Prozesu soziokultural eta soziopolitiko guztietan bezala, euskararen biziberritze-prozesuan ere, diskurtsoa, kontakizuna, narratiba, gakoa izan da, eta bai izango ere.

Beste hainbat elementuren artean, horrelako prozesuetako kontakizuna hainbat elementutan bana daiteke. Identitate-kontakizun bat, hasteko: nor gara? Iragan-kontakizuna: nondik gatoz? Abagune-kontakizuna: non gaude?, zer ari da gertatzen? Eta etorkizun-kontakizuna: nora goaz? zer egin behar dugu? Ponentzia honen gaia etorkizun-kontakizuna da, horixe osatzen du bisio-ariketa batek. Hori, ordea, kontakizun zabalagoaren barnean txertatuta egon ohi da prozesu sozialetan.

Azken urteotan munduko hainbat hizkuntza-komunitate gutxitutako eragileekin egindako lanetan ateratako ondorioetako bat da kontakizunean dutela arazoetako bat. Arazoa ez dutela soilik transmisioan, erabileran, ofizialtasunean, halako edo holako adarren estrategietan, edo administrazioaren halako edo holako politiketan. Hiltun-komunitateak bere hizkuntzaren inguruan duen kontakizunean bertan dagoela gaitzaren eta ezintasunen faktore nagusi bat. Eta hori dutela lehen lantegi. Haien kasuan, hizkuntzaren balio-deklarazioetan eta biktima sentipenean oinarritutako kontakizunetik harago, komunitatearentzat eta belaunaldi berrientzat motibagarri eta sinesgarria izango den etorkizun-ikuspegi bat ekoiztu ezean, egoeraren aurrean duten kontakizunaren herrenak jarraitzen du transmisioaren etena larriki areagotzen.

Gurean, sarreran aipatu dugu aurretik ernaldu eta duela 60 urte loratu zen prozesuan kontakizun-mutazio bat gertatu zela, eta, besteak beste, horrek ekarri gaituela egungo mailara. 2.1. puntuan aipatu dugu laburki biziberritze- aroa sustatu zuen kontakizuna. Gaur egun, kontakizun-multzo horrek baditu higitze-sintoma batzuk. Krisiaren parte aipagarri bat dugu kontakizunean duguna. Euskararen komunitateak hizkuntzaren biziberritzearen kontakizuna berregin behar du, berrosatu. Nor eta zer gara; nondik gatoz; zer ari da gertatzen; eta, batez ere, nora goaz.

Hemen aurkezten ari garen ponentzia hau erdigune harturik Euskararen Gogoetaguneak abiarazi duen prozesuan, kontakizuna berrerratzeari buruzko berriazko ponentzia bat formulatzea aurreikusten dugu. Ez gara, beraz, hemen

horretan sartuko. Elementu batzuk aipa litezke, hala ere, komunitate moduan egin beharko genukeen kontakizunaren berrerritze horri begira. Batetik, *a)* kontakizunak gezi forma izan behar du, eta geziaren aurrealdea etorkizun-kontakizun batek osatu behar du, bisio elementuek. Gorago aipatu dugun moduan, iragan-kontakizuna, nortasun-kontakizuna eta abagune-kontakizuna ere beharko ditu, beste hainbat elementurekin batera. Bigarrenik, *b)* ezin dugu esan biziberritze-aro hau abiarazi eta oinarritu duen kontakizuna amortizatua dagoenik. Sorta horretako hainbat elementu indarrean daude, eta baliatu beharko dira, ziurrenik; beste batzuk moldatu; eta beste batzuk alboratu. Hirugarrenik, *c)* kontakizunaz baino gehiago, kontakizun sortaz hitz egin beharko dugu aurrera begira ere. Enbor koherente batekiko nolabaiteko loturarekin, hizkuntza-komunitateko eta gizarte-geruza desberdinetan euskara biziberritzearen arrazoibideek adar eta forma desberdinak hartuko dituzte. Laugarrenik, *d)* kontakizun sorta horren barruan, erdiguneko diskurtsoaz gain, diskurtso erlazionalak landu beharko dira ideologia-ikuspegi, politika-ikuspegi, belaunaldi-ikuspegi eta bizipen-ikuspegi desberdinekin loturak eginez. Bosgarrenik, *e)* beste hainbat elementuren artean, bizikidetzaren arrazoibideak, batetik, eta hizkuntzen arrazoibide ekologikoak, bestetik, lanketa berariazkoa beharko dute kontakizunaren baitan. Eta seigarrenik, *f)* LH+2 bezalako formulazio⁷ berritzaileen garapen diskurtsiboa lantzeko aukerak aztertu behar dira, hizkuntzen gaineko arrazoibideen artean.

Ez gara honetan luzatuko hemen. Aipatu dugu kontakizunaren geziak aurrealdean etorkizun-kontakizuna izan behar duela. Zentzu horretan, hemen aurkezten ari garen ponentzia honetan badira, nolabait, kontakizun berrosatu baterako hazi batzuk. Baina kontakizuna berrosatzeak adar asko ditu, eta berariazko ponentzia bat eskatzen du horrek, aurrerago etorriko den lana.

4.4 Lurralde-banaketa eta eragiletza


Lehen egin dugun eragiletza-banaketari jarraituz, kapitulu honetako azken galdera izango litzateke nola joka dezakegun euskararen biziberritze-bisio honen eragiletza lurralde-banaketan kudeatzerakoan. Gauza jakina da botere-lurralde zatikatuan bizi dela gure hizkuntza-komunitatea, eta garbi dago ez daukagula baldintzarik eta ez apur batean izango ere, prospektiba politikoaren arabera gizarte-politika bakarra egiteko.

⁷ LH+2 formulazioak kontsigna sozial (eta beharbada instituzional) moduan zera adieraziko luke: zure lehen hizkuntza gehi beste bi lantzea dela formula egokia euskal edo europar herritar egoki bat izateko hizkuntza aldetik: zure lehen hizkuntza, lurralde edo inguru horretako beste hizkuntza bat, eta nazioarteko funtzioak betetzen lagunduko dizun beste hizkuntza bat ezagutzea, kasuan kasu. Formulazio horrek modalitate bat baino gehiago har ditzake, ertz eztabaidagarriak izan ditzake, baina lantzeko ildo zabala eskaintzen du. Mota horretako elementu diskurtsibo berrituek lekua izan dezakete, eta behar dute, kontakizuna eratze bidean.

Lurralde zatikatu horretan, batetik, komunitate-estrategiek zeharkatzaileak izan behar dute, lurraldez gairikoa, hizkuntza-komunitatearen egitura lurraldez gairikoa erantzuten diotenak. Gizarte-politikak, aldiz, tokian tokioak, lurraldean lurraldekoak. Bigarren horretan, gizarte-politiketan, esparruak eta mailak bereiztu beharko ditugu. Gizarte-politika aurreratuko lurraldeak izango ditugu, eta gizarte-politika apalagoko edo pausatugoko esparruak.

Zentzu horretan, eskema konbinatu bat beharko dugu: gizarte-politika mailakatuak, batetik, eta, bestetik, komunitate-estrategia zeharkatzaileak horien azpian/gainean edo horiekin batera.

7. Irudia



Esparru kontzentrikoen aldiberekotasuna planteatzen dugu bisio honi lotutako jardunean. Hau da, hizkuntzaren bisioa, estrategiak eta politikak pentsatu behar ditugu lurralde bakoitzaren baitatik eta, aldi berean, hizkuntza-komunitatearen osotasunetik. Ez bata ala bestea, baizik eta biak aldi berean.

5. Hurbiltzea


Etorkizun-ikuspegiaren ardatzak marraztu aurretik, eta aurreko kapituluetan oinarri batzuk jarri ondoren, esan dezagun marrazketa horretara nondik hurbiltzen garen, zer aldarte eta zer bulkadatan oinarritu gaitezkeen etorkizunerako mugimendu hori egiteko.

5.1 Errealitatea eta etorkizun-irudikapena hurbildu

Une honetan, euskararen biziberritzearen parametro nagusiei begiratuta, *gap* edo eten handiegia dago euskararen prozesuan irudikatu izan dugun helburu finalistaren eta une honetan gure egoerak ematen duen argazkiaren artean. Eten hori, batetik, kudeatu egin behar dugu, eta, bestetik, hurrengo mugimendua egiteko indar bihurtu behar dugu.

Bigarren kapituluaren, ibilbidearen egitura marraztean egindako bidea eta bere garabideak marrazteko zuhaitzaren eskema erabili badugu, ikus dezagun zuhaitz berean orain argazkiaren negatiboa, hutsune eta gabezia batzuk laburki sinplifikatuta.

8. Irudia



Lehen marraztu dugun zuhaitzean, argazki negatiboan corpusaren adarra haritzen badugu, ikus dezakegu adierazkortasun-arazo estrukturalak dituela gaur egungo euskaldunen multzo oso zabal batek, eta hortik erabilera posible baterako aukerak zailtzen direla. Hezkuntzaren adarrean, hezkuntzan ditugun estrategia-multzoak ez duela lortzen ezagutzatik erabilerara pasatzea; hau da, euskaldun osoak ekoizteko arazo serioak dituela hezkuntzak: euskaraz funtzio guztiak kalitatez betetzeko gaitasun-sistema osotua eta motibazio-sistema eratua duten euskaldunak nekez lortzen dituela euskal hezkuntzak. Helduen euskalduntzean, ikuspuntu negatibotik ikus dezakegu motibazio instrumentala nagusitzen dela arlo horretan. Euskal kulturgintzari digitalizazioaren fragmentazioak erasaten diola, eta euskarazko kultur sorkuntzaren erreferentzialtasuna apur bat gutxitu egin dela bai gizarte osoan, eta bai euskal hiztunen artean ere. Hedabideen arloan, euskarazko telebista kate publikoaren *share* kuotak adierazten duen moduan, garai baterako pentsatutako estrategia eta eskemek egungo egoeran arazoak dituztela ikusten dugu, digitalizazioaren fragmentazioak eta beste hainbat faktorek modu hazkorrean eragiten dutela. Aisialdi antolatua une honetan nagusiki ez-euskalduna dugula. Administrazioan euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa erabiltzeko prozesuan hamarkadak daramatzagula, baina asko falta zaigula, eta une honetan egoera orekatutik urrun gaudela arlo horretan. Lan-eremuan, esparru profesionala une honetan masiboki ez-euskalduna dela.

Adar nagusi batzuk aipatu ondoren, zuhaitzaren sustraiei begiratuta, argazkiaren negatibo honetan ikus dezakegu, gizarte-aktibazioari dagokionez, euskaigintza oso erakundetua eta sektoretua dugula, baina mugimendu-dimentsioa ahulduta dugula. Eta guztia elikatzen duen kontakizunaren arloan, berriz, biziberritze-prozesu honen hasierako kontakizun bipil hori ahultze-sintoma adierazgarriak ematen ari zaigula.

Ez dugu asmo berezirik hemen argazkiaren negatiboan tematzeko. Bigarren kapituluan, ibilbidearen egitura marraztean, eta hirugarren kapituluan, egoeraren egituraz aritu garenean, optimismo kritikoaren eta pesimismo aktiboaren arteko gaman irakurketa desberdinak integratu behar ditugula iradoki dugu, eta, edozein kasutan, gurea bezalako ponentzia bat ezin da ezkortasunetik abiatu. Argazkiaren negatiboa modu karikaturizatuan zirriboratu badugu, honetarako izan da: helburu finalistaren formulazioaren eta errealtatearen artean dagoen etena ilustratzeko. Adar eta sustrai nagusietan nola gauden ikusita, eta ditugun arazo lodiei begiratuta, oso urrun geratzen dira hamarraldietan helburu finalista moduan erabili ditugun formulazioak. «Euskal Herri euskalduna» edota «normalizazioa» bezalako irudikapenak urrun, urrunegi daude argazkiaren negatiboan marraztu dugun errealtatetik. Eten handiegia dago hor. Euskal Herri euskaldunaz nola hitz egin dezakegu? Eta normalizazioa, zer litzateke egoera «normal» batera iristea? Are gehiago, biziberritze-aroaren intuizioetakoa euskal hiztunek bizitzako funtzio guztiak euskaraz betetzera iristea bazen, eta horretara iritsi garelarik ere, egun digitalizazioak dakarren aukera, eskaintza eta funtzio leherketarekin, funtzio guztiak beti euskaraz egingo dituen hiztun eredu bideragarria ote da?

Hamarraldi hauetan ekarri ditugun zenbait helburu-formulazioekin ez da sinesgarritasunik mamitzen, ez dago fluxurik errealtatetik ametserako bidean. Zubia apurtu egiten da bien artean, eta horrela ez du funtzionatzen behar bezala ametsaren trakzioak. Guztiari eutsi behar dion eta prozesuak elikatu behar dituen kontakizunak, narratibak, eta bereziki kontakizun horren proiektzioak, indarra galtzen du.

Egora horretan, bi mugimendu egin behar ditugu. Batetik, helburu finalistaren koloreak berregin, helburu finalistak birformulatu. Norabiderik gabe, ametsik gabe, ez dira bizkortzen eraldaketa sozialak. Eta amets-norabide horrek, trakzio-indarra izatearekin batera sinesgarritasuna izan behar du, errealtatearen argazkian oinak jarri, eta errealtate horren posibilitateetara lotu. Helburu finalistak birformulatu behar ditugu, beraz, datozen 25-30 urteko aro honetarako. Eta beste aldean, errealtatearen aldean, pausoak eta jauziak antolatu.

5.2 Inpaktuak mugimendu bihurtu

Aipa ditzagun modu sintetikoan egituraren kapituluan aletutakoak. Bate-tik, oinarrian baditugu muga eta zailtasun estruktural batzuk, labor-labor aipatu ditugunak. Hizkuntza-plangintzan ez dugu eskura estatu-politika beregaina egitea. Hedabide-marko orokorra ere zailtasun esparru dugu egituraz. Erabilerarako desabantaila demolinguistikoak ditugu, Iñaki Iurrebasok berriki zehaztasun eta sakontasun handiz agertu dituenak⁸. Matematika bihurria dauka euskararen hiztun-komunitateak, zapaltzen duen lurraldean.

⁸ Ikus gorago aipatutako iturria.

Bestetik, aro berriak ekarri dituen inpaktuak ditugu, laburtzeko bitan bilduko ditugun inpaktu-multzoak. Globalizazioaren edo gizarte-aldaketaren inpaktua, batetik. Eta digitalizazioaren eta azelerazio teknologikoaren inpaktua bestetik. Biek ere, indibidualizaziotik, aukera-uhodetik eta komunitateen fragmentaziotik, gurea bezalako prozesuen oinarriari berari erasaten diotenak.

Egoera horretan, arrisku erreala dago 60 urteko prozesu hau lokazteko. Atzera joaten has gaitezke elementu delikatu batzuetan; besteak beste, kontakizunaren balioan, belaunaldiek euskararen ametsari hartzen dioten usainean, sinesgarritasun faltan, horrek eragiten duen ilusio-higatzean, eta abar.

Prozesu fisiko batzuetan, aurrera doan masa geratzen hasten bada, geratzen bada edota milimetro bat bada ere behin atzera joateko inertzia hasten denean, gero askoz zailagoa izaten da berrirori aurrera eragitea. Atzera joateko inertiak instalatu aurretik, erreakzio bat behar dugu. Une erabakiorrean gaude erreakzio hori artikulatzeko. Hori da hainbat zantzu eta datu soziolinguistikoren araberrako abaguneak une honetan eskatzen duena.

Hemen aldezen dugun etorkizun-ikuspegiaren jarrera bat modu grafikoa zera litzateke, inpaktu horiek, edo inpaktu horien kontzientzia baliatzea nolabait mugimendu martzial bat egiteko, arte martziala mugimendu bat eginez hankak lurrean sendago jartzeko. Arte martziala printzipioetako da bestearen kolpea probatea, gorputz-egoera zail edo konprometitu batetik norbere mesederako mugimendu bat ateratzeko. Irudi hori erabiliz, esango genuke sumatzen ditugun inpaktuen kontzientzia baliatu behar dugula oso ondo lurrean kokatuta ez geneukan hanka mugitu eta zoruan sendago kokatzeko. Hiru hitzetan esanda, bisio-terminotan mobilizatzeko. Inpaktu horien kontzientzia bihur dezakegu erreakziorako indar.

Horretara hurbilduko gara hurrengo kapitulan, erreakzio-multzo bat, erreakzio-egitura bat proposatzera euskararen komunitateari eta bere eragiletzari.

6. Etorkizun-ikuspegiaren ardatzak

Goazen ponentziaren erdiguneko atalera.

Aurretik esan dugunarekiko koherentzian, etorkizun-ikuspegiaren ardatzak arlo edo dimentsio desberdinetan marraztu behar dira, ez da politika publiko baten bisioa edo estrategiak marraztea bezain sinplea. Hori, asko izanik ere, zati bat besterik ez litzateke. Eragiletzaren egituraz jardun dugun kapitulan (4. kapitulan) esan dugun moduan, eragile diren erakunde mota desberdinak ditugu, batetik. Eta bestetik, gizarte-dimentsioa eta komunitate-dimentsioa bereiztu eta integratu behar ditugu. Hori kontuan hartuta abiatzen gara etorkizun-ikuspegiaren ardatzak marrazterakoan.

Hemen aipatuko ditugun ardatzak (pauso nahiz jauzi) modu elaboratu edo zabalagoan ekar zitezkeen testu honetara. Horietako batzuei buruz luzeago eta

zehatzago idatzi izan dugu, eta beste batzuei buruz, Euskararen Gogoetagineak abiatutako prozesu honetan bertan egile batzuk berariazko ponentziak landuko dituzte. Hemen, ordea, testu honen izaera sintetikoari jarraituz, adar bakoitza laburki aipatuko dugu.

6.1 Gizarte-politikak: ardatz-sistema

Gizarte-politikatik hasiko gara. Etorkizun-ikuspegiaren atal honetan gizarte-politikaren ardatzez hitz egitean lurralde-banaketa esan dugunarekin egiten dugu topo. Gehienbat, eta ñabardurak ñabardura, komunitate-estrategiek lurralde-zeharkatzaileak izan behar dutela esan dugu, eta gizarte-politikak, aldiz, lurraldean lurraldekoak. Horrek zailtasuna eransten digu gizarte-politiken ardatzak aurkezterakoan, bi arrazoiengatik: batetik, lurralde bakoitzaren begiraturik lehentasun-ariketak modulatu egiten direlako eta, bestetik, lehentasun edota ardatz bakoitzean ñabardura desberdinak sartu beharko liratekeelako lurraldeen arabera. Horretarako tarterik ez dugu hartuko hemen, ponentzia honen izaera sintetikoari jarraikiz. Ponentzia honen alboan landuko diren lurraldez lurraldeko beste ponentzien lana izango da hori.

Hala, gizarte-politikez aritzerakoan, politika hauetan aurreratuenak diren lurraldeen ahalbideen ikuspegitik marraztuko ditugu ardatzak, jakinik, aldi berean, euskararen lurralde osorako ardatzez ari garela ia kasu guztietan, erritmo eta modulazio askotarikoak kontuan hartuta. Horrela, ardatzak planteatzerakoan zera ari gara marrazten: ardatz-sistema bat, politiken matrize berri bat euskararentzat.

Bisio honek, gizarte-politikei dagokienez, azken 40 urteotan erakundeek landu eta garatutako hizkuntza-politikak hartzen ditu abiapuntu eta kasu askotan oinarri. Oinarri horiek aintzat hartuz, eta arlo askotan jarraikortasunaren beharra aitortuz, egoeraren egituraz aritu garen kapituluko oharpen nagusia dakargu erdigunera: "... baina egoera berri honetan, orain arte egindakoa egiten jarraituz ez dugu aurrera egingo". Bisio honetan, beraz, aurrekoa oso aintzat hartuz, aspirazio sendoa eta anbizio doitua duen eskema berritua marrazten da. Pauso eta jauzien bateria gurutzatu bat proposatzen da, aurreko kapituluan aztertutako abiapuntuekin koherentea dena, eta, guztiarekin, hizkuntza-politikarako matrize berritu bat proposatzen duena.

Eskema edo matrize berritu honen ardatzak aletzean, betiere gizarte-politikaren dimentsioan, bi kategoria bereiziko ditugu: pausoak eta ardatzak.

Arlo batzuetan pausoak eman behar ditugu. Orain arteko ildoetan sakonduz eta berrituz, ildo horietan beretan aurrera egin behar dugu zenbait arlotan, urratsak eman, estrategiak birpentsatu eta berritu. Ibilbidearen egitura aurkeztu dugunean marraztu dugun zuhaitzaren adar askotan dagokigu estrategiak birpentsatzea eta pausoak ematea.

Beste arlo batzuetan, pausoetatik harago, jauziak behar ditugula planteatuko dugu. Jauziak, alegia, orain arteko ildoetatik harago, ez bakarrik ildo horietan aurrera, baizik eta ildo horietatik harago eskala handiko operazio edo apustuak eskatzen dituzten arloak. Kasu batzuetan, arloko politikaren matrize-aldaketa eskatzen duten arloak dira, edota inbertsio publiko edo humano aipagarria eskatzen dutenak.

6.2 Gizarte-politikak: pausoak

Sei pauso-arlo garrantzitsu planteatzen dira bisio honetan. Has gaitezen pausoetatik, jauziak aurreragorako utzita.

6.2.1 *Corpusa*

Corpusaren arloan oinarriak sendo ditugu arlo askotan. Lan ikaragarria egin da aurreko hamarkadetan corpusaren araugintzan, terminologian hornitu xamar gaude, eta komunitate moduan eskertuak egoteko moduan gaude hori egin duten erakunde eta pertsonen. Hala ere, corpusaren arloan, edota zabalago hartuta hizkuntzaren baliabide-multzoaren arloan, aipatutako alorretan oraindik badiren hutsuneetan lanean segitzeaz gain, badira landu beharreko galdegai garrantzitsuak. Bada zer pentsatua, bereziki euskal hiztunen adierazkortasunari begira. Adierazkortasunaren mugetatik, edo hortik ere, ihes egiten digu, neurri batean, erabileraren likidoak. Euskaldun-multzo zabalen ahoetan euskarak kolore-arazoak ditu, beste batzuk hizkuntzaren jarotasuna edo dimentsio estetikoa deitu izan dutenaren aldetik, eta erdarekiko adierazkortasun erlatibo baxua gero eta faktore aitortuagoa da erabilerara begira. Euskararen Gogoetagunerako egoeraren diagnostikoaz Olatz Altunak eta Jon Aizpuruak egindako diagnostiko zehatzean esaten dute hiztun- multzo handi bati euskararen gaitasun kualitatibo makalak bete-betean eragiten diola bere erabileran. Hizkuntzaren potentzia espresiboa, kolorea, adierazkortasuna, faktore bihurtu zaigu. Horretan eragitea ere bada corpus-lana. Corpusa ez da soilik kontu linguistikoa, aldagai soziolinguistikoa dituen elementua da.

Erabaki beharko dugu, adibidez, hitanoaren lekuaz apustu bat egin behar dugun, gazte-hizketak une honetan duen problematikan baliabide interesgarria izan litekeen aldetik, gaztaroan oso baliagarria gerta baliteke hizkuntzari kolorea eta adierazkortasuna lantzeko. Beste gai lodi bat: zer egin behar dugu euskalkiekin? Nola esleitu eta mailakatu behar ditugu hizkuntzaren funtzio pertsonal, familiar, lokal, profesional eta nazionalak, erregistro desberdinen artean? Erregistro batu estandarra, euskalkiak, tokiko hizkerak eta erregistro mota desberdinak integratu eta banatzeko arrazoibidea landu beharra dago. Bestetik, jakina, orain arteko corpus-lan nagusiei jarraipena eman beharra dago, eta asko landu gabeko arloak garatu behar diren erabaki (azentuen irizpide onartuen gabezia galdegai izaten hasi da, adibidez, adimen artifizialaren bidez mintzatzaile ereduak sortzen ari direnentzat). Badago, guztiarekin, zer pentsatua corpusaren arloan.

6.2.2 Kulturgintza

2012an egindako ikerketa- eta bilketa-lan baten ondoren, hamar estrategia marraztu ziren, euskal kulturgintzaren etorkizuneko lan-ardatz gisan⁹. Ez dira martxan emanak izan, baina abiapuntu egokiak izan litezke euskal kulturgintzaren inguruko etorkizuneko jardunari buruz pentsatzeko. Hamar estrategia horien artean hitz egiten zen tokiko kulturgintza amateurraren sarea indartzearen eta artikulatzearen garrantziaz, euskal sorkuntzaren erresonantzia kutxa antolatzeke moduez, eta kultura-arloak ekosistema moduan antolatzeke estrategiaz, eta beste hainbat elementuri buruz. Ponentzia honetan ez gara adar bakoitzaren xehetasunetan luzatuko, baina esan dezagun baduela euskal kulturgintzak estrategiak antolatzeke beharra eta aukera.

6.2.3 Administrazio publikoa

Administrazioaren euskalduntzearen adarra ere garrantzitsua da, gero jauzie-tan aipatuko dugun lan-eremuaren osagarri. Langileen hizkuntza-profilean edo ezagutza-ziurtagirietan aurreratu den guztitik harago, eta hori oinarri hartuz, eus-kara benetan zerbitzu-hizkuntza eta gero eta gehiago lan-hizkuntza izateko bidean asko dago aurreratzeko, bai administrazioaren ohiko zerbitzuetan, eta bai osasuna eta polizia bezala herritarrengandik bereziki gertu dauden beste arlo horietan. Ponentzia honek planteatzen duen ardatz-sistema osoaren aurrerakada nabarmenean, administrazioaren adarrari ere hurrengo pauso argiak antolatzea dagokio.

6.2.4 Teknologia eta eremu digitala

Teknologia eta eremu-digitala garrantzi handiko esparruak dira euskararen garapen-mailan dauden hizkuntzentzat. Bereziki, hizkuntza-teknologiaren alorrak dakartzan eta ekarriko dituen aukera berriek neurri handian baldintzatu, aldatu, berritu edo antzaldutako dituzte hizkuntza-erabileraren egungo zenbait errealitate eta aukera. Adimen artifizialak hizkuntzen itzulpenean, generazioan eta abarretan izango duen inpaktuak espero gabeko ahalbideak irekiko dituela dirudi, eta horietako batzuk egun jadanik errealitate dira. Arlo horretan aktiboa izan da euskararen komunitatea, euskalgintzako hainbat erakunde adi eta martxan egon dira azken urteotan, eta oinarri ona dugu ildo horretan sortzen diren aukerak baliatu eta arriskuak saihesten saiatzeko. Arlo honetan tamainako inbertsio eta apustuak egitea beharrezkoa izango da datozen hamarraldi hauetan.

⁹ Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboa Gipuzkoan eta Euskal kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarriak, 2012. Sorguneak Ikerunea (MU). Gipuzkoako Foru Aldundia.

Gizarte-politiketako pausoen kategorian aipatu ditugun sei arlo horiez gain (ondoren aipatuko diren lau jauzi zentralak ere aparte utzita) badira, jakina, landu beharreko beste arlo batzuk. Ez du, beraz, seikote honek orokortasun-pretentsiorik. Ondoren datozen lau jauzi-arloen alboan lehentasunezko sei pauso-arlo estrategiko marraztea da atal honen helburua, baina gizarte-politiken atalaren sarreran esan

duguna kontuan hartuta: 40 urteotan egindakoaren oinarritik abiatzen garela, eta martxan diren jardunbide horiei eta hemen espreski aipatu gabeko beste guztiei jarraipena ematea hartzen dugula abiapuntu.

Goazen, ohar hori egin ondoren, gizarte-politiketako jauzien atalera.

6.3 Gizarte-politikak: jauziak

6.1. atalean esan dugu ardatzak bi kategoriatan banatuko ditugula, eta aurreko atalean aipatutako pausoak garrantzitsuak baziren, *jauzi* kategorietarako utzi ditugu eskala handiko operazio edo apustuak eskatzen dituzten arloak. Kasu batzuetan, arloko politikaren matrize-aldaketa eskatuko dutelako, edota inbertsio publiko edo humano aipagarria eskatzen dutelako. Jauzi horiek emango digute, aurreko ataleko pausoein batera, etorkizun-ikuspegiko ardatzen egitura nagusia, betiere gizarte-politikari dagokionez.

Lau jauzi-arlo handi planteatzen ditu etorkizun-ikuspegi honek.

6.3.1 Lan-eremua

Datozen hamarraldietarako lan-eremua apustu zentralen artean jartzeko hainbat arrazoibide nagusi badira. Arlo honetako jauzia, ponentzia honetako jauzi moduan agertzeaz gain, modu sakonagoan landua izaten ari da Euskararen Aholku Batzordean berariaz horretarako sortutako Lan-eremuk Batzorde Atalaren bidez, aspirazio handiko bisioan ari dira lanean, eta berorren marrazki teknikoan ere aurre-rapen aipagarriak egin dira¹⁰. Hori ponentzia honetara ekartzerik ez dugu, baina gainetik zirriborratuko ditugu arlo hau jauzi nagusietan jartzearen arrazoi batzuk:

Euskararen biziberritze-prozesuan funtsezko etena daukagu hezkuntza eremuaren eta lan-eremuaren artean. Gure herriak eta erakundeek inbertsio handia egin dute hezkuntza euskalduntzen sei hamarraldi hauetan, eta bereziki azken berrogei urteotan. Hezkuntzan euskaraz hezitako gazteek, ordea, masiboki erdal-duna den lan eremua aurkitzen dute. Horrek ere, testu honetan aipatutako beste hainbat faktoreekin batera, galga jartzen dio euskararen biziberritze-prozesuari. Premiazkoa da lan-eremuan hizkuntza-planak txertatzeari heltzea eskala handiko politiken bidez, euskararen biziberritze-prozesuak aurrera jarrai dezan eta geldialdian katea ez dadin. Belaunaldi apustu bat eta erakunde-apustu bat behar dugu abagune honetan. Lan eremua bezalako eskala handiko apustu bati heltzeak amets eta arnas berria dakar, beste hainbat arloren alboan, biziberritzearen ibilbidean egungo belaunaldi guztiei iparraren norabidea marrazten laguntzen diena.

¹⁰ Arlo Sozioekonomikoaren Batzorde-atal bereziak Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkurara 2024ko urtarrilean aurkeztu duen *Lan eremuk Plan Gidarirako ardatzak* dokumentua.

Egungo euskal hiztunen profilari begiratzuz, multzo handia da eskolan euskaldundu dena baina etxean eta gainerako ingurune guztietan erdara darabilena. Eskolako urteak pasa eta gero, horietako gehienei iraganeko hizkuntza bihurtzen zaie euskara, eskolakoa, eta harekiko konexioa galtzen dute. Lan-eremuan euskararentzat espazioak sortuta, horrek aukera emango die askori euskararekin duten loturari eusteko, birsortzeko, eta beharbada kasu batzuetan hortik erabileraren zirkulua gutxi edo gehiago osatzen hasteko beste funtzio batzuetan ere.

Hogeita bost urteko eskarmentu pilatua bada arlo honetan. Hizkuntza-planak bideratzen egindako urte horietan sendotu dira bi elementu funtsezko: *a)* enpresen hizkuntza-jarduna lantzeko metodologiak, eta *b)* metodologia horiek garatzen dituzten teknikariak, prozesuaren beso teknikoa. Hogeita bost urteotan hizkuntza-planak egin dituzten enpresen bideak erakutsi digu baliagarriak direla metodologia horiek erabiltzen dituzten printzipio eta balioak, eta kontraktasun gutxi sortzen dutela. Izan ere, ezagutza frogatuko duten titulu-eskaeretan eta derrigorrezkotasun zurrunetan baino gehiago, oinarri hauetan kokatzen dira metodologia horiek: progresibotasuna, pausoan-pausoan espazioak lantzen joatea; erabilera-ardatz, eta bereziki gaituta dauden pertsonen erabilera; borondatezkotasuna lehentasun, lortutako motibazioen gainean pausoak emanez; adostasunen gainean aurreratzea; izaera metodikoa, neurtua eta ebaluatua. Guztiarekin, enpresak, euskalduntzera baino gehiago hizkuntza kudeaketa konplexua egitera hurbiltzen dituzte metodologia horiek. Eta hori da, planteatzen den uhinaldi honetarako Euskal Herriko enpresetan zabaldu beharreko mezua: hizkuntza kudeaketa konplexua egitera deituak daudela lurralde honetako enpresak, munduko enpresa asko eta asko bezala.

Prozesu honetan, esparru handiko erakundeen gidaritzaz gain, udalek eta tokiko euskaltzale mugimenduek rol garrantzitsua dute. Tokiko animazioa, gonbita eta sustapena, pertsonatik pertsonara eta erakundetik erakundera egindakoa, beharrezkoa izango da enpresak prozesura gehitzeko. Hasieratik tokiko indarren eta oro har gizarte-ekimeneko erakundeen parte hartze aktiboa ondo kokatu behar dugu arlo horretan. Lan-eremuko esparru zabala segmentatu, lehentasunak ezarri eta segmentu bakoitzerako esku-hartze ereduak doituko dituen epe luzeko Plan Gidaria behar du arlo honek.

6.3.2 Hezkuntza ez-formala edo aisialdi antolatua

Gizarte-bizitzan leku aipagarria du haur eta gazteek eskola-ordu araututik kanpo egiten duten jardun antolatu guztiak. Oso esparru eta menu zabala da, gero eta zabalagoa, eta bizitzako atal esanguratsua hartzen du, bereziki haur eta gazteen urte erabakigarri horietan. Kirolaren mundu askotariko osoa, musika-formazioa, dantza, arte-hezkuntzak aisialdiko irteerak, udalekuak eta beste eskaintza mordo zabalak egungo gazte eta haurren egunerokoan leku esanguratsua dute.

Hezkuntza arautuaz bestelako lotura eta baldintzak ditu hezkuntza ez-formalak eta aisialdiak, eragin linguistikoari dagokionez. Eta hezkuntza arautuarekin batera beste hau ere ikuspegi soziolinguistikotik irabazpidearen bidean antolatzea eragin handiko jauzia izan liteke. Badu, gainera, jauzi horrek aldeko faktore bat: egingarritasun aski eskuragarria. Hezkuntza ez-formal hori neurri handian erakunde publiko, udal eta abarren laguntzapean egiten dela ikusirik, politika publiko linguistikoak kontuan izateko bideak antolagarriak dira. Eta, bestetik, orain arte ez bezala, edo orain arte baino gehiago, hezkuntza ez-formaleko edo aisialdi antolatuko begirale eta irakasle horiek euskal hiztunak izango dira, azken belaunaldietan ezagutzaren aldetik eman den aurrerakada handiari esker. Ez dugu ahaztu behar, gainera, arlo honetako sektore nagusi askotan (kirolean, adibidez), haurrekin dabiltzan begirale, entrenatzaile edo dinamizatzaileen adin-profila gaztea izan ohi dela.

Haur eta gazteen hezkuntza ez-formaleko eta aisialdi antolatuko hizkuntza-plan nazional edo orokor bat eratzea planteatzen du bisio honek. Besteak beste, bere baitan izango duena oinarriko kirolaren hizkuntza-plana.

6.3.3 Hedabideak

Hedabideen arloan etorkizun-ikuspegi honetan planteatzen den jauzia bere estrategiaren egiturako jauzia da: matrize-aldaketa. Hedabideen arloan apustu eta inbertsio handia egin da aurreko hamarraldietan ere. Garaiak, ordea, asko aldatu dira, eta aro bakoitzak bere aukera-leiho berezietan jarri behar du arreta, norabideak berritzeko.

Azken 40 urte honetan, eta bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan, matrize jakin bat izan du euskarazko hedabidegintzaren arloko gizarte-politikak. Matrize horren egitura indarrean dago oraindik, gizarte-politika horren diru-egiturak argi erakusten duen moduan. Egitura horrek, duela 40 urteko errealtatetik abiatu, apustu egin du esparru nazional zabaleko ikus-entzunezko eskaintzaren alde, eta horretarako hedabide-entitate publiko bat eratzearen alde. Telebistaren alorrean, hedabide horrek, telebista-eskaintzaren bidez, euskal hiztunen multzoari eskaintza erakargarria eskaintzea eta euskarazko aukera *sharean* zati esanguratsu edo duina izatea izan du ipar. Asmo hori gauzagarria eta neurri batean gauzatua izan zen aurreko mendeko azken hamarkadetan, gutxiago mende berriaren hasieran, eta krisi nabarmenean sartu da mendeak aurrera egin ahala. Apustu horrek euskarazko hedabidegintzarako diru-baliabideen, eta oro har euskalgintzarako diru-baliabideetako hamarretik bederatzi baino gehiago eskatu zuen hasierako hamarraldi haietan, eta berdin baliabideen hamarretik bederatzitik gora jasotzen jarraitzen du berrogei urte beranduago. Ez da hori kritikatzeko ematen den datua, konstatazioa baizik, gure hedabidegintzaren eskema ikusteko, gizarte-politika instituzional batean diru-kopuruek erakusten baitute politika baten bizkarrezu-

rra. Horrez gain, maila nazionaleko esparru horretan, antzeko eskema aplikatu da irratigintzan, eta prentsa idatziaren arloan, aldiz, gizarte-ekimeneko hedabideei diru-laguntzak eman zaizkie. Interneteko komunikazio-ereduek aldaketak ekarri dituzte goiko guztietara. Dena den, diru-kopuruek agertzen duten politikaren bizkarrezurrak aurrez izandakoa izaten jarraitu du, gutxi gorabehera. Eskualdeetako eta tokiko hedabidegintzak gero eta leku gehiago hartu du politika horiei buruzko diskurtso eta proiektuetan; hala ere, oro har, bigarren mailako apustu edo sektore *minor* moduan agertzen da erakunde handien diru-aurrekontu publikoen egituran.

Zalantzarik gabe, goitik behera aldatu da hedabide-ingurunea eta komunikazio esparrua. Digitalizazioaren fragmentazioak eta bestelako faktore sozial eta merkantilek ia ezinezko egiten dute une honetan 80ko hamarraldian pentsatutako matrizean arrakasta izatea. Euskal telebistaren katea ez da orain ikuslearentzat bost aukeratik bat. Lehertu egin da eskaintza, eta, adibidez, euskarazko kate jeneralista batekin *sharean* ehuneko aipagarri batera iristea ia ezinezkoa gertatzen da. Errealitate horren aurrean, eragile batzuk kexu dira, euskalgintzako ahotsetatik sarritan egiten den moduan, entitate publikoan gaztelerazko kateari ematen zaion pisu espezifikoe-gatik. Arrazoiak daude, ordea, pentsatzeko gobernuan alderdi abertzaleak dauden artean –haien kolore politikoa edozein delarik ere– EITBk gaztelerazko eskaintzak ez dituela ahulduko, hainbat arrazoi sendorengatik. Egoeraren analisiak, beraz, foku horietatik eta kritiketarik askoz harago joatea eskatzen du. Zinez zailtasun estrukturalak daude, gaur egun, esparru nazional handiko¹¹ euskarazko telebista-eskaintza jeneralista batekin audientzia proportzional handiak lortzeko. Euskarazko hedabidegintzaren matrizea bere osotasunean birpentsatu behar da jokaleku guztiz berri batean.

Matrizearen birpentsatze horretan, beste elementu batzuen artean, oharpen bat jarri beharko dugu erdigunean. Datorren aroan, esparru handiko komunikazioan euskara beti izango da gutxiengo txiki xamarra. Eta hala ere hor indarrak jartzen jarraitu behar da. Baina, begiratu zabalago batean, euskarak badu abaguneko aukera, une historikoari dagokiona, bestelako operazio bat egiteko: eskualdeko komunikazioaren lidergoa hartzea. Politika berri baten aldarte konstituyente batean jarritz, eta hainbat politika bideratuz, badira arrazoiak pentsatzeko helburu lorgarria dela epe ertainean euskarazko hedabideek eskualdeko informazioan lidergoa eskuratzea euskararentzat estrategikoak diren eskualde askotan, eta gainerakoetan eskualde guztietan funtzio kualitatibo garrantzitsua eskuratzeko.

¹¹ Adjektibo bakarrarekin «euskararen lurralde-esparru osokoa» adierazteko erarik ez daukagunez, «nazional» adjektiboa erabiliko dugu esparru zabal hori adierazteko. Hizkuntza-komunitatea adierazteko sozio-linguistikari batzuek erabili izan duten «nazio linguistikoaren» nozioari egiten dio hemen erreferentzia, eta ez nazio politikoari, azken gai hori txosten honetatik kanpoko eztabaida baita.

Baliteke hemendik hamar urtera horretarako ere berandu izatea, baina une hone-tan, oraindik ez da berandu horretarako. Badira eskualdeak, Debagoienekoa kasu, ibilbide sendo batekin, lerro editorial zinez partekatu edo zeharkatzaile batekin, eta audientzia datu egonkortuekin frogatu dutenak hori posible dela, formula sozial-publiko kogestionatuaren formularen pean, eta hedabide multimedia baten formatu guztiak batera landuz. Antzeko formulekin edo beste batzuekin euska-raren lurralde osoko eskualdeetan euskara gertuko komunikazioaren lidergoan posizionatzea euskararen matrize komunikatibo berri baten ardatz garrantzitsua izan liteke. Ponentzia osoan ikusiko dugun moduan, funtzio nazional eta nazioar-tekoei uko egin gabe, tokiko funtzioetan indarguneak zaindu, sortu eta sendotzea gako estrategikoa da, hedabideen arlotik kanpora ere. Eta hedabidegintzan espa-rru honen gidaritza hartzea, horrekiko koherentea izateaz gain, norabide horren ezinbesteko hanka da.

Eskualdeetako multimedien apustu estrategikoa ez da matrize berri baten ardatz bakarra, baina ohartzen gara matrize berrian ildo hori sendo sartzek, edota matrize berri bat planteatzek berak, kasu honetan beste arlo gehienu-tan baino gehiago, deserosotasuna sortuko duela. Interes eta zalantza politikoen, inertzia logikoen, interes sektorial eta korporatibo finkatuen eta abarren sare zaba-la nolabaiteko konfort egoeratik mugitzea lekarke. Hala ere, planteamendu honek ez du derrigor ekarri behar EITB apustuaren gutxitze bat. Aukera-leiho batean apustu historiko bat egiteaz ari gara, eta kalkuluen arabera, entitate publikoaren aurrekontuarekin alderatuz, zati nahiko txiki batekin egin litekeen apustua da. Bestetik, eskualdeetako komunikazioan lidergoa hartzearen apustu honek, jakina, bloke edo alderdi politikoen seriotasuna eta zintzotasuna eskatzen du, orain arteko egoeran posible ia ezinezko izan diren lerro editorial partekatuak eskualdeetako hedabideetan bermatzeko bideei buruz. Edozein kasutan, matrize berri batekiko erresistentziak ulertu arren, bisioa lantzeaz eta estrategiak birpentsatzeaz ari gara. Egoera marraztu dugun kapituluan, ondorioa atera dugu, berriro gogoratuko dugun moduan: «... baina orain arte egindakoa egiten jarraituz, ez dugu aurrera egingo». Teorian horretan gehienok ados etorri arren, norabide eraldatzaileak norberaren eskemak edo norberaren arloa ukitzen dutenean uzkurragoak izaten gara guztiok. Eta, hainbat arrazoiengatik, pentsatzekoa da hedabideen arloan planteamendu eral-datzaileen aurreko uzkurtasun horrek pisu berezia har dezakeela.

Matrize berri horretan, eskualdeetako aukera-leihoaren apustuaz gain beste-lako elementuak ere landu behar dira: fikzioa euskaraz jasotzeko estrategiak (itzul-pen azpituatuen aldeko apustuaren, bikoizketa politika indartsu baten, bertakoa indartzearen eta abarren arteko eztabaida eta tentsioak argituz, patxadaz, jakitez eta interes finkatuetatik harago), plataforma estrategia propio bat, euskal hedabideen arteko elkarlan eta sinergia arloak indartzea, adimen artifizialak hedabidegintzan eta fikzio-kontsumoan eskainiko dituen aukera berrien inguruko lan-ildoak, eta abar.

6.3.4 Hezkuntza arautua

Euskararen biziberritze-prozesuko zutabe nagusietakoa izan da eta da hezkuntza arautua, zalantzarik gabe, eta horrek aitorten berezia merezi du. Hala ere, elementu askoren analisisan zintzoak bagara, afirmazio deseroso batera iritsiko gara: gaur egun euskal hezkuntzak ez du lortzen, oro har eta sistematikoki, XXI. mendean hiztun osoak izango diren euskaldunak sortzea. Hiztun osoak lirateke hezkuntza horretako gaitasun-sistema osotua eta motibazio-sistema eratua duten hiztunak. Honetaz kasuistika, ñabardura eta eztabaida asko planteatu litezke, baina laburbilduz baieztatu liteke gure hezkuntza arautuak ez dituela ematen mende honetan hiztun osoak izateko behar adinako baliabideak. Baliabideak substantiboak da esaldi horretako gakoa. Ez gara hemen ari A eta B ereduez, horiengan jarritz ezintasunen pisua. D ereduan bertan, eredurik euskaldunenean bertan dago arazoaren muina.

Hezkuntza arautuari gauza guztietan gehiegi eskatzeko eta gizarteko arazo konponbidea haren gainean jartzeko joera dago, eta ez dugu hemen horretan erori nahi. Hala ere, goiko parrafoan egindako afirmazio horren bidetik, badu zer eraldatua eta hobetua euskal hezkuntzak XXI. mendean euskal hiztun osoak izango direnak sortzeari begira. Euskal hezkuntzak, arlo horretan, birmoldaketa sakona behar du. Euskal hiztun konpetente eta kontzienteak, aldi berean elebidun-egonak direnak, sortzeko bidean, orain arte egiten denaz gainera, beste hiru arlotan behintzat pausoak ematea eskatzen du egoerak: batetik, ikasleak (etorkizuneko herritarrak) hezkuntza-egoera konplexu batean kokatzeko hezkuntza sozio-linguistikoa, arrazoibidezko baliabideen lanketa; bigarrenik, gaitasun-sistemaren hobekuntza eta bereziki horren baitan adierazkotasuneko baliabideen lanketa; eta hirugarrenik, euskararen kultur fluxuan eta euskarazko kultur gintzan xertatzeko baliabideen lanketa. Bestetik, pausoak antolatu behar dira ikastetxeetako hezkuntza-proiektu integralen gaian, tokiko hezkuntza ez-formalarekiko loturan eta abarretan.

Duen pisu eta garrantziagatik lau jauzien atalean kokatu dugu hezkuntza arautuko jardunbidea. Goian esandakoek eskatuko dute euskal hezkuntzako irakasleen birmoldaketa prozesu bat eskala handikoa, ikasleen taldekatzeak pentsatzeko moduari buruzko gogoeta sakona, ikerketa eta berrikuntza-ildo berariazkoak martxan jartzea, eta, oro har, bereziki D eredu moduan ezagutzen duguna berriro aspektu askotan goldatzea.

Aipatu ditugun lau jauzi horietako bakoitza aletzeko berariazko ponentziak landuko dira Euskararen Gogoetaginean martxan jarritako prozesuan. Arloetako bisioak lantzeko gaitasuna duten eragile espezialista batzuei eskaturik, dagoeneko bidean dira ponentzia horiek, hemen azaldukoak zehaztasun handiagoz garatuko dituztenak.


Ikus dezagun lau ardatzen batura:

10. Irudia



Eta ikus dezagun lau jauzien eta sei pauso-arloen batura, ardatz-sistema:

11. Irudia




6.4 Arlo formalen zoruaz

Gizarte-politikaren dimentsioan bisio honek proposatzen duen ardatz-sistemak baditu irakurketa batzuk, aurreko puntuen lerro-artean irakur litezkeenak, baina esplizituki agertu nahi genituzkeenak. Bestek beste, mugimendu bertikal lateral bat egitea ere esan nahi du, nolabait termino espazialean adierazteko. Topaguneko Topalabe taldeak *Berrindartu eta jauzi* dokumentuan¹² diagrama bat landu zuen, bizitzako bi aro handiak eta funtzioetako bi arlo handiak gurutzatzen zituenena. Batetik, haurtzaroa/gaztaroa eta helduaroa. Beste koordinatuan, bizitzako arlo formal-antolatuak, eta arlo ez-formalak.

¹² *Berrindartu eta jauzi* dokumentua Topagunearen web-orrian dago.


I2. Irudia



Egungo egoera delikatuaren aurrean, eta errealitatearen zailtasun eta inpaktuen kontzientzia harturik mugimendu martziala eginez, zera planteatzen du jauzimultzo honek: beste hanka bat jartzea, lehen baino sendoago, formaltasunaren zoruan. Bigarren hanka hori, jakina, partzialki, progresiboki eta errealismoz jartzeaz ari gara, baina apustuaren zati bat horra bideratua dago. Hezkuntza- eta lan-eremuarekin bi oinarri formalak indartzen dira, eta hezkuntza ez-formala (jauzietan kokatu duguna) hibrido moduko bat da, dimentsio ez-formaleko arlorik antolatuenetakoa edo formalenetakoa.

Badakigu arlo ez-formalean daudela gako handiak, zailak eta gizarte-politikaren inpaktu-ahalbideei sarritan ihes egiten dietenak. Adibide xume bat jartzeagatik, esan dezakegu “gazteek beren egunerokotasun informalean edota Interneteko kontsumoan euskara erabiltzea lortu behar dugu”, baina nola bihurtzen duzu *desideratum* hori politika antolagarri eta eraginkor? Aurkeztu dugun ardatz-sistema norabide askotako eraginak maximizatzeko pentsatua dago, eta beti kontuan hartu behar dugu zein politika izan daitezkeen eraginkorrak. Gizarte-politikek antolagarritasun eta eraginkortasun irizpideei erantzun behar diete. Zentzu horretan, arlo formaleko bi aroetan (hautzarroan/gaztarroan hezkuntza arautu eta ez-arautuaren arloetan eta helduarroan lan-eremuan) oinarri indartsuagoa jartzeak indartu egiten du eskema osoa, inpaktuak jasotzeko gorputz-jarrera hobe ematen digu, eta hizkuntzaren zirkulazio osoa hobetzen du.

I3. Irudia



Sei pauso-arloen eta lau jauzi-arlo handien konkrezio-ariketa hau gizarte-politika baten eskema eragile moduan pentsatua dago, aro oso baten bizarrezur izateko. Baina ez da, inondik ere, gizarte-politikaren osotasuna islatzen duen eskema. Gizarte-politikaren atalaren sarreraren esan dugu ardatz-sistema hau ez dela orohar-tzailea, eta bestelako hainbat politika jorratu gabe geratuko direla.

Adibidez, biziberritzeko prozesuko jakintzaren edo ezagutzaren arloa antolatzea ere beharrezkoa da. Euskararen biziberritze-prozesuaren ikerketa estrategia bateratu bat sortzea eskatzen du, ezagutzaren arlo honetan, bisio honek, orain arte jakintzaren eremuan izan ditugun ordena eskasia eta hutsuneak bete eta arlo honetako ezagutza-lanak tresna eta baliabide egokiekin gidatzeko. Estrategia bateratu honek, zentro bateratu baten osaketan mamitu nahiz bestelako formulen bidez mamitu, elkarlanean lan egingo luke une honetan gai honetako ezagutzaren arloan ditugun eragile eta erakundeekin.

Gai hau bezalako beste batzuk ardatz-sisteman ez dira ageri, ardatz propio bat haientzat izendatzea gehiegi litzatekeelako, duten espezifikotasunagatik. Beste arlo batzuek, familia-transmisioa edo familiako erabilera kasu, ardatz-kategoria merezi lukete, ikuspegi soziolinguistikoan duten garrantziagatik. Baina ez ditugu pauso eta jauzien artean sartu, beste adar askorekin lotura dutelako, ardatz-sistemak zeharka eragiten dielako, eta berorietan berariazko interbentzio-politikek bolumen gutxiago dutelako, politika-multzo bat egiteko iheskorragoak edo lausagoak izanik.

Dena dela, bada arlo bat, atalaren bukaera honetan ardatz-sistema osatzera ekarri behar duguna. Ardatz-sistema nagusian sartu ez bada, duen izaera transbertsalarengatik izan da, jauzien laukotean eta pausoen seikotean lekuz kanpo geratuko litzatekeelako. Baina duen garrantziagatik orain ekarriko dugu. Dentsitate-gune edo arnaguneen arloaz ari gara.

6.5 Dentsitate-guneen arloa: Arnaguneen Politika Integrala

Joshua Fishmanek, hizkuntzen iraupen eta biziberritze-bidean, garrantzi berezia eman zien *breath space* deitu zituenei, gurean Mikel Zalbidek «arnagunea» izendatu zituenei. Zalbidek hainbat aldiz egin duen oharren arabera¹³, hizkuntza batek iraungo badu, behar-beharrezkoak ditu arnaguneak, lasai eta beste hizkuntzen mehatxurik gabe hizkuntza arruntasunez nagusitzeko inguruak. Azken aldian asko aipatu da gai hau euskaltzaleen artean, eta azken urteotan Iñaki Iurrebasok,

¹³ Ikus, bereziki, «Arnaguneak. Etorkizuneko erronkak» artikulua. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 2018.

ibilbide luzeko datuak eskuan hartuta, arrazoituta azpimarratu du arnaguneak zaintzearen garrantzia¹⁴.

Euskal hiztunen dentsitate handiko herriei deitu izan diegu gehienik «arnasgunea», udalerrri oso euskaldunei. Arnasgune geografikoak lirateke horiek. Hainbat ikerketak adierazi dute, azken garaian, gune horien bilakaera soziolinguistikoko okerrera egin duela euskararen ikuspegitik. Bildutako datuen eta bilakaera luzeen analisiaren arabera, joera estrukturala dela dirudi, hainbat arrazoiengatik.

Etorkizun-ikuspegi honetan aurkeztu dugun ardatz-sistemak badu haren osagarria den jardunbide zeharkatzaile baten beharra, zeharka atal batzuetan aipatu badugu ere, hemen argiago azpimarratzea nahi duguna: tokiko funtzioetan indarguneak sortu, bilatu eta finkatzea, eta horren baitan, indarguneak dauden lekuetan berauek zaintzeko estrategia berariazkoak sortzea. Horrek, arnaguneen garrantzia agerian jartzen du, baina ez bakarrik diskurtsoan, planteamendu estrategikoan baizik.


Hala, planteatu dugun ardatz-sistemari gehitu behar zaio beste ardatz zeharkako bat: arnagune geografikoak zaintzea, datozen hamarraldietarako Arnaguneen Politika Integrala diseinatu eta egikaritzuz.

Horren alloan, «arnasgunea» kontzeptuaren adiera zabalagoan, bestelako alor oso bat bada: arnagune edo dentsitate-gune funtzionalen arloa. Euskararen dentsitate-gune eta taupatze-gune moduan ari diren espazio funtzional (toki, erakunde, elkarte, kafe-antzoki, gune eta abar) ugariei buruzko jarduna gizarte-politikaren ikuspuntutik, eta dentsitate-gune edo erabil-gune berezi moduan planteatu litezkeen gune esperimentalen gaia. Dentsitate-gune horiek, Fishmanen oharren ildotik, funtzio onuragarria joka dezakete prozesu orokorrean. Dentsitate-gune funtzionalen politika bat ere diseinatu beharrekoa da, beraz, arnagune geografikoaren plan integralaz gain.

Arnasgune geografikoen eta dentsitate-gune funtzionalen gaian esan dugunak seinalatzen du beste gogoeta sakonago bat: euskararen nagusitasun mailaren faktorea oso garrantzitsua dela, eta indar asko nagusitasun gune horiek indartzean jarri behar genituzkeela. Nagusitasun-gune horiek indartzea, oro har, lurralde osoko euskalduntzeari egin geniezaiokeen ekarpen estrategikoa da, kostu/etekin erlazio-rik onena duena, eta hizkuntzaren bizi-indar orokorrerako ezinbestekoa. Ideia zeharkako hori kokatu behar dugu ardatz-sistemaren jauzi eta pauso gehienak (lan-eremuko planak, hezkuntza, aisialdi antolatua, etorkinen harrera linguistikoa eta abar) gauzatzerakoan.

¹⁴ Gorago aipatutako iturria, Iñaki Iurrebasoren doktorego-tesia.

I4. Irudia



6.6 Hizkuntza-politikaren izaera integralaz

Arnasguneetarako politika *integral* bat diseinatu eta egikaritzeaz jardun dugunean, kontzeptu deseroso eta zail bati ireki diogu atea. Iñaki Lurrebasok, bisio honen lehen zirriborroari buruzko kontraste-elkarrizketan, seinالاتu du dimentsio bat gizarte-politikaren atal honek kontuan izan beharko lukeena: hizkuntza-politikaren izaera integrala. Gurea bezalako hizkuntza baten egoerak eskatzen du, hizkuntza-politikarekin lotu ohi ditugun ohiko arloez gain, beste arlo batzuetako politikak ere hizkuntza-plangintzaren eremua kontuan hartuz egitea. Alegia, hezkuntza, kultura, hedabidegintza, teknologia, eta funtsezko elementutzat ditugun horiez guztiez gain, hizkuntza-politika batean, berez, eragin handikoak dira politika ekonomikoak, demografia- eta migrazio-politikak, lurralde antolamenduaren hautuak eta beste batzuk. Ur handietan sartzea da, baina honetarako ditugun mugak aitortuz, kontzienteki tratatu beharrekoa.

Hizkuntza-politikaren dimentsio orokor lodi horrek badu inplikazio sakonak dituen alde bat: politika ekonomikoa, migrazio-politika edo lurralde-antolamendua bezalako arloak ere hizkuntzarekin dugun desafioa kontuan hartuta pentsatu beharko lirakeke gurea bezalako egoeran dagoen herri batean. Argi dago, ordea, beste kapitulu batzuetan aipatutako muga estruktural horien harian, ez dugula hainbat politika modu beregain edo burujabeant antolatze modurik une honetan.

Arlo batzuetan, hala ere, eta mugak muga, herri moduan hizkuntzarekin dugun desafio berebizikoa ere kontuan hartuz hainbat politika modulatzeko aukera bada. Lurralde-antolamenduak, adibidez, eragin ukalezina dauka hizkuntza-dinamiketan, eta hori badago tokiko erakundeen esku. Hemen landu dugun etorkizun-ikuspegi honek bere ardatz-sisteman eta —hurrengo ataletan aipatuko diren komunitate-estrategietan jartzen du indarra— egungo jokalekuan izan dezakegun planteamendurik eraginkorrena eta politikoki adimentsuena izan litekeela sinetsita. Hala ere, hizkuntza politikak behar duen dimentsio integral horretara

ahalik eta gehien hurbildu behar dugu hurrengo aroan. Ditugun mugen barruan, horrek badu zerikusia datorren atalean aipatuko ditugun eragiletzaren baldintzekin, eta horien artean, hizkuntza-politikak izan behar duen kokapen instituzional transbertsal eta indartuarekin.

6.7 Eragiletzaren baldintzak

Planteatu dugun pauso eta jauzien bisio honek aurrerapausoa eskatuko du arlo politikoa: alderdi nagusi batzuen arteko adostasuna eskatuko du, euskaltzaletasunetik gertuen dauden alderdietatik hasi eta gizarte honetako aniztasunaren bloke nagusiak ordezkatzen dituenetara. EAEko Euskararen Legearen 40 urte betetzen ari garen honetan, adostasun hartan alde desberdinek egindako ahaleginaz, ordutik hona egindakoaz, ibilbideak eskatzen duen norabideaz eta une honetako egoeraz gogoeta egin ondoren, pentsatzekoa da hemen planteatzen den ardatz-sistema aurrera bultzatzeak adostasun berritua eskatuko duela. Uste dugu baditugula horretarako zuntzak.

Aurrerapauso politiko horretan, eta ardatz-sistema hau aurrera atera nahi badugu, bi erabaki instituzional garrantzitsu behintzat eskatzen ditu planteamendu honek: batetik, aurrekontua; euskararen biziberritze-prozesurako aurrekontu gehitze argia. Ardatz-sistema honetako pauso eta jauziek eskatzen duten aurrekontu doitua (edozein kasutan ere, gobernu baten aurrekontu orokorrean inpaktu handirik sortuko ez duena, baina jardunbideari nahikotasun arrazoituz erantzungo diona).

Bestetik, gizarte-politikaren dimentsioan proposatzen dugun ardatz-sistema honek, bere izaeragatik, eskatuko du hizkuntza-politika gobernu-politika zeharkatzaile moduan ulertzea, eta goreneko agintaritzatik zuzenean lotzea. Nolabait esateko, eskatuko luke dagokion erakundeko buruzagitza gore-nari edo lehendakaritzari lotua egotea hizkuntza-politika, eta kokapen horretatik izatea kultura-kontseilaritzan (edo kultura arloan) zuzendaritza bat, hezkuntza-kontseilaritzan (edo hezkuntza arloan) beste zuzendaritza bat, eta industria-enpresa-ekonomiako kontseilaritzan (edo arlo horretako agintaritzan) beste zuzendaritza bat. Ez dagokio ponentzia honi xehetasun instituzionaletan sartzea, baina nolabait ardatz-sistema honekiko koherentea litzateke hizkuntza-politikaren kokapen instituzional indartu eta zeharkakoan ere aurrerapausoak ematea.

Eragiletzaz ari garelarik, ardatz-sistema hau gizarte-politikaren arloan planteatzen denez, eta beronetako eragilerik legitimatuenak erakunde publikoak direnez, haiek dira bultzatzaile nagusiak. Baina gizarte-politikak ere behar du beste-lako gizarte-eragileen sostengua, parte hartzea eta bultzada. Zentzu horretan, eta aurrerago esango dugun moduan, euskararen mugimendu-dimentsioa indartzea ere eskatuko du gizarte-politikan eman beharreko pauso eta jauzien eskema honek.

Mugimendu-dimentsioaz aparte, eragiletzaren egitura azaldu dugunean agertu da euskararen azpiegiturretan zati funtsezkoa osatzen dutela euskararen gizarte-erakundeek, ekimen sozialetik sortutako euskalgintzako enpresa, fundazio, elkarte eta antolakuntza sareak. Sare zabal horretako eragileek ere ardatz-sistema honetako apustuek dituzten inplikazioak barneratzea ere beharrezkoa izango da. Eta horrekin batera, euskararen eragileen mapa berregin eta ordenatzea. Eragileen mapa aztertu eta ordenatzeaz ez gara hemen luzatuko, horretaz berariazko ponentzia bat lantzekotan baikara prozesu honetan.

Kapituluko atal-sorta luze honetan gizarte-politikaren dimentsioaz aritu gara, eta bereziki lurralde aurreratuenek garatu beharko luketen gizarte-politikarako ardatz-sistemaz. Horrek, ordea, pauso mugatua izango du, aldi berean komunitate-dimentsioan aurreratzen ez bada, komunitate-estrategiak garatzen ez badira. Horretaz arituko gara hurrengo atal-sortan.

6.8 Komunitate-estrategiez

Gizarte-politikarako ardatz-sistemaz aritu ondoren, datorren arorako komunitate-estrategia nagusi batzuei buruz jardungo dugu modu sintetikoan. Estrategia horien artean, elementu bat jarriko dugu lehenik mahai gainean: aro berri honetarako euskararen mugimendu-dimentsioa indartzea.

Euskararen mugimendu-dimentsioa indartu behar dugu aro honetarako. Eta hori baino aditz zehatzago bat ere erabiliko dugu: eratu. Euskararen ametsa gizarte-ari taupatuko dion gizarte-mugimendu askotariko bat eratzearen beharra aldeztu dugu bisio honetan.

Eragiletzaren egituraz 4.I. atalean jardun dugunean, aipatu dugu euskararen eragiletzak erakundetze maila handia lortu duela, bai arlo publikoan eta bai gizarte-ekimeneko erakundeen aldean; baina horren ifrentzu, euskararen mugimendu-dimentsioa neurri batean ahuldu egin dela. Datorren aro honetarako, euskararen biziberritzeak behar du euskararen mugimendu-dimentsio hori bizkortzea, funtzio hori beteko duen mugimendu bat eratuta. Aro honek eskatzen du euskararen gizarte-mugimendu bat doinu propioa izango duena, bloke politikoen diskurtso eta loturetatik bestelako doinua duena, gauza askoren besarkatzailea, sentsibiltate desberdin batzuk zeharkatuko dituena, beregaina, irekia eta zabala. Mugimendu bat, gizartean norabide bat, amets bat zaindu eta barreiatuko duena.

Hori ez da gorpila asmatzea. Izan ere, horixe da mugimendu sozial batek, edozein arlotakoak, egiten duena gurea bezalako gizarteetan: eraldaketa baten amets-norabidea plazaratu, sustatu, zaindu, komunikatu. Ez da berria euskararen biziberritze-prozesuan ere, jakina. Mugimendu-dimentsiorik gabe, komunitatearen nahiaren sustapen eta indartzerik gabe, biziberritze-prozesuak ez du aurrera egingo gizarte-politikarik onena eginda ere mota guztietako erakundeen bidez.

Joxe Azurmendik esan zuen moduan, munduaren norabidea eta botere handi guztien interesa ez doaz gure bidean; gure alde, euskararena bezalako ametsaren alde, “borondatea dago, beste ezer ez. Sinesmena. Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok”¹⁵. Mugimendu-dimentsioa etengabe izan da euskararen loratzearen osagaietako bat, gogoan har ditzakegu euskara elkarteen izaera edo Topagunea bera, mugimendu-osagaietara hurbiltzen dena zentzu askotan, edota Bai Euskarari kanpaina bezalakoak Hegoaldeko trantsizioaren hasieran, Euskaltzaindia bultzatzaile zela, Korrika bezalako jardun finkatuak, Euskaraldia, ikastolen jai handiak eta abar luzea. Hala ere mugimendu-dimentsio honek baditu ajeak: ziklo- nekea batetik, iraganeko aroko lotura politikoen heredentziak, sektore batzuetan sinesgarritasun mugatua, doinu zinez propio eta berri baten beharra, artikulazio falta. Aro honen hasieran, eta datozen hamarraldietarako gizarte-politikan proposatu dugun ardatz-sistemaren osagarri, euskararen amets berritua taupatuko duen mugimendu beregain, zabal eta doinu propioduna eratzea dugu lan-tegi. Mugimendu-dimentsio honen zeregin zentraletako bat euskararen norabidea eta ametsa taupatzea dela esan dugunean, jakina, kontakizunaz ari gara. Kontakizun bizigarri baten ahots izan behar du mugimenduak, ez ahots bakar, baina bai horren eragile. Jakina, mugimendu horrek, sentsibiltate politikoz askotarikoa eta zabala izanik ere, ez ditu inola ere estaltzen, biltzen edo agortzen euskararen eragiletzako indarrak, diskurtsoak, jarrerak eta posizioak. Konbinatu egin beharko ditugu gai honen inguruan eragile politiko eta sozial bakoitzak bere ahots eta posizio legítimoak garatzea, eta bestetik euskararen doinu besarkatzaile bat zabalduko duen mugimendu sozial baten artikulazioa. Hala gertatzen da gizarte-eraldaketako beste arlo batzuetan ere.

6.9 Komunitate-zuntzen garrantzia

Hemen eten moduko bat egingo dugu estrategien azalpenean, eta izaera soziologiko, antropologiko eta zentzu zabalenetan politikoa duen gogoeta bat tartekatu behar dugu, hurrengo estrategia batzuk kokatzeko. Oharpen bat gurutzatu nahi genuke, apur bat deserosoa izan daitekeena, bizi gaituen garaiaaren espirituaren kontrako norabidean doalako neurri batean, eta euskararen biziberritze-prozesuaren beraren uste batzuk mugitzen dituelako.

Egungo hipermodernitatean kokaturik, hiperkapitalismoari darion gizarte-aldaketa azeleratuaren baitan, norabide mota bat aski ondo deskribatu du azken aldiko soziologiak. Norabide horretan kokatzen bagara, etorkizun hurbilera begira ikus dezakegu teknologiak eta aukera-uholde digitalak gero eta gehiago zatikatutako gizar-tea, komunitate-zuntzak muturreraino ahultzera jotzen duen gizartea, gero eta oinarri

¹⁵ Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok elkarrizketa. Lorea Agirre, *Hegats* 45, 2010.

hiperindibidualago, diferituago eta globalizatuago-fragmentatuagoan. Fragmentazio horretan, auzo edo etxe-atarte bereko biztanleak sare bidezko munduko talde, afizio eta dinamika desberdinetan ari dira, elkarrekiko igurtzi erreal gero eta gutxiagorekin. Euskarak helduleku eta arrazoi gutxi du gizarte- logika horretan erreproduzitzeko. Gizarte-burubide horietan ez dirudi euskarak eta beste antzeko hizkuntzek etorkizun handirik dutenik, hemen azaltzea luzeegi joko lukeen faktore ugarirengatik. Kontrako argudioak ere eman daitezke, eta jakina da euskarak behar dituela gizarte-eredu gero eta fragmentatu eta globalizatu horretan ere aukera batzuk, eta badituela, eta errealitate konplexuan ezin dela analisi sinpleegirik egin. Baina analisi-elementu guztiak batera hartuta, esan liteke gizarte-paradigma hiperindibidualizatu eta hiperfragmentatuan ez dutela aurrerabide sendorik izango euskara bezalako hizkuntzek.

Badira arrazoiak pentsatzeko euskal komunitatearen etorkizuna, neurri batean eta ñabardura guztiekin izan arren, gertuko komunitate-bizitzaren etorkizunaren norabide berean joango dela, edo izatera edo agortzera. Bigarrena irentsiko duen zibilizazio-moduak lehenbizikoa ere irentsiko duela. Eta, alderantziz iradokitzaileago, lehenbizikoaren aldeko ametsak bigarrenaren aldeko zibilizazio-lehiarekin ere zerikusia duela. Horrek gauza askoren ikuspegiaren eskema aldatzea dakar, eta ez gara sartuko hemen hain ur handitan. Kontua da, euskararen biziberritzea gizartearen zuntz komunitarioa biziberritzearekin ere lotuta ikusteak ondorioak dituela estrategietan, lehentasunetan, apustu mota bakoitzak izan behar duen pisuan eta abar. Adibidez, kulturgintza enfokatzeko moduan eragiten du. Zenbateraino egin behar dugu apustua (bi apustuak egin behar ditugunez) kultura komertzialean, sarekoan, digitalean, eta zenbateraino egin behar dugu apustua gertuko komunitate-zuntza biziberritzen duen tokiko kulturgintza komunitarioan?

Gizarteko komunitate-ehuna zaindu, berrasmatu, berritu eta sortzearekin zerikusi handia izango du euskararen estrategia eta norabideak, angelu honetatik begiratuta. Ez hori bakarrik, berriro diogu, baina hori oso garrantzitsua izango dela dirudi. Gaur egun ere, analisi zintzoa eginda, euskararen motibazioa osasunez erreproduzitzen duten gune bakarretakoak komunitate-ehunaren kapital sozial horri lotuta erreproduzitzen dute.

Euskararen komunitateak, nolabait, pertsonari zera esango diola dirudi: «Globalitate birtualean euskararen ekoizpena marjinala, txikia, ia ezdeusa izango da, badakigu. Ibil zaitez globalitate birtualean, eta horretarako mundu osoa daukazu pantailetan, hainbat hizkuntza eskura dituzu. Baina euskararen komunitate lokalak beste gonbidapen bat ere egiten dizu: bizi herrian». Eta horretarako, munduan nabigatzeaz gain herrian bizitzeko, euskarak aukera bereziak ematen dizkizu. «Bizi herrian» horrek zirkulu kontzentriko desberdinetatik ditu heldulekuak: bizi auzoan; bizi herriko edo udalerriko harremanetan, taldeetan, jendarteetan, ospakuntzetan, ekintzetan, eta, zirkulu zabalenean; eta bizi Euskal Herrian. Eta, pentsatzekoa denez, «herrian bizitze» hori, dimentsio sozial, gertuko eta komunitario hori, gertatuko da

beste dimentsio global eta fragmentatu horrekin batera, konbinazio pertsonal desberdinen bidez. Gradu desberdinetan biziko dugu bata eta bestea, hautazko maila desberdinetan. Nahiko zurrta da dimentsio globalizatu horretan hizkuntza handiak erabiliko ditugula, edo haien iturritik datozen errealitateak izango direla nagusi. Euskara, zerbaiterako balio zinez garrantzitsu bat izatekotan, herrian bizitzearen dimentsio horretarako beharko dugu. Ez da hori euskararen zentzu bakarra, baina hori da euskararen zentzu zentraletako bat, balio itsasietako bat.

Ildo horretan, eta beste gauza batzuen artean, datorren aroan herrietako eta auzoetako euskal kulturagintza komunitarioa lantzea izango da zereginik behinene-tako bat, komunitate-estrategien aldetik. Jadanik herrien kapital sozial eta kultu-ralaren zati aberatsa osatzen duten abesbatza, dantza-talde, musika-talde, bertso-eskola, musika-eskola, antzerki-talde, jai-batzorde eta abarren sustapen, norabide-tze eta artikulazioak leku berezia hartu behar du. Tokiko kulturagintza komunitario amateurrean jadanik badira norabidea erakusten ari diren esperientzia, teorizazio eta gogoetak, bereziki Iparraldean. Iparraldeko hainbat eskualdetan kulturagintza komunitario amateur kalitate handikoaren pizkunde edo loratzea gertatzen ari da, eta Antton Lükü bezalako egileek haren oinarrien teorizazioa egin dute¹⁶. Hegoal-dean ere, Iruñean kasu, haien norabideari jarraikiz esperientziak zabaltzen ari dira. Beren mugatuan, aipatzen ari garen dimentsio honekin koherenteak diren estrate-giak erakusten dizkigute.

Kulturagintzaren kasua aipatu dugu, baina hortik harago ere, euskararen osabi-deak tokiko eta mota guztietako komunitate-ehunak zaintzea, indartzea, berras-matzea eta sortzea izan behar du kolore. Hori da iparra ikusteko angeluetako bat, gizarte-politikei baino gehiago komunitate-estrategiei dagokiena, eta hemen aurkez-ten ari garen etorkizun-ikuspegi honek bere baitan hartzen duena.

Esan dezagun, atal hau amaitzeko, aipatu dugun alde honek ez duela kentzen globalizazio hipermodernoaren marea nagusia aintzat hartzea. Zabalago hartuta, bi begiratuak beharko ditugu, bi oharpenak. Batetik, globalizazio azeleratuaren norabideak dakarzkigun eta ekarriko dizkigun aukera nahiz eskakizunei erantzute-ko argi ibili behar dugu -eta horri begira ere aipatu ditugu estrategia batzuk ardatz-sisteman-. Bestetik, taupada komunitarioaren behar eta aukerek ekarri eta eskatuko digutenaren ildoan ere kokatu behar dugu.

7. Helburu-iparren berrirudikapena

Modu sintetikoan aletzen ari garen etorkizun-ikuspegi honek berarekin dakar helburu-iparren irudikapen berri bat. Helburu-sorta bat jartzen du mahai gainean hurrengo bizpahiru hamarraldietako aroari begira.

¹⁶ Ikus *Euskal kultura?* eta *Libertitzeaz* liburuak. Pamiela, 2009 eta 2014.

Zein izan daiteke datorren 25-30 urteko aroaren helburu edo ipar irudikapena? Euskal hiztun osoen nukleo sendo bati oinarria ematea, hiztun osoen nukleo sendo hori erreproduzitu eta elikatzea. Hiztun osoak, alegia, euskararen gaitasun-sistema osotu bat, eta erabilera- nahiz motibazio-sistema osotu bat duten hiztunak. Hiztun mota horren nukleo sendo eta zabal bat osatzeaz ari gara, multzo horri oinarria ematea izango litzateke bisio honen erdiguneko ipar-irudikapena datorren 25-30 urteetarako.

Ipar-zentral horri erantsi diezaiokegu helburu osagarri bat: zenbait lurraldetan adin batetik beherakoen artean euskararen ezagutza unibertsalizatzaera iristea. Helburu hori ere ez da gutxiestekoa, baina esan dezagun ez dela hori ziklo honetako ipar-helbururik funtsezkoena. Batetik, horrek, nolabaiteko ezagutza unibertsalizatzeak, ez lukeelako inola ere ziurtatuko hizkuntzaren garapen osoa, eta edozein kasutan, euskararen zenbait lurraldetan hori lortzeko aukerarik ez delako izango 25-30 urteko aro honetan. Hala ere, zentzua du helburu osagarri hori ere formulatzeak, esparru geografiko batzuetarako. Aurreko atalean planteatu ditugun ardatzek ezagutzaren hedatzean ere eragitea dakarte: gune geografiko batzuetan ezagutza unibertsalera gerturatzea eta beste batzuetan ezagutza-tasak handitzea ekarriko dute. Bisioaren erdiguneko helburu-iparra, ordea, hiztun osoen nukleo sendoa osatzean jarri dugu. Nolabait, hiztun-komunitatea kiribil ireki moduan marrazten badugu, kiribilaren barrueneko geruzetan jartzen du indar gehien bisioaren helburu-irudikapenak, beste geruzetan ere nabarmen eragiteko bideak jarritz.

Euskal hiztun osoen nukleoa sendotzeak, berorri funtzio-sorta zentral batzuk ziurtatzea eskatzen du, euskaratik pertsona horien bizitzako funtzio zentralak indartzea eta egonkortzea. Funtzioak apur bat multzokatuta, ondorengo panoramara hurbilduko ginatke bisio honetan: batetik, tokiko funtzioetan indargunea izango eta bilatuko luke euskarak, bere oinarri sendoen. Planteatzen den bisio-logikaren eta estrategia-sortaren ezaugarrietako bat da tokiko funtzioetan indargunea bilatzea, horretan apustu berezia egitea, ingurune batzuetan tokiko funtzioak indartzea eta beste batzuetan lidergoa hartzea esparru horretako funtzioetan. Bigarrenik, planteatu behar da funtzio ofizialetan elebitasun erreala iristea. Eta hirugarrenik, funtzio globalizatueta kalitatezko nitxoak sortu eta mantentzea. Ziurrenik funtzio globalizatueta zaila da gurea bezalako hizkuntzetan hori baino gehiagora aspiratzea. Baina funtzio globalizatueta hori baino gehiagora aspiratu ezin badugu ere, apustua egin liteke hiruko honek (tokiko funtzioetan indarguneak, funtzio ofizialetan elebitasun erreala eta funtzio globalizatueta kalitatezko nitxoak) hirukote bizigarri bat osatu dezakeela datorren arorako.

Zentzu horretan funtzio eta espazioen matrize konplexu baten terminoetan pentsatu behar dugu etorkizunari begira. Etorkizuneko hiztunak irudikatzen badiugu, etorkizuneko hiztun-tipoak, marraz dezakegu horretan egongo dela gradazio bat edo mailakatze bat euskaraz bizitzeko hautuen gradu desberdinen arabera: hautu

sendoa edo leiala egiten duen nukleo sendo batetik hasita, hautu likidoagoa egiten duen multzo esanguratsu batetik pasatuz, euskara gauza jakin gutxi batzuetarako erabiliko duten multzo handi horietaraino. Hiru horiek baino gehiago eta ñabar-dura gehiagokoak dira, jakina, hiztun-tipoak. Lantzen ari garen etorkizun-ikuspegi honek, proposatzen dugun ardatz-sistema garatzearen bidez, hiztun-tipo horiei guztiei eskaini-eskatuko lizkieke nolabaiteko funtzioak, eta lekua, betiere ziurtatuz funtzio-sorta sendoa batzuei, eta beste batzuei gutxieneko batzuk emanez eta eskatuz.

Bide horretatik irudikatu behar dugu, adibidez, hemendik hamabost urtera, Durangon, Agurainen, Urruñan edo Beasainen biziko den euskaldun horrek zein funtzio beteko dituen euskaraz, nola egingo duen hori, eta nolabait bere jardun linguistiko guztien gaman zer ekologia egongo den —funtzio-gama bat izango baita gure jardun linguistikoa—, gama horretan zein egitura izango duen bakoitzak, eta non izango dituen bakoitzak bere heldulekuak horretarako.

Infografia bat landu dugu goian esandakoa ilustratzeko, adibide hipotetiko batzuen taula bat osatuz. Jakina, adibide bakoitza ausazkoa da, eta tarteko beste hiztun-tipo asko sar litezke taulan. Zenbait elementu grafikoki agertzeko egindakoa da, zehaztasunetan sartu gabe.

15. Irudia

	Hiztun sendoa arnasgunean	Hiztun sendoa hirigunean	Hiztun ertaina hirigunean	Hiztun partziala
Etxean				
Lagunartean				
Lanean				
Herriko/auzoko harremanetan				
Herriko/auzoko kultur bizitzan				
Eskualdeko informazioan				
Kultur kontsumoan				
Informazio orokorrean				
Internet-nabigazioan				

Ez dugu euskarazko erabilerarekin ontzi guztiak beteta duenik irudikatuko inongo profiletan; jakina, gaur egun ere euskal hiztun gotorrenok ez baikara funtzio guztiak beti euskaraz egiten ari, eta are gutxiago sareko, kultura-kontsumoko eta komunikazio digitaleko funtzioak biderkatu diren honetan. Hala ere, horrelako

matrize batek asko esan dezake. Ezkerretik gertuen dauden hiztun- tipoen kasuan, funtzio batzuk partekatuta izan arren, eta are, funtzio batzuetan euskara beste hizkuntza batzuk baino gutxiago erabili arren, kontua da pertsona bat hiztun osoa, hiztun erabatekoa, hiztun emankorra izan daitekeela funtzio-sorta nuklear batekin. Horren adibidea egungo hiztun osoetako askorengan mamitzen da, egunero.

Aldi berean, bisio honetako ardatzek gure gizarteko beste hiztun-tipo mailakatuerei ere ziurta diezaieke elikadura bat. Ardatz horiek garatzeak ekarriko luke beste hiztun-tipo guztiei ematea euskararen komunitatean gutxieneko lotura bat, gutxieneko hari bat. Hiztun-hautuaren gradu desberdinek osatuko dute gizartea, eta hiztun-komunitatea ere espiraleko kokapen desberdinek osatzen dute. Hemen landu dugun bisio honek ziurtatuko luke euskal hiztun izateko hautu sendoa egiten dutenek, bate-tik, erreprodukzio-sistema sendoa izatea; hautu sendo horretatik apur bat kanporago dauden erdi-mailako hiztun-tipoek funtzio inportante batzuetarako irispidea izatea; eta espiralean urrunen daudenen kasuan ere, gainerako geruza guztietan ere, pertsona horien funtzio bat edo bestetan euskarak presentzia erreala izatea.

Planteatu ditugun ardatzek aurreko parrafoan esandakoaz ehunka adibide jartzeko aukera ematen dute. Profil mota batek esan dezake «Nik euskaraz ikasi nuen eskolan, baina orain familian ez dut erabiltzen, lagun artean ere ez dut erabiltzen, nire bizitza lokal eta sozialean ez dut erabiltzen. Euskara ez da nire hautu-hizkuntza ia ezertan»; pertsona mota hori oso ugaria da gure hiztun- komunitatean eta gizartean. Bisio honetako ardatzen garapenak pertsona horri ere adierazten dio: «Ados, ondo, baina, begira, gaztetxoan futbol-entrenatzailea zara, eta hor duzu behar bat eta aukera bat euskarara lotzeko funtzio jakin batean. Edo lanean funtzio jakin honetan euskararekin loturatxo bat daukazu, eta eutsi beharko diozu. Edo tokiko informaziorik onena eskuratzeko, edota tokiko funtzio jakin batzuetan euskara izango duzu kode...». Bat hartzeagatik, gaztetxoan futbol-entrenatzailearen kasu hipotetiko horretan, beste ia ezertan ez eta gazteekin entrenatzaile-zereginak betetzeko euskara erabiliko duen pertsona horren kasuan, eskema honek euskarari ematen dio esparru bat; gizarteari eta gizarte barruko jendarte jakin horri ematen dio integratzeorako bide bat; eta pertsona horri ematen dio euskaratik guztiz ez deslotzeko lotura bat.

Zentzu horretan, adibide moduan, aurreko kapituluan aisialdi antolatua jauzien kategorian sartu dugunean, eta lurraldez lurralde aisialdi antolatua hizkuntza-plangintza orokor eta anbiziotsu bat planteatzen dugunean, horrek gainerako jauzi eta pauso guztiekin batera koherentzia bat hartzen du, bisio sare-tu baten barruan, adibidez goiko parrafoaren bukaeran futbol-entrenatzailearen kasuan aipatu ditugun hiru gauza horiek lortzekoari begira.

Gauza jakina da gero lurralde eta eskualde desberdinetan elebitasun- eta elea-niztasun-maila desberdinak egongo direla, eta hautu horien mailaketak ere desberdinak izango direla. Guztiarekin, etorkizun-ikuspegi honek erdigunean jartzen du

ziurtatzea 25-30 urteko aro honetan euskararen erreprodukzio-sistema indartzen dela eta, gradazio desberdinetan izanik ere, euskaraz bizitzeko hautua egin duen komunitatearen erdiguneko geruzari, euskaraz bizitzeko hautua egin duen komunitatearen nukleo zabal horri, batetik, bideragarritasuna eskaintzen zaiola eta, bestetik, bulkada elikatzen zaiola.

Euskaraz bizitzeko hautua egin duen komunitate-nukleoari bideragarritasuna eskaintzea gizarte-politikaren lana, gizarte-politikak lortu behar du hori. Bestetik, komunitate-nukleoaren bulkada elikatzea komunitate-estrategian zeregina da.

Planteatutako guztiarekin, 25-30 urterako aroan garatu beharreko ardatz hauekin, etorkizun-ikuspegi honek zera bilatzen du: euskararen komunitatea hurrengo arora sendo joatea. Alegia, 25-30 urteko aro honen ondoren etorriko den horretara sendo iristea. Hurrengo aroa diogunean, zertaz ari gara? Zer espero dugu eta zerk espero gaitu 2050. urtetik aurrera? Hori fikzio-politika eta fikzio-soziologia egitea litzateke. Gerta liteke inboluzio zentralizatzaile bat Espainian; gera liteke proiektu europarraren porrota; korapila daiteke sistema globala eta kolapso batera hurbildu, zibilizazioaren trantsizio traumatiko batera; gerta litezke burujabetzarako abaguneak; gerta litezke globalizazio mendealdarraren garaipen are handiagoak... Garbi dago ez dakigula zer letorkeen hurrengo aro batean. Plantea dezakegu, hala ere, datorren honetan, hastera goazen aro honetan, zapaltzen dugun zoru jakin honetatik hurrengo arora sendoago iristea, han hartu behar diren erabakiak sendotasun kultural eta demolinguistiko handiagotik hartzeko.

8. Etorkizun-ikuspegiaren ezaugarriak

Testu luzea aurkeztu dugu, arlo eta dimentsio desberdinetako estrategia ugari aipatu dira denera, eta beharbada lerro artean geratu dira proposamenaren ezaugarriak. Amaiera honetan aipatuko ditugu etorkizun-ikuspegi honek, gure ustez edo gure asmoz, dituen ezaugarri nagusi batzuk.

Oinarrian, errealismoaren eta aspirazioaren konbinazioa duela uste dugu.

– **Errealismo informatua**, batetik. Etorkizun-ikuspegi honek hanka bat lurrean du. Ahulgune eta mehatxuen analisi eta kontzientziatik abiatzen dira planteatutako ardatzak. Egoeraren egituraren kapituluan esan dugun moduan, demolinguistika konplexuan kokatzen gara, dugun gizarte-motan kokatzen gara, eta datozen hamarkadetako politikak eman dezakeela uste dugunaren ahalbide mugatuen zoruan kokatzen gara. Politikari dagokionean, ardatz-sistema berri batean pausoak eta jauziak emateko elkarrizketa eta pedagogia-fase berria aldeztu dugu, eta hortik etorriko den akordio berritua.

– **Marra berdeetan** oinarritzen den ardatz-sistema eta komunitate-estrategia-sorta planteatzen du. Ardatz-sistemako jauziak handiak izan arren, badute adimen politikoaren esparruko irizpide bat: pauso eta jauzien guneak ez ditu jartzen alder-

di edo kultura politiko nagusi batzuen marra gorriak izan litezkeen horietan. Jauzi eta pausoak oinarrituta daude euskararen biziberritzearen indarren marra berdeetan, horretan ditugun aurrerabide potentzial handietan, eta ez gizarteko zenbait indarrek marra gorritzat dituzten elementuetan, oro har. Adibide batekin esateko, hezkuntzan eman beharreko jauzian, eredu euskaldunenak hobetzeko ekinbideetan jarri dugu apustu handia, eta ez dugu lehentasuna jarri eredu erdaldunagoen desagertzean. Hala egin dugu, abiapuntuko azterketan zinez lehentasuna hori delako, arazoa hor dugu-lako, ponentziako analisisiekiko eta norabide gidariekiko koherentzian. Baina, bide batez, lehentasun larrikoak ez zaizkigun eta zenbaitek marra gorritzat dituzten elementuetan indarrak ez xahutzea eta akordio posibleak erraztea ere badakar.

– **Aspirazioa** aipatu dugu, errealismoarekin batera. Ardatz-sistema eta komunitate-estrategiak aspirazio edo anbizio handiz planteatzen ditugu. Pauso eta jauzi sorta bat da, inertzia asko aldatzera datorrena, akordio berriak eskatuko dituen, erakunde publikoei inbertsioak eta aldagetak eskatuko dizkiena, sektore batzuk deseroso sentiarazi ditzakeena, eta, oro har, energia instituzional, sozial eta indibidual handia eskatuko duena. Aldi berean, aspirazio doitua dela uste dugu, zaila denaren eta egin litekeenaren tarte horretan. Euskalgintzaren inguruan dugun potentziala, kapital humanoa, antolaketa-kapitala eta kapital instituzionala ezagututa eta aintzat hartuta, ardatz-sistema bideragarria dela esan dezakegu.

– **Erreakzio-egitura** bat planteatzen du, euskararen biziberritzeak bizi duen egoeraren kontzientziatik abiatuta. Kontrakoak izan litezkeen faktoreen oharpena baliatzen du jauzi-multzo baten kontzientzia zabaltzeko, ziurrenik bestela inertziaz eta egungo gogo-aldarte batezbestekoez emango ez genituzkeen urratsak emateko.

– **Barrutik kanporako** norabidea du hautu zeharkatzaileetako bat. Hiztun-komunitatea espiral ireki eta inklusiboa izanik, haren osotasunera iritsiko diren ardatzak planteatzen ditu. Badu, ordea, horretarako hautu estrategiko bat ardatz batzuk (ez guztiak) ukitzen dituen: gunerik sendo eta osatuenak zaindu eta hedatzeari ematea behar duen pisu espezifiko, osabidearen berme eta irradiazio-gune moduan. Komunitatearen kiribilaren barruko gune horiek zaindu eta indartzea berebizikoa da. Barrutik kanporako norabide honen beharra ageria da egungo errealitate askotan, eskala handi nahiz txikian: enpresen hizkuntza-eraldaketen metodoan, kulturgintzan, erabileraren dinamiketan eta abarretan etengabe ikusten da norabide horren beharra, soziolinguistikaren ikuspuntutik sanoen dagoena indartzetik hasten dena. Hortik harago, tokikotasunaren izaera estrategikoak (hedabideen matrize berrian erdiguneari jarri dugunak, adibide bat emateagatik), arnaguneen garrantziak, eta, oro har, osasuntsu egoteko aukera gehien duten guneen, esparruen, sektoreen, tokien zaintza eta hedapenetik abiatzearen norabideak zehakatzen ditu ardatz hauetako asko.

– **Irudikapen malgua** egiten du etorkizunaz, euskal herritarrari hizkuntza desberdinak funtzio-gama batean hedatuko zaizkiola aurreikusten du, erabilera-eremuen arteko matrize konplexu batean kokatzen du euskararen erabilera. Hor,

euskararen hautu sendoa egiten dutenentzat funtzio giltzarriak ziurtatzeaz gain, bestelako hiztun-tipoentzat ere funtzio-gama jakin baten eskaintza eta eskaria ematera bideratzen du bere ardatz-sistema.

– **Zubia egiten** du belaunaldien artean, belaunaldi gazteenei garatze-espazio berriak irekiz. 60 urteko ibilbide bipilaren uhara, amets-indarra eta partzialki bizi-rik duen kemena hartzen ditu, horien jarraidura positiboan oinarritzen da, eta aldi berean eskema asko aldatzeko bidean jartzen ditu, koska-igoera ezezagunak planteatzen ditu (ardatz-sistemako jauzi eta pauso batzuetan, ia dena dago egiteko, eta nola egin asmatzeko), espazio handi berriak irekitzen ditu belaunaldi berrien protagonismoarentzat.

– **Ardatz antolagarri konkretuen** arabera formulazioa dauka, eta ez helburu abstraktuen arabera. Sarritan Plan Gidariaz pentsatzean formulazio abstraktuetara jotzen da, “gazteen euskarazko kontsumoa bultzatu” edo “Interneteko erabilera gehitu” bezalako epigrafeak goiburua jarritz. Horrek bere zentzua badu ere, etorkizun-ikuspegi honek ez du hortik jotzen. Politika-ardatzen konkretutasuna hartzen du metodo gisan. “Gazteen aisialdian euskara gehitu” ez da plan konkretu bat. “Oinarritzko kirolean euskara txertatzeko plan nagusia”, aldiz, bai. Bigarren formulazio-motaren aldeko hautua egin dugu bisioan, adarretako plan zehatzak martxan jartzeko, ardatz-sistema baten egituraren bidez.

– **Artikulatua da.** Batetik, gizarte-politiketako ardatz-sistema artikulatua proposatzen duelako, eta hori komunitate-estrategiekin osatzen duelako. Bestetik, ponentzia hau artikulatzen da prozesu berean eraikitzen ari diren ponentziekin. Ponentzia hau diagnostiko-ponentziaren segida da, eta prozesuko erdiguneko ponentzia izanik, sistemako adar bakoitza garatuko dute bidean diren beste ponentziek. Adar bakoitza garatuko duten ponentziek gain, etorkizun-ikuspegi honek alboan behar duen kontakizun-berritzeari buruzko ponentzia, eragileen mapari buruzko ponentzia eta lurraldez lurraldeko etorkizun-ikuspegi egokituen ponentziak aurreikusten ditugunez, haiekin lotzeko helduleku eta hutsuneak utzi ditu ponentzia honek.

Guztiarekin, eta osotasunean koherentzia hartzen duen proposamena izanik ere, gizarte-politikako ardatz-sisteman, ardatz osagarrietan nahiz komunitate-estrategietan aldaketak, ekarpenak eta zuzenketak egiteko irekita planteatzen dugu.

9. Hondar-solasa dokumentu honen erabileraz

Hemen egindako lanketa, neurri eta zati batean, elkarrizketa-prozesu politiko bat martxan jartzera begira egina dago. Horretaz ez dugu gehiago esango, sukalde-lanak, etxe barruan eta zaratarik atera gabe egin behar direlako.

Beste neurri eta zati batean euskararen gizarte-erakundeetako eragileengan gogoeta eragitera bideratuta dago. Eta, bigarren atal honetan, nagusiki euskararen

norabidea taupatuko duen gizarte-mugimendu zeharkatzaile bat eratzeke norabidean eragitera.

Hirugarrenik, hiztun-komunitateko mota guztietako eragileen eztabaidara irekita dago, zerbitzu-aldarte batekin egina denez, aurrera begira norabide egokiak bilatzeko bidean.

Azkenik, ohar garrantzitsua. Euskararen Gogoetaguneak ireki duen prozesu honetan, ponentzia hau nolabait abiapuntuko eta erdiguneko ponentzia moduan planteatu dugu. Baina honen alboan eta honekin batera, atalka ponentziak martxan daude, batzuk jadanik bukatuak, beste batzuk bidean. Ondobidean, horiek osatuko dituzte hemengo hutsune batzuk, airean geratutako galdera asko, bisualizatzeko zailak diren konkrezio batzuk, ñabartu edota zuzendu beharreko aspektu batzuk. Modu monografikoan ponentzia honetan landutako ardatz-sistemako ardatz bana sakontzen dute ponentzia horietako gehienek, beste batzuek etorkizun-ikuspegiak behar duen kontakizun edo diskurtsoa bezalako elementuak landuko dituzte, eta azkenik, beste batzuek etorkizun-ikuspegiaren lurraldez lurraldeko begiratu.

Hala, nolabait, eskuan duzun ponentzia honetatik harago, koherentzia baten baitako ponentzia-multzo zabala izango da, azkenean, Euskaltzaindiaren Euskararen Gogoetaguneak eragileen eskura jarriko duena, eztabaidarako eta aurrerabiderako ekarpen modura.

ETORKIZUN-IKUSPEGIA: AISIA ETA HEZKUNTZA EZ-FORMAL ANTOLATUA

Iñaki Arruti Landa

I. Aisia zedarrituz.....	101
I.1 Jarduera-mota	101
I.2 Adina.....	101
2. Logika soziolinguistikoa	103
2.1 Hizkuntzaren indarberritzeaz.....	103
2.2 Oinarrizko printzipioak.....	105
2.3 Hitzunaren sozializazioaz.....	107
2.3.1 Bi logika, pausoak eta jauziak	110
2.3.2 Ahal dute eta komeni zaie.....	111
2.3.3 Esku-hartze berrituak	112
3. Jauziak.....	112
3.1. Gizarte-politiketan	113
3.1.1 Arnasgune soziofuntzional bihurtzea adostea.....	113
3.1.2 Zeharlerrotasunezko hizkuntza-politika integratu baten bidez bideratzea	113
3.1.3 Hezitzaileak hezteko fabriketan birmoldaketa linguistikoa egitea	114
3.1.4 Etorri berrien bertakotzea	115
3.2 Komunitate-estrategietan	115
3.2.1 Hitzun eragileen ugaltzea.....	115
3.2.2 Etorri berrien bertakotzea	116
4. Pausoak.....	116
4.1 Gizarte-politiketan.....	116
4.1.1 Euskarazko jarduerak areagotzea.....	116

4.1.2 Euskaratik pentsatutako babesguneak sortzea.....	I17
4.1.3 Pedagogia egitea	I17
4.1.4 Aisialdirako edukiak sortzea	I17
4.2 Komunitate-estrategietan.....	I17
4.2.1 Euskaratik pentsatutako babesguneak eraikitzea edota areagotzea.....	I17
4.2.2 Aisialdia landuko duen euskalgintza saretzea	I18
5. Bi hitz eta bide bat	I18
6. Bibliografia.....	I19

I. Aisia zedarrituz

Txosten hau idatzi da, Euskaltzaindiko Gogoetagineak eskatuta, aisia deitu ohi diogun eremu horretako etorkizun-ikuspegia lantzeko. Hemen jasotako proposamen askok Udaltop¹ jardunaldien 2022ko eta 2023ko edizioetan dute oinarri, ez bakarra, baina bai esanguratsua.

Edukien egiturari dagokionez, berriz, ahalegina egin da aisiaren eremurako aurreikusitako erronka nagusiak Gogoetaginearen etorkizun-ikuspegia lantzen duen ponentzia nagusiak eraikitako hezurdurara egokitzeko.

Hasi gaitezke aisiaz zer ulertzen dugun azaltzen eta ados jartzeko ahaleginak egiten, baina bistakoa da ez direla lan errazak, ez bata, ez bestea. Eremuak ertz eta tolestura asko ditu, eta lagungarria iruditzen zait, lan honetarako behintzat, hain zabala den eremua bi aldagai erabiliz mugatzea.

I.1 Jarduera-mota

Uler daiteke aisia dela lanetik (edo eskolatik) kanpo egiten dugun guztia. Hori guztiori, ordea, ez dugu hemen aisiatzat hartuko. Ez familiaren eremua, ez lagun-arte, ez pantailen aurrean pasatzen ditugun ordu horiek guztiak. Garrantzi itzela dute eremu horiek guztiek hizkuntza indarberritzeko, eta agian berariazko txosten bana egitea ere merezi dute, baina txosten honetan ez dira langai izango. Txosten honen jomuga haur eta gazteentzat antolatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduerak izango dira.

I.2 Adina

Adinarekin ere antzeko mugatze-lan bat egitea komeni da. Izan ere, adin-tarte guztiek dute euren aisialdia, baina oso dira desberdinak adin-tarte bakoitzean egiten diren jarduera-motak eta oso dira desberdinak ere adin-tarte bakoitzeko populazioak dituen hizkuntza-ezaugarriak, hizkuntza-gaitasunak bereziki. Horri lotuta, haurtzaro eta nerabezaroko aisialdiak badu beste ezaugarri bereizgarri bat, alegia, hezigarria izan behar duela. Gizarteak berariaz funtzio hori hezkuntza-sistemari eman badio ere, adin-tarte berean lantzen den aisiari ere helburu bera partekatzea dagokio. Horregatik, txosten honek berak ere, hasierako bertsioan zuen *Aisia* izenburua *Aisia eta hezkuntza ez-formal antolatua* izatera pasa da.

Hori esanda, txosten honetan, **I6 urte bitarterako eskola-orduz kanpoko jarduera antolatuak izango ditugu langai**. Mugatzearen logika da derrigorrezko

¹ Udaltop Euskal Herriko udaletako euskara-zerbitzuen topaketak dira (www.udaltop.eus). 2022an, *Eskolak bakarrik ezin badu... zer eta nola egin behar dugu udalerrian hobeto 16 urte bitartekoentzat hizkuntza-politika egokia antolatzeko?* izan zen izenburua eta 2023an, berriz, *Bat, bi, hiru... Eskolaz kanpoko euskaratik eta euskaraz*.

hezkuntzaren adin-tarte berean aritzea. Izan ere, nire iritziz, hezkuntza-alorrean egindako hizkuntza-politikek beraiekin ekarri beharko lukete giza multzo horri zuzendutako hizkuntza-politika desberdin bat, jauzi bat.

Jakin badakigu adinak eta eremuak «mugatzea» ariketa baldarra izan daitekeela hizkuntza indarberritzea bezain zeregin holistiko eta elkarreraginekoan. Denok dakigu haur eta gazteen hizkuntza-jokaerak gurasoen hizkuntza-jarrera, -gaitasun eta -jokaerak baldintzatuak direla, eta alderantziz ere bai. Eta berdin eremu dago-kienean ere: eskolako hizkuntza-ereduak izugarritzko eragina duela eskola-orduz kanpokoan, eta hedabide eta sare sozialek lagunartean, eta alderantziz, adibidez.

Hori horrela izanik ere, neurri berean baldarra bezain ez-emankorra izan liteke adin eta eremu guztietako hizkuntza-jardunak aldatuko balira, adin eta eremu guztietako hizkuntza-jokabideak beste batzuk izango liratekeela esatea. Bistakoa da baietz, baina bistakoa da ere ezinezkoa dela aldaketa horiek batera ematea.

Beraz, hizkuntzaren indarberritzeak eskatzen duen progresibitate horren zentzuan, iruditzen zait garrantzitsua dela adin bateko giza multzoa eta giza multzo hori bizi den eremuen logikan adin-tarte eta eremu batzuetan jauziak lehenestea. Txosten honetan proposatzen dena hori da: jauzi bat ematea haur eta gazteen eskola-orduz kanpoko jarduera antolatuetan.

Hezkuntza-sistemaren bidez egindako ahaleginak ekarri du, proportziotan neurtuta, belaunaldi berrietan euren aurreko belaunaldietan baino askoz euskaldun gehiago izatea. Areagotze hori oso desberdina izan da euskararen lurralde administrazio bakoitzean, ofizialtasuna eta hizkuntza-politikak ere desberdinak izan diren neurrian: txikiagoa Iparraldean, handixeagoa Nafarroan eta handia Euskal Autonomia Erkidegoan.

EAEan esan daiteke euskarazko gaitasuna unibertsalizatuta² dagoela adin-tarte horretan. Lorpen horrek badu zerikusia legedian ezarritako helburuarekin, izan ere, edozein dela ere aukeratutako ikasteredua, derrigorrezko eskola-garaia amaitu ondoren bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan hortik aurrerakoak egin ahal izateko gaitasunera iristeko helburua ezartzen du legeak berak. Hori, onartu berri den Hezkuntza Lege berrian, B2 maila lortzeko helburuarekin zehaztu da.

Esan daiteke, beraz, bere gorabehera guztiekin, 16 urtez azpiko EAEko haur eta nerabe guztiak direla eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz egiteko gai. Horrekin batera, gehitu genezake hizkuntza egoera minorizatuan egotearen ondorio bat ere badela hiztunak ezin direla osatu hiztun modura eskolarekin bakarrik, Arrue ikerketak jaso duen modura «ikasle guztiek lortzea helburu diren euskarazko hizkuntza-konpetentzietara iristeko beharrezko mailaren azpitik leu-

² EAEko 2021eko erroldaren arabera, 5 eta 14 urte bitartekoen artean euskaraz ulertzen ez dutenak % 1,22 dira (EAS: Euskararen Adierazle Sistema).

deke LH4ko ikasleen % 38 eta DBH2ko ikasleen % 46» (Eusko Jaurlaritza 2020: 13). Ondorioz, bereziki zaie komenigarria hizkuntza-garapen egokia lortzeko (legeak duen helburua betetzen lagunduz) euskararen erabilera trinkoko eremua soilik eskola duten haur eta gazte horiei, alegia, haur eta gazte gehienei, eta gero eta gehiagori.

Beraz, hizkuntza indarberritzeari osatzen lagunduko liokeen modu berean litzateke mesedegarria gero eta gehiago diren (bereziki ingurune erdaldunduetako eta hiriburuetakoa) haur eta gazte horiek eskolaz haragoko eremu hori euskaraz garatzea, euskal hiztun osatuagoak, osoagoak, izateko. Biak dira txanpon beraren bi alde, eta jauziak egiten du bien alde.

Adinaren mugatze horrek, ordea, gehiago du arestian aipatutako logikatik (gaitasuna unibertsalizatua izatearen baldintza betea izatetik), adin jakin batean finkatzearen logikatik baino. Esan nahi baita, 16 bezala, 18 edo 30 urtez azpikoetan zentratzea berdin izan daitekeela logikoa, baldin eta giza multzo horrek betetzen baldin baditu hizkuntza-politika desberdin bat egiteko baldintzak.

Are gehiago, logika bera aplikatuz, hizkuntza-gaitasuna hedatzen ari den (eta hedatzen laguntzeko) adin-tarte horietan (eta berdin gizarte-eremu eta erakundee-tan), arian-arian adin-tarte zabalagoetan (berdin eremuetan), hizkuntza-politika desberdin bat egiteko neurriak hartzea litzateke zentzuzkoena.

2. Logika soziolinguistikoa

Aisian euskarak izatea nahi dugun dena delako etorkizuneko ikuspegiak badu gutxitan justifikatu ohi dugun, baina hemen hala egitea egokia dela iruditzen zaidan, abiapuntu bat.

Ikuspegia hitzak berak badu bere baitan gauza bat ikusteko egon daitezkeen, gehienetan egoten diren, era edo egia desberdinak badaudela baieztatzen duen iradokizun bat. Gehienetan *ikuspegia* hitza pluralean erabili ohi dugu horrexegatik, gauza bat ikusteko hainbat era, sarri desberdinak, egon ohi direlako.

Ideologia hitzak berak ere aje edota bertute bera du. Eta ikuspegia eta ideologia euskara indarberritzeari begira jartzen ditugunean ere, hainbat, eta gehienetan desberdinak, dira ikusteko eta ideia bihurtzeko erabili ohi diren logikak.

Txosten hau ere, Gogoetagunearen *Etorkizun-ikuspegia* ponentzia nagusia bezala, munduko hizkuntza-aniztasunari begiratzeko ikuspegi batekin eta aberastasun horri eusteko ideologia etiko batetik dago eraikia.

2.1 Hizkuntzaren indarberritzeaz

Begi-bistakoa da mundializazio-prozesuak eta berekin duen logika merkantilistak hizkuntzen bizitzetan eragiten duten ondorioak dituztela (Marí 2006): populazioaren mugikortasun handia, ekonomiaren nazioartekotzea, komunikazio-

teknologiaren ondoriozko mugez gaindiko harremanak, kontsumo masiboko produktuen hedapenean lan egiten duten kultur industrien indarra eta irismen handiagoa duten erabakimen politikoko esparru berriak, adibidez.

Horrek guztiak, demografikoki, politikoki eta ekonomikoki egoera indartsuagoan dauden hizkuntza eta kulturek bultzatzen duten planetaren uniformizazioaren ondorioz, ekarri eta areagotu du, alde batetik, gaurdaino egon den matriize eta lurralde-oinarriko aniztasun linguistikoa progresiboki murriztea, eta, beste alde batetik, historikoki eratutako gizartearen barruan heterogeneotasun linguistikokultural handia txertatzea.

Bi fenomeno horiek, munduko hizkuntza-aniztasunaren murrizteak eta historikoki eratutako gizarteetako heterogeneotasuna handitzeak, are egoera zaurgarriagoan jartzen ditu, euskara bezala, egoera gutxituan dauden hizkuntzak eta dimentsio txiki eta ertaineko hizkuntza- eta kultura-komunitateak (UNESCOk hainbatetan baieztatutakoa). Beste era batera esanda, hizkuntza-komunitatean oinarritutako indarberritze-prozesua ahuldu egin du horrek, hizkuntzen erabilera soilik, edo gero eta gehiago, merkatuaren araberrako hautu pertsonalaren parametroetara, indibidualismora, eramaten ari delako (Pujolar 2020: 131).

Eta ondorioz, begi-bistakotzat jo ditugun gertaera horien aurrean, bi aukera (ikuspegia eta ideologia) nagusi eduki genitzake: lehendabizikoa, ez arautzea edo erabateko desarautzea da; bigarrena, aniztasuna ordenatzea eta kudeaketa egokia egitea. Lehendabizikoa neodarwinismoa litzateke; bigarrena, **aniztasuna hizkuntza-ekologiatik begiratzea eta horren ideien logikatik zuzentzea**.

Lehendabizikotik, egoera minorizatuan dauden hizkuntzek (eta munduko eskalan minoritarioak diren hizkuntzek ere bai) etorkizun beltza dute, hizkuntza «handiak» (hedapen handiko hizkuntzek / hizkuntza «maiorizatuak») erabat nagusituko baitira, bai euren jatorrizko lurraldeetan, bai horietatik kanpo dauden gizataldeen eguneroko zereginetan ere. Izan ere, egoera minorizatuan dagoen hizkuntza bat indarberritzea ezinezkoa suertatuko da baldintza horietatik bideratuz gero, besteak beste, egoera minorizatuan egoteak esan nahi duelako ez duela nahikoa berdintasunik, ez juridikorik, ez ekonomikorik, ez politikorik, ez demografikorik, ez sozialik ere (eta ondorioz, ez pertsonalik ere!). Beraz, norberak aukeratu ahal izatearen ikuspegia/ideologia ez da hizkuntza-aniztasuna zaintzeko egiazko aukera bat.

Bigarrenetik, berriz, aukera (eta lan handia) legoke egiteko. Lan hori, gainera, orain arte ez bezala, ezin da nazio linguistikoko bakoitzaren esku bakarrik geratu. Gaiak mundu-mailako dimentsioa du eta lan horiek ere dimentsio berbera eskatzen dute, maila lokalean eta mundu-mailan zereginak baititugu, eta tartean dira nazio-, estatu- eta Europa-mailan egitekoak ere.

Lan horiek diskurtso eta praktika indartsuen gainean eraikitzea komeni da, eta printzipio batzuk eskatzen dituzte ideologia gisa, ideien logika gisa.

2.2 Oinarrizko printzipioak

Hizkuntza indarberritzeko lehendabiziko printzipioetako bat da munduak duen **aniztasun linguistikoa aberastasun gisa hartzea** eta, modu iraunkor batean bizitzeko, **baldintza jasagarriak behar dituelaz jabetzea**.

Horrekin lotuta, **hizkuntza eta hizkuntza-komunitate guztiak**, une historiko bakoitzean egoera desberdinean egon arren, **izaeraz berdinak direla onartzea** eta, supremazismo jokabideetatik urrunduz, bizitzeko eskubide natural bera dutela aitortzea eskatzen du.

Aniztasuna jasagarri egiteko, ikuspegi soziolinguistikotik ezinbestekoa da **eleoniztasun ekitatiboa aplikatzea**, hau da, hizkuntza bakoitza, historikoki erai-ki den gizartearen markoan, gizarte-kohesiorako hizkuntza komuntzat hartzea eta horretara iristeko, ekitatearen printzipioa gidari, diskriminazio positiboa aplikatzea egoera minorizatuan dagoen hizkuntzak hala egoteari uzteko bidea egin dezan, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 7.2 artikulua jasotzen duen moduan.

Halaber, garrantzitsua da ulertzea, beren dimentsio pertsonal eta filologikotik harago, **hizkuntzak batez ere gertaera sozialak** direla. Euskal soziolinguistikaren aitaponteko batek, Iñaki Larrañagak, aspaldi idatzitako testu honek laburbiltzen du ondo ideia:

Hizkuntzak, gertaera sozial bat denez, gertaera sozial batek bezala funtzionatzen duela. Bere mekanismoak dituela eta funtzionatzeko zenbait baldintza ezinbestekoak dituela. Zein hizkuntza erabili behar duen ez da pertsonaren hautagai dagoen zerbait. Sozialki eragiten duten mekanismoen baitan baizik. Baldintza horien artean, besteak beste, gizarteko antolamenduan sortzen diren alor edo esparru ezberdinen sarea dago (Larrañaga 1984: 76).

Hizkuntza gertaera sozial bat den heinean, Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (1996) jasotzen duenaren arabera, **hizkuntza-eskubideak** ere, pertsona bakoitzarenak izateaz gain, **kolektiboak ere badira, alegia, hizkuntza-komunitateenak eta hizkuntza-taldeak**.

Helburua da, beraz, norbanakoen eskubideak eta askatasunak eta hizkuntza-komunitateek dituztenak bateragarri egitea. Interesgarria litzateke ikuspegi hori duen kultura soziolinguistikotik berri(tu) batek eleoniztasuna ekitatiboki aplikatzeko Albert Bastardasek (2005) proposatzen dituen lau printzipioak kontuan izatea.

Lehendabiziko biak ezagunak dira:

- **Lurraldetasunaren irizpidea**, alegia, komunitate batek bere hizkuntzaren errekonozimendu osoa eta ofizialtasuna izatea, historikoki hizkuntza hori hitz egin duen eremuan.

- **Pertsona-mailako eskubidea**, hau da, pertsona bakoitzak eskubide indibiduala izatea hainbat hizkuntza-prestaziotarako (historikoki hainbat hizkuntza hitz egiten diren lurraldeetan zerbitzu publikoetan sarri gertatzen den moduan).

Eta beste bi ere gehitzen ditu, funtzio linguistikoen oreka ekitatiboa bermatzeko ezinbestekotzat jotzen dituenak:

- **Subsidiaritatearen printzipioa**: tokiko hizkuntza baten bidez bete daitezkeen funtzio sozialak (barne-komunikazioaren ikuspegitik) ez dira kanpoko eta hedadura handiagoko beste hizkuntza baten bidez bete behar.
- **Nahikotasun funtzionalaren printzipioa**: tokiko hizkuntza bakoitzak bermatu behar du garrantzitsuak diren oinarriko funtzio sozial multzo bat, zeinetan hizkuntza horren erabilerak beharrezkoa izan behar duen komunitate guztiarentzat eta hizkuntza beraren garapena eta berrikuntza ere posible izango den.

Lehenago ere gure artean izan dira ikuspegi, printzipio eta hizkuntza indarberritzearen ideien logika hori landu dutenak (Sanchez Carrión 1987), baina esanguratsua iruditzen zait azken bi printzipio horiek irekitzen duten atea (Grin 2018). Izan ere, arestian azaldutako testuinguru hori guztia ikusiz, galdera bat nabarmentzen da: subsidiaritatearen eta nahikotasunaren printzipioak aplikatuz, zeintzuk dira euskara erabiltzea komunitate guztiarentzat beharrezkoa izango duten funtzio sozialak?

Eta galdera horri erantzuten hasita, proposatzen den etorkizun-ikuspegia da **I6 urtez azpiko eskola-orduz kanpoko jarduerak arnasmune soziofuntzional bihurtzea badela euskararen indarberritzeak eskatzen duen neurri minimoetako bat.**

Neurri minimo horrek, eta beste batzuek ere (adibidez, hezkuntzak eta administrazioak), aldiz, eskatzen dute jauzi bat ematea hizkuntza-politikan. Eta jauzia modu honetara ulertuta: «**jauzi**» bat bada, **izan beharko luke ulertzea eta adostea hizkuntza indarberritzeak ezinbestekoa duela euskara nagusi duten eremu geografikoak eta soziofuntzionalak, alegia, arnasmuneak, izatea.**

Arnasmune horiek (geografikoak eta soziofuntzionalak) jadanik badirenean, elikatzen jarraitzea estrategikoa da eta, ez direnean, berriz, baldintzak sortzea lehendabizi (ulermena unibertsalizatuz kasu) eta, baldintzak lortu ahala, erabilerazko nagusitasun hori eraikitzea ere bada estrategikoa.

Eta ikuspegi hori ez da ezeren eta inoren kontra eraikitako ikuspegi bat, «normal» funtzionatuko duen hizkuntza bat, gizarte bat, eta hiztunak areagotzeko ezinbesteko baldintza bat baizik, nahikotasun funtzionalaren printzipioa, alegia.

2.3 Hiztunaren sozializazioaz

Aisiari begiratzeak, ordea, hizkuntza indarberritzearen ikuspegitik begiratzeaz gain, hiztuna osatzeko ikuspegitik, pertsona bakoitzaren garapen linguistikotik, hiztuna osatzeko prozesuari ere begiratzea eskatzen du.

Jaiotzen den unetik 16 urtera bitartean, lehendabizi haur eta gero nerabe izango den pertsona horren hizkuntzazko garapena, labur esanda, izango dituen sozializatzeko-prozesuen arabera izango da. Sozializatzeko-prozesu horiek desberdinak izango dira pertsona bakoitzaren kasuan, sozializatzeko-gune bakoitzeko pertsonak, harreman-motak, hizkuntzen inputak eta beste hainbat faktore desberdinak direlako, gutxi edo gehiago, pertsona bakoitzaren kasuan.

Horrez gain, pertsona bakoitzaren inguru partikularrak aldatzeaz gain, gizarte bakoitzak dituen sozializatzeko-guneak ere aldatzen doaz (eta aldatzen jarraituko dute) denbora pasa ahala. Era berean, gune bakoitzaren beraren baitako ezaugarriak eta gune bakoitzak pertsona eta gizarte bakoitzean duen pisu erlatiboa ere aldatzen doa.

Horiek horrela, mutur batean eduki genezake udalerri euskaldun bateko familia euskaldun batean jaio eta bizi den haur bat, zeinak sozializatzeko-prozesu (ia) guztiak euskaraz bizitzen dituen (familia, eskola, lagunak, kalea...) eta, beste muturrean, herri oso erdaldun bateko familia erdaldun batean jaio eta bizi den haur bat, zeinak, alderantziz, ia sozializatzeko-prozesu guztiak gaztelaniaz/frantsesez (edo beste hizkuntza batean/batzuetan) bizitzen dituen.

Egoera minorizatuan dagoen hizkuntza bat berreskuratzeko gutxieneko oinarri nagusien artean dago haurrak hizkuntza horretan eskolatzea, sozializatzea. Horixe izan dute komunean arestian aipatutako haur horiek guztiek, bai behintzat euskarazko irakaskuntza, maila batean edo bestean, jasotzeko modua izan duten eremu geografikoetan.

Horren guztiaren ondorioetako bat izan da euskaraz badakiten haur eta nerabeen ugaltze ikaragarria. Alabaina, hiztunak osatzeko bide horrek aje batzuk ere izan ditu. Aje edo gabezia horiek pertsona bakoitzaren euskarazko sozializazioa nahikoa ez izatearen ondorio izan dira eta «eskolak bakarrik ezin du» leloan barnebil genezakeen ondorioa eraman gaitu.

Aspaldikoa da «eskola, hiztun bila» esaldia. Are gehiago, esaldi hori ardatz hartuta garatu dira hainbat programa, jardunaldi eta ikerketa. Erreferentziazkoa izan zen bere garaian (30 urte baino gehiago dira) izen berarekin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak argitaratu zuen liburua (Eusko Jaurlaritza 1991). Bertan jasotako informazio mamitsu eta ugariaren artean, argigarria izan zen 8 urteko neska-mutikoen artean eskola-orduek (zehazki gelako orduek) urteko esna-orduen artean zein proportzio betetzen zuten kuantifikatzeko egindako ariketa. D ereduko ikastaldeetan, gelako «euskarazko orduak» (guztiak, gaztelania

eta atzerriko hizkuntzaren ikasgaiak salbu) urte osoko esna-orduen % 14 zirela ondorioztatu zuten; B ereduko ikastaldeak kasuan, % 8 inguru, eta A eredukoenean, berriz, % 4, gorabeherak gorabehera.

Zenbakien dantzan lokazteko nahirik izan gabe, azpimarragarriena da nahiko adierazgarria izan zela ikastaldeak (eta ondorioz, ikastaldearen euskarazko jardunak) haurren errealitatean (hizkuntza-errealitatean) zuen muga bistartzen lagundu zuela. Lanean bertan aipatzen da eskolaren hizkuntza-garrantzia ez dela zenbaketa horretara mugatzen, eta badaudela beste hainbat faktore (gelako hizkuntza-elkarrekintzaren nolakoa, haurrek zenbat ekoizten duten edo irakasleen eta eskolako lagunen euskara-maila, kasu baterako) eskolako hizkuntzen erabileran eragiten dutenak.

Harrezkero gauza asko aldatu dira gizartean, eskolan, ikasgeletan eta gutako bakoitzarengan, baina ondorio aski partekatua dela esango nuke hizkuntza gutxitu batean hiztun osoak osatzeko, gure kasuan euskal hiztunak osatzeko, euskaraz eskolatzea ezinbestekoa izan bada ere, ez dela nahikoa izan haur eta nerabe askoren, ez denen, baina bai gero eta gehiagoren, kasuan. Alegia, «eskolak bakarrik ezin du» leloan bildu ohi dugun ondorio hori (Suberbiola 2022).

Eskolak bakarrik ezin duela esateak ez du esan nahi eskolak zereginik ez duenik egiten duen hori hobeto egiteko (Biain eta Ibarretxe 2022). Berariaz, eskola barrukoak izan ohi dituzte eztabaidagai eta langai hezkuntzako eragile gehienek. Udaletako euskara-teknikari askoren ikuspegia izan da, berriz, eskola barruan³ lanak ahalik eta ondoen eginda ere (D eredua izan, euskararen ardaztutako eredu eleaniztutua izan...), egoera minorizatuan dagoen hizkuntza batek hiztun osoak sortzeko ezinbestekoa duela hiztun horiei hizkuntza gutxitu horretan habitat linguistikoa ematea, eskolaz gain beste eremu batzuk ere izango dituen eta nahikoa indar, erabilera-dosi, emango diona hizkuntza horretan ere nahikotasun-maila batetik gora sozializatzeko. Izan ere, hiztunak ere, hizkuntzak bezala, nahikotasun funtzional bat premiazkoa du hiztun modura osatzeko. Eta hortik sortzen da galdera berria: **Zein sozializatzeko-eremu gehituko diogu eskolari?**

Haurren eta gaztearen ekosistema (eta ondorioz bere sozializazio-eremuak)osatzen dute familiak, lagunarteak, eskolak, eskola-orduz kanpoko jarduerak, telebistak eta bestelako ikus-entzunezkoek, sare sozialek eta hainbat eratara sailkatu genitzakeen beste eremu batzuek.

Eremu horiek, ordea, izaera desberdina dute eta konplexuegia da txosten honen tamainarako ezaugarritze zehatzak egitea. Hala ere, lagungarria delakoan, sailkapen honetara ere ekar genitzake:

³ Gai hori beste txosten sektorial batean izango da langai. Beraz, nahiz eta oso lotuta egon, ez da txosten honetan landuko.

1. Eremu pribatukoak: nagusiki familia eta lagunartea.
2. Eremu publiko eta instituzionalizatukoak: nagusiki eskola eta eskola-orduz kanpoko jarduerak.
3. Merkatuaren eremukoak: nagusiki telebista, sare sozialak, musika, zinema, denda...

Euskarazko sozializazioa ahalik eta aberatsena izan dadin, hiru eremu-mota horietan ahalik eta euskarazko motibazio, gaitasun eta erabilera-tasa handi eta indartsuenak ematea garrantzitsua da oso. Guztiak dira garrantzitsuak, agian eragin handiena dutenak familia eta lagunartea bera dira, baina hizkuntza-politika publikoen eskumenen eta erantzukizunen ikuspegitik, ordea, eremu publiko eta instituzionalizatueta eragiten hasteak dirudi zentzuzkoena.

Eta beraz, politika publikoen helburutzat, euskarazko lehendabiziko arnagune funtzionala eskola den bezala, horren osagarri behinena eskola-garaiko haur eta nerabeentzat udalerrian (edo eskualdean) antolatzen diren eskola-orduz kanpoko jardura (hezigarri) horiek guztiek izan beharko lukete (**bereziki kirolak**).

Beste era batera esateko, nerabeak lagunartean online dauden jolas, aplikazio edo sare sozialetan dihardutenean sortzen den hizkuntza-harremana oso bihurtu da esanguratsua eurentzat (kuantitatiboki eta kualitatiboki). Hala ere, hor eragitea askoz zailagoa da (eskumenetatik hasiz) adin-tarte horretan hizkuntza-politika egoki bat egin nahi dugun erakundeentzat, izan erakunde publikoak zein gizarte-izaerakoak. **Logikoa dirudi, beraz, erakunde publikoek, zuzenean edo zeharka, haur eta nerabeentzat antolatzen dituzten edo antolatzen laguntzen duten eta udalerrian bertan gauzatzen diren jardura horiek lehenestea.**

Logika horretan, EAEko Euskararen Aholku Batzordeak onetsi berri duen AROA marko estrategikoak, euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduztzeko marko estrategikoak, Erabilera/Elkarreragina ardatzean, euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatzeko erronkaren barnean, ekimen hau du jaso: «Erakunde publikoek 16 urtetik beherako haur eta gazteentzat antolatzen dituzten eskola-orduz kanpoko jardueren ohiko hizkuntza euskara izan dadin neurriak hartu» (EE.I.I.II.).

Horrek ez du esan nahi eskolak eta eskola-orduz kanpoko jardueren eremuak ere ez dituenik premiak konkordantzia jardungo duten sozializazio-eremuak, alderantziz baizik. Familiako hizkuntza-politikak (familia-tipologia bakoitzean dauden hizkuntza-jarrerak, -gaitasunak eta -jokaerak euskarara ekartzeko neurriak eta baliabideak) edo lagunartean euskara gehiago egitera zuzendutakoak, eremu pribatuan hizkuntza-ohiturak euskarara hurbiltzeko ahalgintzak, alegia, oso dira garrantzitsuak, eta eremu publiko eta instituzionalizatuetaekin elkarreraginean daude (nahiz eta seguruenik eragin-ahalmena galtzen ari diren).

Eta merkatuaren eremukoak, berriz, aurreko belaunaldiekin alderatuta, (askoz) handiagoa da duten eragin-ahalmena (hizkuntzazkoa eta bestelakoa). Hizkuntza-politikek eremu horietan eragitea zailagoa dute (duten boterearekiko proportzionala seguruenik), baina horietan ere hizkuntza-politikak indartzeko premia dugu haur eta nerabeen ekosistemak ahalik eta koherentzia handiena izan dezan. Txosten honetan ez dira eremu horiek jorratuko (familia, lagunartea eta pantailak eta sare sozialak), baina agian berariazko lanketa bat eskatzen dute.

2.3.1 *Bi logika, pausoak eta jauziak*

Horiek guztiak kontuan izanik eta euskarazko sozializatzere-eremua soilik eskola (edo gela) izango ez duen logika horren baitan, hainbat egoera gerta daitezke, mugatuenetik osatuenera, honela labur daitezkeenak:

1. Euskarazko irakaskuntza + eskola-orduz kanpo berariaz euskaratik sortutako jardueraren bat izatea.
2. Euskarazko irakaskuntza + eskola-orduz kanpoko udalerriko jarduera guztiek euskarazko arnagune soziofuntzionala osatzea.

Esan daiteke, neurri batean behintzat, lehendabiziko molde hori bilatu eta lortu ere egin dela azken urte hauetan guztietan Euskal Herriko udalerrri gehienetan egin diren hizkuntza-politiken ondorioz.

Udaltop jardunaldien ingurumarian proposatutako logika berrituak, berriz, mahai gainean jarri nahi izan du lehendabizikotik bigarrenerako jauzi hori emateko garaia dela, hizkuntzaren indarberritzeak eskatzen duela, haur eta nerabe horien hizkuntza-garapenak ere bai, eta toki askotan aukerak ere baditugula. Alegia, ulertzea belaunaldi berrietako haur eta nerabeak euskal hiztun osatuagoak izan daitezen, **premiatzkoa dutela euskarazko ekosistema bat eta hori, gutxienez, irakaskuntza eta udalerrian gauzatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduera guztiak euskaraz eginez osatzen dela.**

Jauziak emateko, ordea, baldintzak ere oinarritzkoak izaten dira. Eta horri begiratuta, bi egoera aski desberdin ikusten dira. Lehendabizikoa, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako euskaldun dentsitate handiko gunetan dagoena, zeintzuetan ezaugarri bereizgarria den 16 urte bitarteko haur eta nerabe (ia) guztiek ulertzen dutela euskaraz; eta bigarrena, berriz, Nafarroako gainontzeko eremuetan eta Ipar Euskal Herrikoan, zeintzuetan ez den ezaugarri hori betetzen modu orokortu batean.

Ikuspegi horretatik begiratuta, EAErako eta Nafarroako euskaldun dentsitate handiko gunetarako jauzi bat ematea proposatzen da, eta jauzi horri bi ezaugarri atxiki zaizkio:

- a. Udalerrietan antolatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduerak euskara ardatz izango duen eremu soziofuntzional bilakatzeko **estrategia abiatzea**,

eta, horretarako, sustapen-neurriez harago, **lege bidezko heldulekua** lantzea (Urrutia, Amundarain eta Arruti 2022).

- b. Eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko **tresnak eta baliabideak sistematizatzea**, ekintza eta egitasmo solteetatik harago, udalerrri bateko eskola-orduz kanpoko jardueren eremu horretan, bere osotasunean, esku hartzeko.

Aldiz, euskaldun dentsitate handikoak ez diren Nafarroako gunetan zein Ipar Euskal Herrian, jauzi hori egiteko baldintzak gertatzen ez direnean, urrats edo pauso txikiagoak ematea dirudi zentzuzkoena; nola ez, bakoitzak duen errealitatetik abiatuta eta sarri euskaratik pentsatutako egitasmoak berariaz eraikiz, babesguneak sortuz. Hala ere, helburu oso garrantzitsua da gutxienez bermatzea hala nahi duten haur eta gazteek aukera izango dutela aisialdia euskaraz egiteko.

2.3.2 *Ahal dute eta komeni zaie*

Beraz, eta laburbilduz, udalerrrian antolatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz izateko ikuspegi soziolinguistiko ekitatiboa belaunaldi berriek dituzten bi ezaugarritan oinarritzen da:

- I. **Ahal dute.** Alegia, (ia) denek ulertzen dute euskaraz. Sarri nabarmendu ohi da haur askok eskolan jasotzen duten euskarazko gaitasuna ez dela nahikoa (ikus Arrue ikerketen emaitzak). Hala ere, ponentzia honetan langai dugunarentzat, esan genezake euskaraz ulertzea nahikoa dela eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz jasotzeko.
- II. **Komeni zaie.** Alegia, eskola-orduz kanpoko erabilera ez-formalak eskolak berak soilik eman ezin duen hori emango dielako (kuantitatiboki eta kualitatiboki). Komeni zaie ingurune euskaldunetako haur eta nerabeei eguneroko oinarritzko harreman-sare gehienak euskaraz bizitzeak osotasun linguistiko bat (eta euskararen aldeko gaitasun erlatibo bat) emango dielako. Eta komeni zaie, halaber, eremu erdaldunetako hartzunei, hizkuntzek bezala, nahikotasun funtzional minimo baten premia dutelako euren euskarazko garapena ahalik eta osatuena izaten laguntzeko (eta ez soilik eskolarekin geratzeko).

Begi-bistakoa da eskola-orduz kanpoko gustuko jarduera horietan euskaraz aritzeak belaunaldi berrien euskarazko erabilerari eta gaitasunari (eta, ondorioz, motibazioari ere bai) ekarpen handia egingo liekeela, hizkera informal edo lagunarteko hori aberasteko, baina baita ere berdinen arteko talde batean (kiroltalde batean kasu) euskarazko jarduna finkatzeak norberaren garapen linguistikoan duen garrantziagatik. Sarri eskola-orduz kanpoko jarduera horiek dira haur eta nerabe horien bizipen zirrargarrien iturri eta, ondorioz, jarduera horietan gertatutakoa iltzatuta geratzen da euren garapenean (linguistikoan ere bai).

Esango nuke adostasun tekniko handia dagoela arestian aipatutako oinarri horien gainean, eta adostasun tekniko hori adostasun soziopolitiko (guraso, alderdi, sindikatu...) ere bihur genezakeela aipatu dugun jauzi hori emateko. Haurrek ahal dute eta komeni zaie, eta guk, heldu arduradunok ere, ahal dugu eta egiteko erantzukizuna dugu.

2.3.3 Esku-hartze berrituak

Horretarako, euskal hiztun osoagoak lortzeak ikuspegi soziolinguistiko berritua eta integralagoa eskatzen duen bezala, hori bilatu eta sustatu nahi duten erakundeen artean ere «antolaketa ekosistemikoagoa» osatzea eskatzen duela dirudi (gobernutik hasi eta udalerri-mailaraino).

Udalerri bateko eskola-orduz kanpoko jarduerak, laburbilduta, hiru erakundemotek antolatu ohi dituzte: Udalak berak, ikastetxeek eta beste eragile sozial (elkarte) eta pribatuak. Horietako bakoitzak hainbat eskumen eta tresna desberdin ditu jarduerak euskaraz gara daitezen (irizpideak zehaztea, kontratazioetan klausulak ezartzea, dirulaguntzetan baldintzak finkatzea, sentsibilizazio-lana egitea...) eta, tokian tokiko errealitateari atxikiz, bakoitzean egokiak diren eran erabiltzekoak dira. Zeregin horretan lagungarri izan daitekeelakoan, Udaltopen 2022ko edizioan esku-hartzeko gidalerroen proposamen bat osatu genuen (Udaltop 2022).

Horrek guztiak eraman beharko gintuzke, ikastalde gisa, eskola-orduz kanpoko jarduerak ere euskararen erabilera trinkoko eremu bilakatzerara. Eta horretarako, irakasleak bezala, jardueretako hezitzaileak *ahobizi* izan daitezen heztera, ulermena ziurtatuta dagoen egoera guztietan euskarazko jardunari eutsiz eta eraginez.

Ertz gehiago baditu gaiak, eta eskola-orduz kanpoko jardueraz gain, haur eta nerabeen (eta gainerakoon) hizkuntza-errealitateak ere ez dira, urrutitik ere, hor bukatzen. Hala ere, eskolan hasitako lanei jarraipena (molde berrituan) hortik ematea izan daiteke zentzudunena. Izan ere, hori lortu ezean, gainerakoak lortzea zailagoa eta sinesgaitzagoa dirudi.

3. Jauziak

Aurreko ataletan aipatu baditugu ere, aisiaren etorkizun-ikuspegi batek izan ditzakeen jauziak eta pausoak bilduko dira hemendik aurrera.

Etorkizun-ikuspegiaren ponentzia nagusiak lantzen duen modura, gizarte-politiketan eta komunitate-estrategietan sailkatu dira jauzi eta pausoak. Hala ere, orokortasunak saihesteko, eta lurraldeetan dauzkagun hizkuntza-egoera hain desberdinak kontuan izanik, ohartarazi behar da esandakoak moldatu eta egokitu egin behar direla tokian tokiko errealiterara.

3.1 Gizarte-politiketan

3.1.1 *Arnasgune soziofuntzional bihurtzea adostea*

Adostasun tekniko zabala duen ikuspegi hori adostasun sozial eta politiko bihurtzea litzateke ematea dagokigun jauzia. Baldintza linguistikoak (ulermena unibertsalizatuta) badauden lurraldeetan (EAEn eta Nafarroako euskaldun dentsitate handiko eremuetan), erakunde publikoek, zuzenean edo zeharka, derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adinean dauden haur eta gazteentzat antolatzen dituzten eta antolatzen laguntzen duten eta udalerrian bertan gauzatzen diren eskola-orduz kanpoko jardueren ohiko hizkuntza euskara izan dadin adostea da jauzia.

Eta adostasun sozial eta politiko horri, gauzatuko bada, sustapen-lanaz gain, helduleku juridiko bat ematea ere premiazkoa da.

3.1.2 *Zeharlerrotasunezko hizkuntza-politika integratu baten bidez bideratzea*

Adostasun politiko eta sozialaz eta lege-oinarriaz gain, horiek egikaritutako dituzten hizkuntza-politika oso indartsuak aktibatzea egokitzen da, ezarrita dauden inertzia astintzeko eta errealitate berri hori eraikitzeko.

Eskola-orduz kanpoko jardura antolatu horiek denak ez ditu ez administrazio bakarrak, ez administrazio bakoitzeko departamentu bakarrak antolatzen. Beraz, arnasgune soziofuntzional bihurtzeko ezinbestekoa da aipatu dugun antolaketa ekosistemikoa eraikitzea.

Antolaketa-modu horrek ezinbestean eskatzen du administrazio bakoitzean (udaletan, adibidez) adin-tarte horretarako jarduerak eta zerbitzuak zuzenean antolatzen edo antolatzen laguntzen dituzten (dirulaguntza bidez, adibidez) sail guztiek elkarrekin lan egitea. Eta lan egiterakoan, politikoki adostutako irizpide hori gauzatzeko tresnak erabiltzea dagokie departamentu guztiei, kasuan-kasuan; Udalak zuzenean antolatzen duenean jardura irizpidea bete dadin neurriak hartuz; kontratu baten bidez antolatzen duenean baldintza-agirietan jasoz eta betetzen dela ziurtatuz; dirulaguntza izendunak direnean, hitzarmenetan klausulak zehaztuz eta betearaziz, eta abar.

Horretaz gain, sustapen-lan erraldoia du administrazio bakoitzak, aipatutako neurri administratibo horiek hartzeaz gain, jardura eta zerbitzu horietan zuzenean haur eta nerabeekin arituko diren hezitzaile horiekin lan egiten: helburuari zentzua ematen, sentsibilizatzen eta hizkuntza-baliabideak ematen premia dagoen guztietan (ulermena ziurtatuta dagoen egoera guztietan euskarazko jardunari eusteko eta eragiteko).

Administrazio bakoitzak lan egiteko modu zeharkako horretaz gain, ordea, ezinbestekoa da administrazioen arteko elkarlan integratua ere bideratzea udalen,

aldundien eta gobernuen hizkuntza-politika zeharkako horiek modu koherente (eta koordinatu) batean gauzatzeko.

Eta lan hori administrazioek egin beharko lukete, orain arte baino arinago eta efizienteago. Helburua gardena da eta baldintzak sortzea egokitzen da eskola-orduz kanpoko jardueren antolatzaile edo laguntzaile diren erakundeetako ardura-dunek euren ardurapeko neurriak era irmo eta eragingarrian hartzeko.

3.1.3 Hezitzaileak hezteko fabriketan birmoldaketa linguistikoa egitea

Administrazioen arteko zeharkakotasunezko hizkuntza-politika horren adibide oso garrantzitsu bat jarduera eta zerbitzu horietako hezitzaile izango direnak hezten diren zentroekin hizkuntza-politika lerratzea da. Alegia, haur eta gazte horien hezitzaile izango direnak (irakasle, entrenatzaile, hezitzaile...) elebidunak izateaz gain, bakoitza bere arloan euskaraz heztea oinarrizkoa da, eta baita lanean aurkituko dituzten hizkuntza-errealitate anitzen kontzientzia eta horiek gobernatzeko baliabideak eskuratzea ere.

Hezkuntza-sisteman arituko den irakasle batek, labur esatearren, *ahobizi* jokatu behar du eskolan bere lana (linguistikoki) profesionaltasunez egiteko. Hori horrela izan dadin, irakasletza-eskoletan, ikasleak ahalik eta elebidun osoenak izateaz gain, ikastaldeen aniztasun linguistikoaz kontziente izateko eta horiek soziolinguistikoki ondo kudeatzeko gaitu beharra daukagu.

Irakasleek eskolan lan egiteko irakasletza-eskoletako prestakuntzari buruz esandakoak balio duen zentzu berean, 16 urtez azpikoekin lan egitera zuzendutako heziketa-zentro guztietan (lanbide heziketako hainbat espezialitatetan, unibertsitateko gradu askotan, aisialdiko begirale-eskoletan, kirol espezialitate guztietako prestakuntza-moduluetan, Lanbideko eskaintza askotan...) egin behar da birmoldaketa soziolinguistikoa, euskarazko lerroak ezarri eta jarduerak euskaraz zergatik egin behar diren eta hori lortzeko nola jokatzeko komeni den erakutsiz.

Berariaz aisialdiko begirale edo hezitzaileak prestatzea helburu duten begirale-eskolak ere birmoldaketa-premia horren adibide esanguratsuak dira. Ba al du zentzurik euskarazkoak ez diren lerroak izateak? Zein kasutan? Titulua lortzeko ikastaroe-tan jasotzen den prestakuntza psikolinguistikoa egokia al da hezigai izango dituzten haurren errealitate linguistikoak gobernatzeko? Ontzat jo al daitezke hizkuntza-ikuspegi eta -eskakizun horietatik kanpo eskaintzen eta lortzen diren tituluak? Ez al litzateke araudia eguneratu behar hemen landutako ikuspegira egokitzeko?

Hori guztia ondo eginda ere, horrek ez du kentzen ondoren administrazio bakoitzak egin beharreko sustapen edo entrenamendu linguistikoaren lan hori guztia. Alegia, hezitzaile bat lanean hasten denean, jardueraren arduradunari dagokio hezitzaileari esatea zein den jardueraren hizkuntza-irizpidea eta, premia badu, laguntza eskaintzea irizpidea betetzeko.

3.1.4 Etorri berrien bertakotzea

Ez du aisiak bakarrik konponduko, baina eginkizun oso garrantzitsua bete dezake. Ezaguna da erosahalten txikikoak izateagatik, familia askok jasaten duten ondorioetako bat izan ohi dela haur eta nerabeek eskola-orduz kanpoko jardueretan izenik ez ematea. Orokortu ezin badaiteke ere, hori are sarriago gertatu ohi da etorri berrien familietan. Eta korrelazio handia izan ohi da zailtasun ekonomiko horien eta euskal hiztun modura osatzeko zailtasunaren artean.

Aipatu dugun modura, eskola da instituzionalki antolatutako lehendabiziko sozializatzeko-eremua, eta hor egin behar dira ahaleginak eta bi ahalik eta elebidunik osatuenak eraikitzeke. Bestetik, egia da eskolak dituen zailtasunak areagotu egiten direla inguruneak laguntzen ez duenean, edo alderantziz, justu hiztun-tipologia horietan dela premiazkoen eskolaz gaindiko euskarazko eremuak ugaritzea osatzen ari diren hiztun horiek ahalik eta elebidunenak izan daitezen.

Estrategikoa da zailtasun ekonomiko horiek gainditzeko neurriak hartzea eta adin-tarte horietako haur eta nerabe ahalik eta gehienei eskola-orduz kanpoko euskarazko arnasmune hori eskaintzea. Era berean, aurreko puntuan aipatutako hezitzaileak hezteko fabriketan erakutsi eta entrenatu premia dago etorri berrien kasuan zein mailatan den garrantzitsua euskaraz aritzeari eustea eta eragitea, etorri berrien onerako, bai berdin tratatuak direla ikusteko, bai eurak ahalik eta euskal hiztun osatuenak izatera iristen laguntzeko.

3.2 Komunitate-estrategietan

Gizarte-politiken jauzia aisiaren eremua **euskarazko** eremu (arnasmune sozio-funtzionala) bihurtzea den bezala, komunitate-estrategiaren ikuspegia (*euskaraz* izateaz gain) **euskaratik** begiratzea eta eraikitzea izan daiteke.

3.2.1 Hiztun eragileen ugaltzea

Gogoetagunearen etorkizun-ikuspegia lantzen duen ponentzia nagusian jasota dago helburutzat hartzen dela datozen 20 urteetarako euskal hiztun osoen nukleo sendo eta zabala osatzea, ahalik eta sendoena eta ahalik eta zabalena.

Euskal hiztun osoen nukleo horretako kide asko eta asko izan dira, gaur egun ere badira, eta izan beharko dute etorkizunean ere, hizkuntza-gaitasunean osoak izateaz gain, hizkuntzaren egoeraren eta indarberritzearen premien kontziente eta eragile (Sanchez Carrión 1987)⁴. Beste gauza askoren artean, horrek ekarri gaitu hona eta aurrerantzean ere ezinbesteko aldagaietako bat izango da hizkuntza indarberritzeak aurrera egingo badu.

⁴ Txepetxek hiztunen nukleo sinboliko modura definitu zuen.

Eragile den hiztuna une eta gune askotan sortu edota eraiki daiteke. Askok etxea izan dute sorgune, beste askok ikastola izan zuten, beste batzuek ikastetxea edo euskaltegia eta beste batzuek, berriz, beste une eta gune batzuk. Euskaratik pentsatutako eta eraikitako aisia ere izan da eta izaten jarrai dezake hiztun eragile horien ugalketarako kabi. Hezitzaile-lanetan aritzeko une eta gune horiek hizkuntza indarberritze-lanetarako eragileak hezteko estrategia komunitarioak lantzea garrantzitsua litzateke oso.

3.2.2 Etorri berrien bertakotzea

Gizarte-politikek oinarriak eta baliabideak jarri behar dituztela esan dugun bezala, jauzi esanguratsu bat litzateke gizarte-izaerako euskalgintzak estrategia komunitario bat abiatuko balu etorri berri diren familien harrera eta bertakotze-prozesua aktibatzeke.

Gizatalde horren dimentsioa gero eta handiagoa da eta, hizkuntza minorizatu baten kasuan bederen, ezinbestekoa dirudi, bertakotze hori ongi egiteko hizkuntza-komunitatearen aktibaziotik ere egitea.

4. Pausoak

Esan dugun modura, jauzi nagusia emateko oinarrizko baldintza da helburu den adin-tarte horretan behintzat euskararen ulermena orokortuta egotea. Eta baldintza hori gerta dadin, ezinbestekoa da hezkuntza-sistemak euskarazko gaitasun minimo batzuk ziurtatzea adin-tarte horretako pertsona guztiei.

Beraz, lehendabizi hezkuntza-sisteman euskarazko lerroak zabaltzeko hizkuntza-politikak dira lurralde-eremu horietan egin (egiten jarraitu) beharrekoak, gaitasuna/ulermena orokortu eta ondoren arnagune soziofuntzionala bihurtzeko bidea egin ahal izateko.

Bitartean, eta aldi berean, aisiaren eremuan, pausoak dira eman beharrekoak.

4.1 Gizarte-politiketan

4.1.1 Euskarazko jarduerak areagotzea

Eremua arnagune bihurtu ezin daitekeenean, haur eta nerabe gehienek ez dutelako euskaraz ulertzen, ikastetxean bezala hortik kanpo ere berdin, euskarazko lerroak ugaltzea da premia. Esan nahi baita, kasu baterako, hala nahi dutenek musika-eskolan euskaraz ikasten jarraitzeko aukera izatea edo euskarazko udalekuez gozatzeko aukerak zabaltzen joatea.

4.1.2 Euskaratik pentsatutako babesguneak sortzea

Gizatalde osoak jarduerak euskaraz jasotzeko modurik ez egon arren, esan dugu hizkuntza minorizatuaren indarberritzeak ezinbestekoa duela diskriminazio positiboa politika publikoetan. Ideien logika horretatik garrantzitsua da berariaz euskaratik pentsatutako euskarazko jarduerak sortzea edota sortzen laguntzea erakunde publikoetatik, haur eta gazte horien euskarazko garapena osatzen laguntzeko alde batetik, baina baita ere ahalik eta esperientzia bizigarri eta esanguratsuez gozatzeko guneak, babesguneak, eskaintzeko.

4.1.3 Pedagogia egitea

Norabide horretan pausuak emateko, garrantzitsua da haur eta nerabeen heziketaren parte diren agente nagusiekin lan egitea. Lan egitea ikastetxeetako ardura-dun zein irakasleekin eta udaletako arduradun politiko eta teknikoekin eta noski, gurasoekin. Guztiekin jarri behar da gaia mahai gainean eta elkarrekin eztabaidatu eta adostu zer, zergatik eta nola egitea komeni zaion euskararen indarberritzeari eta haur eta nerabeen hizkuntza-garapenari.

4.1.4 Aisialdirako edukiak sortzea

Aisialdiak, eskola-orduz kanpoko jarduerak, edukiak ditu (musika, kirola, dantza...). Eduki horiek euskaraz sortzea eta zabaltzea garrantzitsua da haur eta gazteek horiekin goza dezaten. Eta eduki horien sortzaileak eta zabaltzaileak birsortzeko zeharkako politikak (bereziki kirolaren eta kulturaren arloetan) antolatzeko asko lagunduko luke haur eta gazteek erreferente euskaldunak izan ditzaten eurentzat hain erakargarriak diren jardueretan.

4.2 Komunitate-estrategietan

4.2.1 Euskaratik pentsatutako babesguneak eraikitzea edota areagotzea

Eremu osoa arnagune izateko oinarririk ez izan arren, eremu erdaldundue-tarako (euskaldun dentsitate txikiko Nafarroako eta Iparraldeko eremuetarako) oinarrizko estrategia da euskaraz ikasten ari diren haiei ahalik eta euskarazko jarduera gehien eskaintzea eskolaz kanpo. Eta horretarako, euskarazko lerroak dituzten ikastetxeak, eskola-komunitateak, izan daitezke oinarri, eskola barruan egiten denari eskolaz kanpoko ahalik eta eskaintza zabalena gehituz eta hizkuntza-irizpide eta dinamika eraldatzaileenak bultzatuz.

Ikastetxeen lan horrek erakunde publikoen eta gizarte-izaerako euskalgintzaren ahalik eta babes eta elkarlan handiena jasotzea du oinarrizko bidelagun. Gizarte-politiketan antzera; are gehiago, gizarte-izaerako euskalgintzaren zeregin estrate-

gikoa izan daiteke belaunaldi berriei eskainitako babesguneak sortzea. Euskaratik berariaz pentsatutakoak eta helburu kuantitatiboa baino gehiago kualitatiboa dutenak, bai jardueran parte hartuko duten haur eta gazteentzat, bai gizatalde horiek hizkuntza-komunitatearekiko duten garrantziaren ikuspegitik.

4.2.2 Aisialdia landuko duen euskalgintza saretzea

Arestian aipatu diren helburu horiek lantzeko, oinarritzakoa da berariaz babesgune horiek sortzen eta ugaltzen lan egingo duen euskalgintza saretu bat eraikitzea (euskara eta aisialdi elkarteak, hezitzaile-eskolak...), euskaraz sortzeaz gain, haur eta nerabeentzako jarduerak euskaratik pentsatuta sortuko dituen euskalgintza saretu bat, tokian tokiko beharretatik pentsatu eta hartara egokitutako babesguneak sortzea helburu izango duena.

5. Bi hitz eta bide bat

Lehendabizikoa, **sinesgarritasuna**. Agian ponentzia sektorial honen langaia, aisia, 16 urte bitarterako eskola-orduz kanpoko jarduera antolatuak, alegia, gogoeta-gai ditugun gaien artean txikienetakoa, ahulenetakoa edo garrantzia mugatuene-koa izan daitekeela pentsa dezakegu. Izan ere ez da garrantzitsuen (hezkuntza, lan-mundua...), baina bai agian esku artean dugunaren sinesgarritasuna neurtzeko gairik esanguratsuenetakoa.

Haur eta gazteek, eskolaz harago, habitat linguistiko hori premiazkoa baldin badute euren osatze linguistikoan, sinesgarria egingo al zaie eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz ez izan arren, euren bizitzako beste eremu batzuk nagusiki euskaraz izango direla?

Eta hizkuntza indarberritzearen planoan, berriz, galdera bertsua: Eremu jakin bat arnagune soziofuntzional izatea adosten eta gauzatzen ez badugu, sinesgarria al da beste eremu batzuk hala izan daitezen adostu eta lortuko dugula?

Bigarrena, **erabakitasuna**. Gaia ez da berria. Askotan errepikatutakoa. Gerraostean euskararen indarberritzea ikastolekin hasi zenetik bertatik hauteman zuten eremu honen garrantzia. Orduan bertan ekin zioten euskaratik pentsatutako babesgune batzuk (udalekuak...) eraikitzeari. Geroztik ere makina ahalegin egin dira (eta egin beharko dira) babesgune horiek elikatze eta ugaritze. Ados.

Hala ere, hizkuntza indarberritzeko prozesuak, babesguneak eraikitzetik oso harago, arnagune soziofuntzionalak zergatik behar dituen azaltzen ahalegindu gara hemen, eta zehazki eremu honek zergatik izan behar duen arnagune soziofuntzional argudiatzen ere bai. Soziolinguistikaz ikaragarri ere ez da jakin behar hori ikusteko eta ulertzeko.

Esandakoak hala baldin badira, behintzat erabakitasun, ausardia, handiagoa beharko genuke adosteko, lehendabizi, eta gauzatzeko, ondoren. Sinesgarritasuna daukagu jokoan.

Amaitzeko, txosten honek landu ez duena aipatzea merezi duelakoan, interesgarria izan daiteke iradokitzea hemen jasotako ideiek eskatzen dutela zehaztasun gehiago bai baliabideei dagokienean (besteak beste, diruzkoak, baina ez bakarrik), bai eremua osatzen duten jardueren identifikazioari dagokionean ere. Izan ere, hasieran aipatu dugun modura, «16 urtez azpiko haur eta gazteen eskola-orduz kanpoko jarduerak» esaten dugunean, elkarrekiko desberdinak diren gauza asko barnebiltzen dituen zerbait esaten ari gara. Horregatik, esku-hartze bati begira, komenigarria litzateke jarduera horien identifikazio on bat, mapa bat egitea, bereziki jardueren antolatzaileak zeintzuk diren eta zein egitura edota erakunderen parte-hartzearekin bideratzen diren jakitea.

Idea horren nolabaiteko hasikina, eskala txikian, udalerrri-mailan, badago eta «Eskola-orduz kanpoko jardueren hizkuntza-egoera diagnostikatzeko tresna»⁵ du izena. Hala ere, gaiari irmo heltzera iritsiko bagina, besteak beste, komenigarria litzateke zenbait ikerketa-lerro abian jartzea, eremuak eskatzen duen eraldaketa bideratzeko, alde batetik, eta izango lukeen garapenari zehaztasun handiagoz jarraipena egiteko, beste alde batetik.

6. Bibliografia

- BASTARDAS, Albert (2005). *Cap a una sostenibilitat lingüística*. Bartzelona: Angle.
- BIAIN, Iñaki eta IBARRETXE, Joseba (2022). *Zer eta nola egin behar dugu eskolan gure ikasleek euskaraz hobeto eta gehiago egin dezaten? Zein dira gako nagusiak?* Udaltop 2022. <https://www.udaltop.eus/eu/dokumentuak> (2025eko irailaren 13an kontsultatua).
- EUSKO JAURLARITZA (1991). *Eskola hiltun bila*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA (2020). *EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan (2011-2017) txosten exekutiboa*: 13-14. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSKO JAURLARITZA (2024). *Aroa. Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduentzeko marko estrategikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- GRIN, François (2018). «Does subsidiarity make for more comprehensive language policies?», in *Mobility and inclusion in multilingual Europe*. The MIME vademecum. Europar Batasuna: Grandson.

⁵ Eusko Jaurlaritza. (2023). <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albiste/2023/eskola-orduz-kanpoko-jardueren-hizkuntza-egoera-diagnostikatzeko-tresna/> (2025eko irailaren 13an kontsultatua).

LARRAÑAGA, Iñaki, ARACIL, Lluís V. (1984). *Euskara gizarte bizitzan 76*. Zarautz: Tolosako Udala.

MARÍ, Isidor (2006). *Mundialització, interculturalitat i multilingüisme*. Palma: Lleonard Muntaner.

PUJOLAR, Joan (2020). «La mercantilización de las lenguas (commodification)», in *Claves para entender el multilingüismo contemporáneo*:131-164. Zaragoza: Universidad de Zaragoza.

SANCHEZ CARRIÓN, José M. Txepetx (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Lizarra: José M.^a Sanchez Carrión.

SUBERBIOLA, Pablo (2022). *Eskolaz kanpo, zer eta nola egin behar dugu hobeto, hiztun ho-beak sortzeko?* Udaltop 2022. <https://www.udaltop.eus/eu/dokumentuak> (2025eko irailaren 13an kontsultatua).

UDALTOP 2022. *Udaletarako zenbait gidalerro eskola-orduz kanpoko jardueretan eskola-orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera indartzeko*. Udaltop 2022. <https://www.udaltop.eus/eu/dokumentuak> (2025eko irailaren 13an kontsultatua).

URRUTIA, Iñigo, AMUNDARAIN Joxean eta ARRUTI, Iñaki (2022). *Araututa daiteke edota komeni da 16 urte bitartekoentzat udalerrian egiten diren eskola-orduz kanpoko jarduera guztiak euskaraz izan daitezen? Baiezkotan, nola?* Udaltop 2022. <https://www.udaltop.eus/eu/dokumentuak> (2025eko irailaren 13an kontsultatua).

ETORKIZUN-IKUSPEGIA: ADMINISTRAZIOKO TXOSTEN SEKTORIALEKO PONENTZIA

Maite Zipitria Agirrezabala

Hizkuntza Normalizazioko teknikaria

Donostiako Udala

Joxean Amundarain Iturrioz

Hizkuntza Normalizazioko teknikaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

I. Ponentziaren markoa	123
2. Abiaturua.....	123
3. Pausoak.....	124
3.1 Gizarte-politiketan eman beharreko pausoak.....	124
3.1.1 Sektore publikoak sinesgarritasun handiagoz jokatu beharko du.....	124
3.1.2 Pentsatu behar dugu administrazio publikoen organigramaren barruan zein toki dagokien hizkuntza-politikez arduratuko diren sailei	125
3.1.3. Arreta berezia izan behar dugu herritarrengandik gertuen dauden administrazioekin.....	125
3.1.4 Administrazioa herritarrengandik hurbilago egoteko lan egin beharko dugu.....	125
3.1.5 Administrazioan zehar-lerroen lanketa efektibo bat bilatu behar dugu.....	126
3.1.6 Komeni zaigu arreta handiagoa jartzea Administrazioaren jardunak duen izaera transbertsalean.....	126
3.1.7 Etorkizuneko euskara-zerbitzuen ezaugarrietan pentsatu beharra dago.....	127
3.1.8 Prozesua lideratzeko beharrezkoa dugu lidergo kateak eraikitzea	128
3.2 Komunitate-estrategian eman beharreko pausoak	129
3.2.1 Hizkuntza-komunitatean jarri beharra daukagu fokua..	129

3.2.2 Administrazioetik hizkuntza-komunitateko herriarrekinek konektatu behar dugu.....	130
3.2.3 Administrazio euskaldunen sarea indartu beharra dago	130
4. Jauziak.....	131
4.1 Gizarte-politiketan eman beharreko jauziak.....	131
4.1.1 Baldintzak daude Administrazioa izateko hurrengo arnasgune funtzionala	131
4.1.2 Tresna juridikoak landu beharko ditugu, bereziki Funtzio Publikoan lan egiteko edo sektore pribatuak Administrazioarekin lan egiteko hizkuntza-baldintzak finkatzeko.....	132
4.1.3 Diskurtso autozentratu bat landu behar dugu, euskarazko jarduna ardatz izango duena.....	132
4.1.4 Administrazioek euskararen irradiazio-gune izan behar dute.....	133
4.1.5 Gogoan izan behar ditugu indarberritze-prozesuan parte hartu ez duten pertsonak.....	133
4.1.6 Gizarteak eta Administrazioak elkarren beharra dute indarberritze-prozesuak aurrera egingo badu.....	134
4.1.7 Politika publiko proaktiboak behar ditugu.....	134
4.1.8 Euskara kontuan izango duten harrera-protokolo sendoak behar ditugu.....	135
4.1.9 Hiriburuei begirako berariazko hizkuntza-estrategiak behar ditugu.....	135
4.2 Komunitate-estrategian eman beharreko jauziak.....	136
4.2.1 Erakunde traktoreak identifikatu beharko ditugu, planifikatu eta tresnak eman, bereziki juridikoak.....	136
4.2.2 Hizkuntza-komunitatea trinkotzeko estrategia bat behar dugu.....	137
4.2.3 Hizkuntza-zuzenbideko aditu gehiago behar ditugu...	138
5 Azken hitza	138
6. Bibliografia.....	139

I. Ponentziaren markoa

Ponentzia hau Euskararen Gogoetagineak *Etorkizun-ikuspegia* izenarekin aurkeztutako proiektuaren markoan kokatu behar da. Saiakera bat egin dugu gure ideia eta iradokizunak ponentzia nagusian azaldutako kontzeptuekin lotzeko.

2. Abiaturua

Maila soziopolitikoan euskarak Administrazioan izan behar duen tokiari buruz eztabaidatzen denean, maiz jartzen dira parez pare, maila berean, euskara eta gaztelania edo frantsesa. Hau da, hizkuntza minorizatu bat eta hedapen handiko nazioarteko bi hizkuntza.

Ahaztu egiten zaigu, edo lausotuta geratzen da, euskarak eta gaztelaniak edo frantsesak egoera sozial eta juridiko desberdina bizi dutela, eta ezin dugula berdin tratatu egoera desberdinean dagoena; alegia, Administrazioak indar orekatzailea izan behar du eta euskarak, garatuko bada, espazio eta funtzio batzuetan nagusitu behar du ezinbestean, bizirik darraiten gainerako hizkuntza komunitate guztiak bezala.

Sinetsita gaude etorkizuneko ikuspegia euskaratik eta euskaraz pentsatu behar dugula, betiere daukagun errealitate soziopolitikoa eta soziolinguistikoa aintzat harturik. Hau da, pentsatu behar dugu zein funtzio bete dezakeen Administrazioak hizkuntza minorizatu baten berreskurapen prozesuan, Europako Mendebaldeko bi demokrazia liberalen markoan.

Abiapuntuko gure hipotesia da, eskolaren ondoren, baldintza objektiboak eta subjektiboak daudela Euskal Herriko gune geografiko askotan planteatzeko Administrazioa izan daitekeela euskararentzat hurrengo arnagune soziofuntzionala¹ eta xede hori lortzea ezinbestekoa izango dela euskararen normalizazio-prozesuak aurrera egin dezan hurrengo urteetan. Jakina, graduazio bat egin beharko da administrazio-moten eta eremu geografikoen artean, eta bat etorri beharko du Euskal Herrian daukagun aniztasunarekin.

Era berean, iruditzen zaigu ez dugula bistatik galdu behar Administrazioaren jardunak berezko izaera sektoriala gainditzen duela eta, hala, gizarteko ia arlo guztiak blaitzen dituela; jarduera transbertsalik bada gure gizartean, Administrazioarena da.

¹ Jakitun gara azken bolada honetan eztabaida dagoela euskal soziolinguistikan *arnagune* (sozio)funtzional terminoaren gainean. Bada termino hori baztertu eta haren ordez *babesgune* proposatu duenik. Ponentzia honetan *arnagune* soziofuntzional terminoa hobetsi dugu 'euskararen erabilera-dentsitate handia eta irradiazio ahalmena' duten espazio soziofuntzionalak izendatzeko. *Babesgune*, berriz, arigune baten definizio akademikoaren hiru baldintzak betetzen ez badituzte ere, euskaraz eroso aritzeko aukera ematen duten guneei deitu diegu; nahiz eta litekeena izan erabilera-dentsitatea ez izatea handia.

3. Pausoak

3.1 Gizarte-politiketan eman beharreko pausoak

3.1.1 Sektore publikoak sinesgarritasun handiagoz jokatu beharko du

Azken urteotan lan handia egin da euskara Administrazioako lan-, zerbitzu- eta komunikazio-hizkuntza izan dadin. Halere, datozen urteetan sektore publikoak koherentzia eta sinesgarritasun handiagoz jokatu beharko du; bereziki, euskara lane-ko hizkuntza izan dadin. Funtzio publikoaz aparte, arlo publikoan, oso gogoan izan behar ditugu kapital publikoko sozietate publikoak; oro har, nabarmen atzenduta baitaude ez bakarrik funtzio publikoan, baizik eta baita euskara plan aurreratuak garatu dituzten kapital pribatuko enpresetan ere. Datozen urteetan sozietate publiko horien hizkuntza-politikek eta -jardunbideek bat egin beharko lukete Administrazio Publikoaren estandarrekin, arlo publiko koherente bat osatzeko.

Bestetik, begi-bistakoa da, oro har, teoriar marko kontzeptual elebidun batean mugitu dela Administrazioa azken urteetan. Datozen urteetan gero eta errealitate eleaniztunago batera joango da gure gizartea eta premiazkoa da euskara ardatz izango duen kultura soziolinguistikoko berri bat zabaltzea administrazioetan, «aldizkari ofizialeko» eredia gaindituta. Kultura soziolinguistikoko berri bat behar dugula diogunean, esan nahi dugu euskararen erabilera eta administrazioen irradiazio-indarra izan behar direla hizkuntza-politiken ipar datozen urteetan eta asumitu behar dugula euskarak, aurrera egin dezan, nagusi izan beharko duela funtzio eta espazio batzuetan.

Alde horretatik azpimarratzekoak dira azken urteotan EAEn onartu diren bi arau (2/2016 Udal Legea eta 179/2019 Dekretua), bat egiten baitute logika soziolinguistikoko horrekin: euskara ardatz izanik erabilera jartzen dute erdigunean eta, aldi berean, progresibotasunaren ideia sartzen dute, emandako urratsetan atzera ez egiteko. Arau horien artikuluko batzuen kontrako sententziak jaso diren arren, datozen urteetako arauak izan behar duten logika soziolinguistikoa planteatu dute.

3.1.2 Pentsatu behar dugu administrazio publikoen organigramaren barruan zein toki dagokien hizkuntza-politikez arduratuko diren sailei

Horrez gain, epe laburrean, planteatu beharra dago administrazio publikoen organigramaren barruan zer toki dagokien hizkuntza-politikez arduratuko diren sailei. Urteetako joera nagusia izan da kultura-sailen barruan kokatzekoa. Pentsa daiteke eredu hori ez dela egokiena hizkuntza-politika zehar-lerro gisa landu nahi bada Administrazioan eta gizartean. Badirudi datozen urteetan alkatetzaren edo lehendakaritzairen mende kokatu beharko liratekeela hizkuntza-politikaz arduratuko diren sailak. Hori ez da nahikoa, noski, baina baldintzak sortzen ditu euskararen zeharkako izaera horrek irismen handiagoa izan dezan.

3.1.3 Arreta berezia izan behar dugu herritarrengandik gertuen dauden administrazioekin

Gobernu eta legebiltzarretan onartzen diren hizkuntza politiken gidarlerro nagusi horiek gizarteratzeko garaian, funtsezko tresna izango da udal-administrazioa. Ponentzia nagusian defendatzen den bezala, datozen urteetan gertuko komunitateak berebiziko garrantzia izango badu euskararen garapenean, komunitate horretatik gertuen dagoen Administrazioak baliabide nahiko beharko ditu hizkuntza-politika sendoak garatzeko: giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta lege-baliabideak.

Era berean, orain arte baino politika sendoagoak gauzatu beharko dira herritarrengandik gertu dauden gainerako administrazio-eragile eta -egoitzetan: osasun-zerbitzuak, polizia, etab. Guk uste dugu gertuko komunitatean eragitea erabakigarria izango dela datozen urteetan. Alde horretatik etorkizun hurbileko gizarte-politikek aintzat hartu beharko dute partekatzen ditugun espazio fisikoak indartzea eta baita horietan gertatzen diren sozializazio-prozesuak ere, euskararen hizkuntza-komunitatea indartu ahal izateko (herriko plazan, auzoan, lantokian, gazte-lekuan, eskolan...).

Gure komunitateek izango duten erronka demografikoaz batera, aztertu beharko dugu gertuko komunitatean nola integratuko ditugun migratzaileak, dagoeneko bertan ditugunak eta etorriko direnak. Euskarak integratziorako eta kohesiorako bidea izan behar du, eta hala izan dadin, errealitate soziolinguistikoen arabera, helburu eta estrategia doituak zehaztu beharko ditugu; baina euskara integratziorako eta berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraikitze bidea izango da, baldin eta norabide horretan, beste esparruetan ere gizarte politika sendoak garatzen badira, hizkuntzaren ikuspegia txertatuta eta migratzaileen eta komunitatearen ongizatea helburu. Migratzaileekin batera, hizkuntza-komunitate berriak ditugu eta izango ditugu, aniztasun hori egoki kudeatzen asmatu behar dugu, euskara erdigunean jarrita.

Jon Sarasuak (2022) dioen bezala, bada hizkuntza-aniztasunerako ezinbesteko baldintza bat. Euskal Herrian 100 hizkuntzatik gora ditugu elkarrekin bizi-tzen, eta horiek existitzen dira beren lurraldean funtzio batzuk betetzen dituztelako eta erreproduzitzeko lur bat dutelako. Euskarak bizitzeko lur hau du, ez besterik. Hortaz, euskarari dagokio lur honetan funtzio garrantzitsu batzuk erreproduzitzea.

3.1.4 Administrazioa herritarrengandik hurbilago egoteko lan egin beharko dugu

Bestalde Administrazioak, bereziki udalek, gizartearekin izan behar duen elkarreragin horretan, arreta handia jarri behar diogu Administrazioan azken urteetan gertatu den gehiegizko burokratizazioari eta baita digitalizazioaren eraginari ere.

Administrazioan herritarrengandik hurbilago egoteko lan egin behar da datozen urteetan; hau da, lankidetzamolde berriak landu behar dira eta herritarrei gertuago sentiarazteko tresnak eskaini behar zaizkie: bai aurrez aurrekoak, bai

digitalak, eta bai harreman formaletan ere, ahal denetan euskara errazeko testuak eskainiz. Herritarrengana hurbiltzeko euskarazko sorkuntzatik abiatu behar da eta euskara gaztelaniaren/frantsesaren mendekotasunetik aldendu, ahal den neurrian. Maialen Lujanbiok (2017) erakutsi zigun bezala, mendekotasun horren ondorio baita *agua potable*ren ondoan «ur edangarri» azaltzea; euskaratik sortzeak, aldiz, «edan lasai» esatera garamatza.

Aldi berean, zantzu guztiak daude adimen artifizialak eragindako disrupzio une baten atarian gaudela. Gertaera horrek paradoxa baten aurrean koka gaitzake. Badirudi digitalizazioaren aurrerapena lotuta doala indibidualismorako joera batekin. Digitalizazioak aurrera egin ahala gero eta indibidualistagoak izango gara, baita Administrazioarekin dugun harremanean ere.

Baina, beste hainbat arlotan ez bezala, estatu-hizkuntza askoren parean egon daitekeen euskarazko ekosistema bat sortzeko aukera du Administrazioak eremu horretan; politika publikoak beharko ditugu datozen urteetan adimen artifizialaren euskarazko garapen horrekin jarraitzeko eta digitalizazio hori izan dadin komunitatea eraikitzeko tresna bat, ez Administrazioa herritarrengandik urrunduko duen beste baliabide bat.

3.1.5 Administrazioan zehar-lerroen lanketa efektibo bat bilatu behar dugu

Arestian hitz egin dugu hizkuntza-politikaz arduratzen diren sailek izan beharreko kokalekuaz, baina ez dugu ahaztu behar sail horietatik egiten den lan sektorialaz aparte, euskara lan-hizkuntza izateko erronka zeharkakotasunez landu beharra dagoela Administrazioako sail desberdinetan, baita hizkuntza-komunitatearen garapena ahalbidetuko duten gizarte politikak eraikitzeko ere. Iru-ditzen zaigu datozen urteetan Administrazioan zehar-lerroak nola lantzen diren hausnartu beharra dagoela eta zehar-lerroen lanketa efektibo bat bilatu beharra dagoela, politika sektorial desberdinetako arduradunak izan daitezen, aldi berean, zehar-lerroen arduradunak.

Auzia beste modu batean planteatuta: Gaur egun zenbat arduradun sektorial sentitzen dira egiten ari diren hizkuntza politikaren erantzule? Erantzule sentitzen diren heinean, hartuko dute hizkuntza-politikaren ardura beren gain. Politika sektorial desberdinetan hizkuntza-politika indartsuak eta kontzienteak egin behar dira; arreta berezia jarritz herritarrengan eragin zuzena duten politiketan (kirolak, gazteria, gizarte-zerbitzuak...). Gure iritzian, funtsezkoa da hemendik aurrera politika publikoetan hizkuntza-inkaptuaren azterketak egitea eta horren arabera neurriak hartzea.

3.1.6 Komeni zaigu arreta handiagoa jartzea Administrazioaren jardunak duen izaera transbertsalean

Horrekin lotuta, hizkuntza biziberritzeko prozesu honetan arreta handiagoa jarri beharko genioke Administrazioaren jardunak berak duen izaera transbertsalean,

hizkuntza-plangintzatik sarri estankoak balira bezala tratatu baititugu hizkuntzaren funtzio desberdinak.

Lehen ere esana dugu Administrazioaren jardunak gizartearen ia arlo guztiak blaitzen dituela. Gogoetagunearen ponentzia nagusia erreferentzia gisa hartuta, bertan identifikatzen diren ia sektore guztietan eragin handia dute Administrazioaren erabaki eta jardunbideek.

Arlo sozioekonomikoa izan daiteke horren adibide on bat. Lan-mundua euskaldundu beharraz hitz egiten denean, prozesu horren onurez edo beharrianaz mintzatzean, Administrazioa erronka horretatik kanpo uzten dugu maiz, bertako langileak lan-munduaren parte izango ez balira bezala. Ahaztu egiten zaigu, termino ekonomikoetan, enpresa handienetako bat dela Administrazioa.

Europar Batasunean, esaterako, populazio aktiboaren % 18k egiten du lan Administrazio Publikoan (Euskal Herrian antzeko kopuruetan gaude) eta Administrazioak duen irradiazio-indarrak [«Barne Produktu Gordinaren % 20 Administrazioaren kontratazioari dagokio EAEn» (Urrutia 2021)] aukera ematen du orain arte behar adinako indarrarekin garatu ez diren politikak gauzatzeko arlo sozioekonomikoan, betiere Administrazioaren beraren eredugarritasunetik abiatuta².

Izan ere, lan-munduan eragiteko, eskura dituen bestelako tresnez gain, Administrazioa bera arnagune bihurtzea baino neurri sendoagorik ez da izango seguru asko. Era berean, euskararen estatusari emango liokeen bultzada ez da gutxiestekoa.

3.1.7 Etorkizuneko euskara-zerbitzuen ezaugarrietan pentsatu beharra dago

Beste alde batetik, Administrazioan euskarak aurrera egiteko prozesua lideratuko duten Hizkuntza Politikako sailen edo euskara-zerbitzuen izaera eta osaketa birplanteatu beharra dago datozen urteetan. Lan tekniko irmo eta eredugarria egin da urteotan, baina pentsa daiteke gizartetik urrun samar ere egon direla batzuetan zerbitzuok.

Euskara-zerbitzuek eraldaketa sozialeko proiektu baten eragile izan behar dute, eta horretarako beharrezkoa da sail horietako langileak ahalduntzea, maila teknikoaren eta politikoaren arteko lankidetzeta eta konfluentziak bilatzea eta euskara-teknikarien lanaren legitimazioa eta ofizioaren kontsakrazioa lortzea.

Atal honetan, azpimarratu nahi dugu beharrezkoa dela administrazioaren maila guztietan euskara-zerbitzu eta -egitura sendoak izatea, ditugun erronka erraldoiei

² Datu hori ematen du Administrazio Publikoaren Institutu Nazionalak: «La proporción de empleados públicos en España se sitúa en la media de la Unión Europea» <https://laadministracionaldia.inap.es/noticia.asp?id=1512051>

erantzun ahal izateko. Aitortu behar dugu zailtasun handiak ditugula belaunaldi berriak lanbide honetara erakartzeko, hainbat faktore tarteko: ez dugu asmatu euskara-teknikarien lana ezagutarazten eta erakargarri egiten; Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian esaterako, euskara-teknikariek testuinguru soziopolitiko are konplexuagoak izateaz gain, lan-baldintza eskasak dituzte maiz... Gai horrek eskatzen du berariazko azterketa egitea eta etorkizuneko estrategiak lantzea.

Etorkizuneko lan horrek ere isla izan beharko luke administrazioetako euskara-zerbitzuek askotan lankide izan dituzten aholkularitza-enpresen lanaren errekonozimenduan eta, hornitzaile-bezero harreman hierarkikoaren ondoan, elkar-lan publiko-pribatuko molde berriak probatu beharko lirateke³.

3.1.8 Prozesua lideratzeko beharrezkoa dugu lidergo kateak eraikitzea

Euskara-zerbitzuek lideratu beharko dute prozesu hau, baina ondoan lidergoa erakusten duten politikariak eta teknikariak beharko dituzte. Prozesu honek aurrera egin dezan, kargu politikoei ardura administratiboak esleitzean haien hizkuntza-gaitasuna eta jokaera linguistikoa ere izan beharko dira kontuan, ez dadin hainbat eraldaketa-prozesuren progresibotasuna eten.

Datozen 20 urteetako biziberritze-prozesua lideratzeko, beharrezkoa izango dugu lidergo partekatu bat garatzea eta hainbat lidergo kate eraikitzea. Lidergo horrek eta lidergo hori garatuko duten pertsonen eragin ahalmena izateko, hainbat osagai izan beharko dituzte kontuan; besteak beste:

- Konpetentzia: Liderren iritzia jakintzan eta alorreko esperientzian oinarrituta izan behar du (lidergo politikoa nahiz teknikoaz ari gara; bai Administrazio barruan, bai gizarte-eragileen artean).
- Oinarritzeko ponentzian jaso bezala, ikuspegi inspiratzaile bat behar du Administrazioak ere: «Horra» iritsi behar du Administrazioak eta hor jarri behar du fokua.
- Prozesuaren eta pertsonen sinesgarritasuna, koherentzia, eredugarritasuna ezinbestekoa da aurrera egitekotan. Sinesgarritasuna irabazi egin behar dugu Administrazio barruan, eta baita kanpoan ere. Esaten eta egiten dugunak bat etorri behar du.
- Pertsonetikiko hurbiltasuna: Pertsonekin, jendartearekin konektatzeko gaitasuna. Pertsonen entzutea, eroso sentiaraztea, pertsonekin konektatzea...

³ Euskara-zerbitzuen etorkizun ikuspegiak nabarmentzeko da Euskaltzaindiaren Donostiako egoitzan bertan, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak, Lasarte-Oriako Udalak eta Agirre Lehendakaria Centerrek landu zuten Etorkizuneko Euskara Zerbitzua izeneko agiria (<https://labur.eus/nT8yb>)

Behar besteko garrantzia eman behar zaio alderdi horri, ahalik eta jende gehienak eta anitzenak euskararen biziberritze-prozesuarekin konektatzea nahi badugu.

Azken inkesta soziolinguistikoak erakutsi du gizartean aldeketasun handia dagoela euskara sustatzeko politikei dagokienez, gutxienez EAEn⁴ (Eusko Jaurlaritzak 2024). Atal honetan proposatutako pausoak asko erraztuko lituzke alderdi politikoen artean hizkuntzaren auzia lantzeak eta alderdien arteko gutxieneko adostasun linguistiko batek. Gure iritzian, akordio horren bidez ahalbidetu beharko litzateke ez bakarrik hizkuntza-komunitate gutxituak nola edo hala bizirik irautea, baizik eta, komunitate gisa, osorik garatzeko aukera erreala izatea. Horretarako, adostasun horrek erdigunean jarri eta errespetatu beharko lituzke, zientziaren argitan, hizkuntza-komunitateak garatu ahal izateko behar dituen funtzionamendu arauak. Adostasun hori lortu ahal izateko baldintzak landu eta sortu egin beharko dira. Beharrezkoa da, beraz, baldintza horiek sortzeko prozesuak abian jartzea. Euskaltzaindiaren Gogoetagunea bera izan daiteke horretarako aukeretako bat.

3.2 Komunitate-estrategian eman beharreko pausoak

3.2.1 Hizkuntza-komunitatean jarri beharra daukagu fokua

Euskal hiztunen hizkuntza-komunitate gisa Administrazioan proiektu eredarriak landu baditugu ere, uste dugu hizkuntza-komunitate estrategietan indarra galtzen joan garela; gehiegi erreparatu zaie hiztunaren ardura indibidualari eta askatasun indibidualari. Eta ez da kasualitatea ikuspegi hori gailendu izana: hizkuntza hegemonikoek ezarri ohi dute zein den hizkuntza gutxituaren jokozelaia. Hizkuntza-komunitatearen gaineko fokua indartzea beharrezkoa da, gure ustez. Euskararen biziberritzea ezin da bakarrik norbanakoaren esku utzi, Administrazioan ere ez; politikak eta estrategia zehatzak behar dira, baita politika ausartagoak ere, hizkuntza-komunitatearen abangoardiarekin bat diseinatuak.

Hizkuntz Eskubideen Adierazpen Unibertsalean onartu zen moduan (Bartzelona, 1996), hizkuntz eskubideak indibidualak eta kolektiboak dira. Hau da, subjektu batek bere hizkuntza-eskubide indibidualak erabil ditzake, baldin eta bere hiztun-komunitatea existitzen bada eta garatzeko aukera ematen bazaio. Hortaz, hizkuntza-eskubide oro oinarritzen da hiztun-komunitatean eta jatorri kolektiboa du.

Bestalde, badira gure komunitatean bertan normalizazio-prozesuari uzkur begiratzen dioten pertsonak edo prozesu horretatik urrundu direnak. Datozen

⁴ «EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 67 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 26,3 ez alde ez aurka eta % 6,8 aurka».

urteetan beharko dira ideia eta politika publiko berriak orain arte urruti geratu diren edo geratzen ari diren sektore horietara iristeko; bereziki belaualdi berriengan eragiteko.

3.2.2 Administrazioetik hizkuntza-komunitateko herritarrekin konektatu behar dugu

Gure komunitateko herritarrengana hurbiltzearekin batera, behar ditugu herritarrak aktibatu eta estrategiak eraiki zerbitzu eskatzaile izan daitezkeen Administrazioan. Hizkuntza-komunitate gisa Administrazioari koherentzia handiagoa eskatzeko unea iritsi dela iruditzen zaigu euskara lan-, zerbitzu- eta komunikazio-hizkuntza izan dadin. Era berean, garai bateko gatazka-eredu batzuk alde batera utzita, komunitate gisa Administrazioarekin lankidetzako harremanak eraikitzekeko eredu berriak sortu behar ditugu.

Lehen aipatu dugu hizkuntza hegemonikoak ezartzen duela hizkuntza gutxi-tuaren joko-zelaia. Gehienetan, oharkabean bada ere, hizkuntza hegemonikoaren begirada nagusitzen da gizartean eta hizkuntza-komunitatean. Eta herritarrak aktibatzeke (Administrazioko langileak ere bai) garrantzitsua da gaur egun bizi dugun hizkuntza-errealitatea hizkuntza gutxi-tuaren begiradatik interpretatzen laguntzea, bizi dugun errealitate horren ezagutza partekatuan sakontzen lagunduko baitigu, hiltun gisa uste eta pentsatzen duguna deseraikitzen eta berreraikitzen, maila indibidual eta kolektiboan. Administrazioetik hizkuntza-komunitateko herritarrekin berriro konektatu behar dugu eta herritarren aktibazioa kontakizun eraldatzailearekin uztartu.

Administrazioak berak hausnarketa bat egin beharko luke gure hizkuntza-komunitateko eragile sozialekin eta herritarrekin ez ote duen harreman hierarkikoegia izan. Ematen du datozen urteetan lan egiteko eta harremanak izateko molde horiek aldatu egin beharko direla eraginkorragoak izan nahi badugu.

Beste alde batetik, herritarrekin ditugun harremanak direla eta, erreparatu beharko genuke herritarren euskarazko hautua zenbaitetan Administrazio eta herritarren arteko botere-harreman desorekatua areagotzeko arrazoia izan ohi dela Euskal Herriko geografia zabalean. Hori ere bada datozen urteetan lantzeko gai bat.

3.2.3 Administrazio euskaldunen sarea indartu beharra dago

Azkenik, berriki udal euskaldunen mankomunitateak 100 udalen langa gainditu du. Ezinbestekoa da udal (eta oro har, administrazio) euskaldunen sare hori indartzea, lege-babes nahikoa ematea, egon daitezkeen gorabehera politikoetatik babestea eta partaide diren Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko udalen kopurua handitzea; hartara, udal euskaldunen mapak bat egin dezan euskal hizkuntza-komunitatearen maparekin.

Hizkuntza-komunitate gisa gure buruari planteatu beharko genioke zein izan daitekeen udal euskaldunen sare horren zentzuzko neurri desiragarria hogeit urte barru eta politika aktiboak abian jarri xede horretara iristeko; administrazio euskaldunen sare horrek pisuzko eragilea behar du izan etorkizuneko hizkuntza-politika eta -legedia zehaztu eta gauzatzeko garaian.

Finean, zatiketa administratiboaren gainetik, hizkuntza-komunitatearen bizi-raupena ahalbidetuko duten lankidetzak-ereduak eraiki behar ditugu.

4. Jauziak

4.1 Gizarte-politiketan eman beharreko jauziak

4.1.1 Baldintzak daude Administrazioa izateko hurrengo arnasgune funtzionala

Testu honen hasieran idatzi dugun bezala, euskal gizarteak lan handia egin du euskara derrigorrezko hezkuntzako hizkuntza nagusia izan dadin. Lurraldez lurralde egon daitezkeen mugak gorabehera, esan dezakegu eskolak arnasgune funtzional edo babesgune direla euskal geografiako gune askotan. Baina, aldi berean, gero eta garbia-go ikusten da zein diren eskolaren mugak euskal hiztun aktiboak sortzeko garaian.

Hizkuntza-plangintzaren ikuspegitik eta gizarte bezala egin dugun inbertsio erraldoi hori ez galtzeko, iruditzen zaigu hurrengo xedea izan beharko litzatekeela konplexurik gabe planteatzea Administrazio Publikoak arnasgune funtzionala izan behar duela Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko hainbat gunetan.

Eskolan egindako lanaren ondoren badira baldintza objektiboak (VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 74,5 euskaldunak dira EAEn) eta subjektiboak (inkesta soziolinguistiko beraren arabera, EAEko biztanleen % 74,7k uste du Administrazioan sartzeko euskara jakin beharko litzatekeela) xede hori planteatzeko.

Gizarte gisa, beste arlo batzuetan zailtasun objektiboak izan ditzakegun bezala (hedabideen kontsumoan edo arlo sozioekonomikoan, garai ultraliberal hauetan), gure esku dago hainbat neurri eta politika inplementatzea Administrazioan euskara izan dadin ardatz hizkuntza eta Administrazioak izan daitezen hizkuntzaren irradiazio-guneak. Jakina, hori guztia kontuan izanda graduazio bat egin beharko dela administrazio-moten eta eremu geografikoen artean: batzuk dagoeneko badi-ra arnasgune soziofuntzionalak, beste batzuk gertu daude edo izateko baldintzak badituzte eta badira errealitate horretatik oso urrun daudenak ere; baina azken horien iruditegian aukera eta ideia horri leku egitea ezinbestekoa izango da norabide horretan urratsak egiteko.

4.1.2 Tresna juridikoak landu beharko ditugu, bereziki Funtzio Publikoan lan egiteko edo sektore pribatuak Administrazioarekin lan egiteko hizkuntza-baldintzak finkatzeko

Helburu hori lortzeko, besteak beste, dauzkagun tresna juridikoak landu eta moldatu egin beharko dira. Arreta berezia jarri behar da Funtzio Publikoan lan egiteko edo, arlo pribatuaren kasuan, Administrazioarekin lan egiteko eskatuko diren hizkuntza-baldintzetan. Kontziente gara azken hilabeteetan Hego Euskal Herrian, bereziki EAEn, argitaratu diren hainbat sententziak eragin nabarmena izan dezaketela etorkizun hurbilean (zantzu guztiak daude inboluzio juridiko baten erdian gaudela arlo honetan); baina gure ustez, gizarte bezala, honako galdera hau egin beharko genioke gure buruari: Imajinatzen al dugu hogeitau urte barru bi hizkuntza ofizialak jakingo ez dituen pertsona-kopuru esanguratsu bat iritsiko dela Administrazio Publikora?

Oso aintzat hartu behar dugu genero-berdintasunak aldarrikatzen duen 60-40 formulak ez duela balio euskara eta gaztelania edo frantsesaren arteko benetako berdintasuna lortzeko. Badakigu arnasmune geografikoetan ere euskararen ezagutza % 80koa edo % 90koa izateak nolako inpaktua duen euskararen erabileran.

Euskararen neurri bateko edo besteko ezagutza Administrazioko langile guztiei eskatzea ez da maximalismoetan aritzea, baizik eta hizkuntzen berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintzak sortzea. Horixe bera zaie aplikagarria, noski, ordezkari politikoei.

Izan ere, Galizian eta Katalunian derrigorrezkoa da bi hizkuntza ofizialak ezaugarritzea Administrazioan lan egiteko. Ez al da hori etorkizun desiragarri eta zentzuzkoa euskararentzat?

4.1.3 Diskurtso autozentratu bat landu behar dugu, euskarazko jarduna ardatz izango duena

Hortaz, gure hipotesia da euskararen biziberritze-prozesuak aurrera egin dezan diskurtso autozentratu bat landu beharra dagoela arduradun politikoei eta langile publikoei begira; orain arteko logika elebiduna («aldizkari ofizialaren eredu») integratu eta gaingidutako duena eta euskara Administrazioaren ardatz hizkuntza izanda, euskarazko jardunak eta hautuak ahalbidetuko dituena.

Jakina, administrazio eta lurralde guztiak ez daude egoera berean lan horri ekiteko, eta erritmo eta intentsitate desberdinetako politikak eraman beharko dira aurrera. Zenbait administrazio, eta ez bakarrik udal txikiak, jauzi esanguratsu bat emateko moduan daude euskararen erabileran; baina salto hori emateko moduan ez dauden beste administrazio oso garrantzitsu batzuetan planteatu daitezke tarteko bideak (esaterako, euskarazko bidegorriak edo euskararen erabileran konpartimentalizazio diglosiko bat tarteko urrats gisa), beti ere iparra garbi izanda: hogeitau urte barru hizkuntza minorizatu bat Administrazioaren ardatz hizkuntza izan dadila Europa Mendebaldean. Iruditzen zaigu horixe izan daitekeela Administrazioaren normalizazio-prozesua lideratuko duen ikuspegi inspiratzailea.

Beste modu batean esanda: ikuspegi sendoa, politika sendoak behar ditugu, eta, beraz, goi-mailako erabaki politiko sendoak; baina administrazio batek oso-tasunean ezin duenean jauzia egin, iraultza txikiak ahalbidetzeko baldintzak sortu behar ditugu. Argi dugu urrats txiki askorekin urrats handiak egin ditzakegula eta mugimendu txiki batek beste hainbat mugimendu eragiten dituela. Mugimendu horiek norabide egokian ematea da kontua.

Hortaz, euskaraz funtzionatuko duten dentsitate handiko guneak eta, aldi berean, irradiazio-guneak izan daitezkeenak behar ditugu. Kasu batzuetan, administrazio osoak izango dira; beste batzuetan, administrazio horietako sailak izan daitezke, irradiazio-gune garrantzitsuak erakundearen ezaugarrien arabera eta erakunde barruan nahiz kanpoan duten eragiteko gaitasuna aintzat hartuta.

4.1.4 Administrazioek euskararen irradiazio-gune izan behar dute

Zer esan nahi dugu administrazioek irradiazio-gune izan behar dutela adierazten dugunean? Administrazioaren (edo udalaren) jardunak arnagune izateaz gain, administrazio horrek herritarrekin zuzenean antolatzen duen politika oro izan behar du arnagune horretarako baldintza objektiboak daudenean, eta, ez badaude, begi-bistan izan behar dute horiek sortzeko neurriek.

Adibide bat jartzearen, gure gizarteak ahalegin handia egin du derrigorrezko hezkuntza euskaraz izan dadin EAEn. Ba al du zentzurik administrazio publikoek 16 urte bitarteko gazteentzat antolatzen edo sustatzen duten ekintza oro euskaraz ez izateak? Jarduera horiek euskaraz antolatzea interes publikoko kontu bat baino ez da, gizartea kohesionatzeko balio du eta euskararen gaitasunaren eta erabileraren aldetik zailtasunak dituzten gazteei lagundu baino ez lieke egingo aisialdiko euskarazko jardun horietan aritzeak.

Beste hitz batzuetan esanda, Administrazioak aldaketaren objektu ez ezik, aldaketaren subjektu, aldaketa eragile ere izan behar du: lege-garapen egoki batekin (Lasarte-Oria, Irun, Zizur Nagusia, Uliazpi bezalako sententziak gerta ez daitezken...) edo, dauzkan ahalmenen arabera, euskararen indarberritzeak eskatzen dituen politikak inplementatuz (erosketa publiko arduratsu baten bidez, BPGren den % 20 horretan eraginez).

4.1.5 Gogoan izan behar ditugu indarberritze-prozesuan parte hartu ez duten pertsonak

Hori dena esanda, kontziente izan behar dugu gizartearen eta langile publikoen sektore batek ez duela aktiboki hartu parte euskararen normalizazio-prozesuan eta parte hartu duten batzuk bidean galdu ditugula, haientzat sinesgarritasuna galdu dugulako, besteak beste. Datozen urteetan lan egin beharko dugu aktiboki parte hartu ez duten pertsona horiek ere interpelatuak senti daitezken eta bidean galdu ditugun horien aurrean sinesgarritasuna irabazteko, prozesu edo ikuspegi inspiratzaile eta lidergo koherente batean oinarrituta.

Horrez gain, gizarte-mailan oro har eta, guri dagokigunagatik, administrazioetako langile nahiz arduradun tekniko eta politikoeekin pedagogia-lana egitea ezinbestekoa da. Hau da, proposatzen ditugun estrategia, politika eta neurri jakin horiek zergatik proposatzen ditugun azaltzea. Alegia, prozesuaren zentzua azaltze hutsa izan daiteke herritar eta langile batzuen ustezko motibazio eza gainditzeko tresna eraginkorrenetako bat.

4.1.6 Gizarteak eta Administrazioak elkarren beharra dute indarberritze-prozesuak aurrera egingo badu

Jauzi hori eman ahal izateko Administrazioaren dimentsio soziopolitikoari buruz pentsatu beharra dugula iruditzen zaigu. Gizartea eta Administrazioa elkarrengandik oso bereiz sentitu izan dira, gure ustez, azken urteotan. Administrazioa eta gizartea bereizitako bi entitate gisa sentitu izanak ere ekarri digu deskonexio bat Administrazioari esleitutako dimentsio politiko-instituzionalaren eta gizartearen dinamika sozialaren eta ekonomikoaren artean.

Horrela, Administrazioaren biziberritze-prozesuak herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeari garrantzia eman dio, oro har, eta hala eman behar dio gizarte demokratiko batean; eta, aldi berean, nabarmendu dugu euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak errespetatu daitezen, eskatzaile izan behar dutela herritarrek. Zalantzarik gabe hori estrategikoa da: herritarrek eskatu, Administrazioa mugiarazi eta eskari horri erantzutea.

Baina barne-ikuspegia ere gehiago landu behar dela uste dugu. Izan ere, Administrazioa gizartearen barruan dagoen eragile bat da, haren parte da, barrutik kanpora ere eragin behar duena gizartean ematen diren desberdinkeriak, hizkuntzarenak gure kasuan, ahal den heinean eta herritarrek dituzten beharrei eta eskubideei ahal den neurrian aurrea hartzeko.

Hizkuntza-komunitate gutxitu baten garapenak ezinbestean behar du hizkuntza-komunitate aktibo bat Administrazioa mugiaraziko duena, eta, era berean, administrazio bat, barrutik kanpora eragingo duena, hiztun-komunitatea sendotzen eta haren hizkuntza-eskubideak bermatzen. Elkarren beharra dugu euskararen normalizazioa lortuko bada.

4.1.7 Politika publiko proaktiboak behar ditugu

Hizkuntza politikaren eragile garen aldetik, gure buruari galdetu beharko genioke, dena dela, gure politika publikoak ez ote diren azken urteotan erreaktiboak izan. Kontua ez da, inola ere, orain arte egindako lana zalantzan jartzea, baina iruditzen zaigu osatzen ari den gizarte konplexu honek jarrera proaktiboa eskatuko duela politika publikoetan, eta gai izan beharko dugula esperimentaziorako guneak sortzeko. Ez bakarrik hizkuntza-politikan; gizarte konplexu baten aurrean pentsae-

ra eta politika proaktiboetan gehiago sakondu beharra jasota dago, esaterako, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoan (ARDATZ 2030)⁵.

Aldi berean, alderdi politikoaren artean eta administrazioen artean Administrazioaren hizkuntza-jardunaren gainean hitz egiteko eta ikuspegi partekatuak eraikitzeke guneak eratzeko garaia iritsi dela iruditzen zaigu. Horrekin lotuta, garrantzitsua da gune iraunkor bat izatea Ipar Euskal Herriko, Nafarroako eta EAEko euskarateknikarien ordezkariak bilduko dituen. Horrek aukera emango digu hiztun-komunitatearen errealitate desberdinak aintzat hartuta, hausnarketa estrategiko partekatuak bideratzeko eta elkarlana hobetzeko. Era berean, erakunde desberdinen artean, ikuspuntuak partekatzeaz gain, proiektuak eta planak elkarrekin eraiki eta eraginkortasunez inplementatzeko garaia iritsi da, euskararen erabilera helburu eta gobernantza kolaboratiboa ardatz.

4.1.8 Euskara kontuan izango duten harrera-protokolo sendoak behar ditugu

Arestian ere esan dugu: begi-bistakoa da migratzaile asko etorriko direla Euskal Herrira datozen urteetan. Hizkuntza-politikak etorri berriaren lekuan jartzeko ahalegina egin behar du, zubi berriak eraiki behar dira etorkinei harrera egiten dieten gizarte-langileekin elkarlanean eta ikuspegi hori neurri zehatzetan islatu behar da.

Harrera-prozesuan euskarari behar duen tokian emango dioten harrera-protokoloak izan behar ditugu hasieratik. Eskala handiko mugimendu handi baten aurrean baldin bagaude, munta bereko planak eta erabakiak beharko ditugu.

4.1.9 Hiriburuei begirako berariazko hizkuntza-estrategiak behar ditugu

Iñaki Iurrebasok⁶ bere tesian azaldu berri digu zein garrantzitsuak diren arnagune geografikoak euskararen indarberritze-prozesuan. Arnaguneei begira berariazko estrategiak behar ditugu, baita sozioekonomikoak ere; baina, aldi berean, ezin dugu naturalizatu euskararen minorizazioa erabatekoa Euskal Herriko zenbait hiriburutan. Kontrara, zabaltzen ari diren prospekzio demografikoak kontuan izanda, premiazkoa da hiriburuei begirako berariazko estrategiak lantzea.

Hizkuntza-politikan hiriburuetan arreta berezia jartzea ez dago kontrajarria arnaguneak babestearekin. Ikuspegi dikotomikoak gainditzeko ahalegina egin

⁵ Paragrafo honetan hitz egiten denaren harira, Badalab partzuergoaren berritasuna eta garrantzia aipatu nahiko genituzke (<https://www.badalab.eus/eu/>)

⁶ Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikako tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa.

beharra daukagu. Euskal Herriko lurralde desberdinen egitura demografikoan pisu nabarmena dute jada hiriburuek: haietan biltzen dira zerbitzu nagusiak eta beste-lako gertakariekin batera, esaterako mugikortasun pendularra deritzanarekin batera, erabat baldintzatzen dute arnaguneen etorkizuna.

4.2 Komunitate-estrategian eman beharreko jauziak

4.2.1 Erakunde traktoreak identifikatu beharko ditugu, planifikatu eta tresnak eman, bereziki juridikoak

Ponentzian behin baino gehiagotan aipatu dugu zein garrantzitsuak diren arnagune geografikoak hizkuntzaren eta hizkuntza-komunitatearen jarraipenerako. Ponentzia honetan gure tesia izan da, batetik, ez bakarrik arnagune geografikoak, baizik eta arnagune soziofuntzionalak ere behar ditugula; eta, bestetik, eremu soziofuntzionalen artean, eta hizkuntza-komunitate estrategiak aintzat hartuta, une honetan, erabat logikoa izango litzatekeela Administrazioa hurrengo arnagune soziofuntzionala izateko urratsak ematea.

Hizkuntza-komunitate gisa, iruditzen zaigu funtsezkoa dela adostea tamaina eta izaera desberdinetako erakunde batzuk liderrak, traktoreak, izan behar dutela Administrazioa arnagune funtzional izateko bide honetan, eta erakunde horiei eman behar zaizkiela behar duten babes juridikoa eta behar duten aitortza eginkizun hori egiteko. Erakunde traktore horien mapa osatu, funtzioak adostu eta artikulatu egin beharko genituzke.

Erakunde horietan, euskarak behar du izan berezko lan-, zerbitzu- eta komunikazio-hizkuntza, alderdi politikoaren artean egon daitekeen lehia legítimoaren gainetik, eta euskara irradiatu behar dute beren jendaurreko jardunaren, kontratazioaren, hitzarmenen eta dirulaguntzen bidez.

Azken 20-30 urteotan pilatu dugu traktore izan daitezkeen erakunde horien gaineko eskarmentua (UEMA, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Saila...), eta kontua izango litzateke estrategia bat lantzea datozen urteetan erakunde horietan egindako lana babesteko, atzera egiteko arriskurik gabe, progresibotasuna oinarri, eta planifikazio bat egitea gisa horretako administrazio gehiago jartzeko abian.

Argi izanda administrazio-mota eta erakunde guztien ardura dela politikak implementatzea Euskal Herrian dugun berezko hizkuntza garatzeko eta komunitate horren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, erakunde horien mapa osatzean aintzat hartu beharko dira zenbait alderdi, besteak beste:

- Abiapuntua/egoera zein den: Errealitate soziolinguistikoak eragina badu ere, antzeko errealitatea izanagatik, izaten dira aldeak erakundearen artean.

- Herritarrekin duten harremana: Lehen azaldu dugun bezala, udalak gakoak dira, baina, era berean, ezin ditugu bazter utzi Osakidetza, Osasunbidea, Foruzaingoa edo Ertzaintza bezalako erakundeak.
- Erakunde batzuek besteengan eragiteko duten gaitasuna; baita erakundeen arteko harremana eta gertutasuna ere: Horri lotuta beharrezkoa litzateke hizkuntza-politika eraikitzeko garaian norabide guztietan lan egitea, alegia: goitik behera, behetik gora eta zeharka. Alegia, Eusko Jaur-laritzatik hasi eta udaletaraino eragin, udaletatik hasi eta Eusko Jaur-laritzaraino iritsi; udalen arteko elkarlana, aldundien artekoa... indartzea. Udalen arteko elkarlan hori gauzatzeko, aldundiak beharrezko eragileak dira, bestalde.

4.2.2 Hizkuntza-komunitatea trinkotzeko estrategia bat behar dugu

Euskararen Gogoetaguneak proposatutako ponentzia nagusiaren eta Iñaki Iurrebasoren (2024) tesiaren harira, iruditzen zaigu hierarkia handieneko erakundeek estrategia esplizitu bat osatu beharko luketela hizkuntza-komunitatea ehundu eta trinkotzeko. Hau da, Iñaki Iurrebasoren tesiak pentsarazi beharko liguke lehen-tasuna arnaguneetan edo hala izatetik gertu dauden guneetan jarri behar dugula, haietan sortzen delako euskararen erabilerarik handiena.

Baina epe labur-ertaineko lehentasunak non ditugun argi zehaztu ondoren, epe luzeagoko eszenatoki bat ere irudikatu behar dugu, non euskal geografia osoan euskal hiztun osoak irudikatu behar ditugun eta hizkuntza-komunitateko kide senti daitezzen baldintzak sortzeko estrategiak erein. Alegia, euskal hiztun osoak irudikatu behar ditugu euskal geografia osoan, eta haiei begira komunitate politikak landu.

Hizkuntza-komunitatea osatzeko gisa honetako neurriak edo estrategiak garatu daitezke Administrazioetik:

- Arnasgune geografikoak babestu eta osatzeko estrategia sozioekonomikoa osatu
- Euskalgintza sare gisa antolatzen lagundu eta komunitate-izaera indartu
- Eremu ez-formalean euskara indartzeko, aisialdi-eskaintza oso eta koordinatuaren erreferentziazko guneak sortu euskal geografian zehar
- Euskal Herria hizkuntza-ingeniaritza eta hizkuntza-teknologia librearen erreferente bihurtu Europan, betiere komunitatea osatzeko xedez eta balio etiko batzuen gainean
- Politika publikoetan hizkuntza-inpaktuaren azterketak egin modu sistematikoa eta neurriak hartu

4.2.3 Hizkuntza-zuzenbideko aditu gehiago behar ditugu

Atal honekin bukatzen joateko, Hego Euskal Herrian bi hizkuntza ofizial izanda eta kontuan izanik euskara indarberritzeko egin den ahalegina, hizkuntza-zuzenbideak oso garapen txikia izan du administrazio-zuzenbidearen barruan.

Euskararen egoerarentzat onuragarriak izan daitezkeen hainbat kontzeptu behar adina garatu gabe daude oraindik juridikoki: zein diren ofizialtasunaren aukera guztiak, zein ondorio dituen hizkuntza bat «berezko hizkuntza» izateak, Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunaren garapen osoa... Horretaz gain, oraindik ere hainbat sektoretan sistematikoki betetzen ez diren hizkuntza-eskubideen auzian ere, lanketa juridiko bat egin behar delakoan gaude, besteak beste. Izan ere, oso kontuan izan behar dugu hizkuntza-eskubideen urraketa ohikoa dela Euskal Herrian eta Hizkuntza Eskubideen Behatokira edo Elebidera iristen diren salaketa-kopurua marjinala dela, errealitatean gertatzen denarekin alderatuta. Errealitatetik gertuago dauden azterlan, datu eta adierazleak behar ditugu, eta, agian, Inkesta Soziolinguistikoa izan daiteke horretarako tresna egoki bat.

Premiazkoa da datozen urteetan zuzenbide-fakultateekin batera ahalegin handiagoa egitea hizkuntza-zuzenbidean adituak sortzeko: euskararen indarberritzeak behar dituen tresna juridikoez eztabaidatu behar da, hainbatetan euskararen indarberritzeko prozesuaren aurka argitaratzen diren sententzien gaineko eztabaida juridikoa sustatu behar da eta jakintza juridikoa sustatu behar da lege-arauak euskaratik eta euskaraz pentsatzeko, bai hizkuntza-politikari dagozkionak, bai politika sektorialetan.

Era berean, unibertsitate-mailako jakintza hori maila politikora transferitzeko moduak aztertu behar dira; besteak beste, gure hizkuntza-komunitateak urte gehiegiz konpondu gabe dituen hainbat arazo konpontzeko, esaterako Nafarroan, zonifikazioarekin amaitzea eta euskararen estatus ofizial bat errekonozitzea lurralde osoan eta, Ipar Euskal Herrian, euskararen estatus ofizial baten errekonozimendua (Korsikako eredia lagungarria izan daiteke horretan).

5. Azken hitza

Sarreran esan bezala, ponentzia honen xedea izan da Euskararen Gogoetaguneak ekimenak proposatutako Etorkizuneko Ikuspegia osatzea. Jakitun gara txosten honetan proposatutako urratsak eta jauziak lurralde desberdinetara, errealitate soziolinguistiko desberdinetara eta errealitate soziopolitiko desberdinetara moldatu beharko direla.

Garrantzi berezia eman diogu berdintasunaren balioari. Gure gizartean oso errotutako balioa da, baita euskara biziberritzeko prozesuan ere; neurri handi batean, gizarte gisa mugiarazi gaituen oinarritzko balioa izan da eta. Etorki-

zunean ere gizarte osasuntsu baterako, bizikidetzarako, oinarritzko balioa izango dugu. Balio hori partekatzen du euskararen biziberritze-prozesuak beste hainbat eraldaketa-prozesuekin batera. Hizkuntzaren eraldaketa-prozesua beste eraldaketa-prozesuekin uztartzea beharrezkoa dugula adierazten dute aditu askok, eta guk ere bat egiten dugu horrekin. Pentsatu beharko dugu nola islatzen den hori Administrazioaren jardunean.

Aipatu izan da euskarak behar duela izan sistema operatiboa, ez aplikazio bat. Uste dugu baldintza objektiboak eta subjektiboak daudela politika egokien bidez euskara Administrazioaren sistema operatiboa izateko, gutxienez EAEn, Nafarroako hainbat eskualdetan eta Ipar Euskal Herriko hainbat herritan. Sinetsita gaude euskal gizartearen esku dagoela akordio soziopolitikoak osatzea, Administrazioan, duela 30-40 urte hezkuntzan eman zen gisako jauzi kualitatibo bat emateko, Administrazioa euskararen arnagune izan dadin hogeit hamar urte barru.

Mundu gero eta globalizatuago batean izateko nahia ez da huskeria, izatea ez baita inoiz bigarren mailako kontu bat. Sinesten dugu aukera bikaina dugula, berriz ere, etorkizuneko eredu eta erreferente garrantzitsu bat eraikitzeke, gainerako hizkuntza-komunitate gutxituentzat ere lagungarria izan daitekeena.

Horixe izan da gure ikuspuntua ponentzia honetan: hogeit hamar urte barru Europako Mendebaldean, hizkuntza minorizatu bat, euskara, ardatz hizkuntza izango duen Administrazio bat, eta, aldi berean, hizkuntza-komunitate osoaren garapen-bidea ahalbidetzeko politika sendoak inplementatuko dituen Administrazio bat.

6. Bibliografia

EUSKO JAURLARITZA. (2024). *VII Inkesta Soziolinguistikoa 2021*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

HAINBATEN ARTEAN. (2011). *Etorkizuneko Euskara Zerbitzua*. Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://www.gipuzkoa.eus/documents/882543/909427/Etorkizuneko+euskara+zerbitzua.pdf/141feabe-4b5c-bf19-d2ca-0545c4ae0859?t=1618924143000>

HAINBATEN ARTEAN. (2014). *The Politics of Ethnolinguistic Mobilization in Europe*. Routledge.

JAUREGI, P. eta SUBERBIOLA, P. (2015). *Aldahitz: Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan*. Soziolinguistika Klusterra.

LUJANBIO, M. (2017). «Euskaratik eta gure mundu erreferentzialetik egin behar dugu, besteen ispiluetan gure buruaren bila ibili gabe». *Barren Aldizkaria*. <https://barren.eus/elgoibar/1704989708752-maialen-liujanbio-euskaratik-eta-gure-mundu-erreferentzialetik-egin-behar-dugu-besteen-ispiluetan-gure-buruaren-bila-ibili-gabe>

SARASUA, J. (2022). «Lan-eremua euskalduntzea eskala handiko operazio bihurtu behar da datozen hamarkadetan», *Oiartzun Lanin*, abenduak 7. <https://oiartzunlanin.eus/?p=405>

SARASUA, J. (2024). *Euskararen Gogoetagunea I*. Euskaltzaindia.

URRUTIA, I. (2021). *Hizkuntza aldetik kontratazio arduratsua*. Udaltop. <https://www.udaltop.eus/documents/61998989/62321841/I%C3%BIgo%20Urrutia%20HIZKUNTZA%20ALDETIK%20ARDURATSUA%20DEN%20KONTRATAZIOA.pdf/ceec3036-706f-801a-3be0-15dbc6ee2128>

VILA, F.X. (2017). «Repensar la llengua i la comunitat lingüística: reptes principals i línies de treball». *Revista de Catalunya* (ale berezia): 139-151